



## 'ARTEAN III, HAMAIKA IZARA': DEBAGOIENEN HAMAIKA ARTISTA EMAKUMEREN SORMENA, BISTARA

Gaur inauguratuko dute, Kultureteko klaustroan, Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko hamaika artista gaztek antolatutako erakusketa kolektiboa / 40

Erakusketa kolektiboko artistetako batzuk; ezkerretik eskumara: Amaia Albes, Sara Miguelez, Maddi Urizar, Amaia Martinez de Arenaza eta Miren Barrenetxea. XABIER URZELAI

### Oñatz dantza taldeak izango du protagonismoa Corpus berezietan

Ikastetxeetan, meza nagusian eta plazako frontoiko emanaldian nagusituko dira kriskitin hotsak / 34



EIDER MONCAYOLA

**COVID-19 kutsatu kopuruak eta tasak gora egin dute, eta hautsi egin da azken sei asteetako joera / 2**

#### SINADURAK

 ANAJE NARBAIZA / 8	 UXUE MONTERO / 32
 ENERITZ LURRUTIA / 12	 AINTZANE OIARBIDE / 48



Hilaria Vianeke aktibistari elkarrizketa

Komunikazioan murgiltzeko udalekuak

SUMMER IS MÓ

# 2 mó 99€

batzuk eguzkitakoak izan daitezke

Kontsultatu optikan konpainiaren eszagarririk.

Otalora Lizentziaduna, 18  
 Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**

Ibargarai, 16  
 Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**


www.multiopticas.com

**MULTIÓPTICAS**  
 Gipuzkoako optika sarerik handiena

B.P.S. 91/70

**KORONABIRUSA****Intzidentzia-tasaren eboluzioa**

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA

**Positibo kasuak eta intzidentzia**

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak 1.000 biztanleko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	26	16	3.086	139,75	<b>226</b>
Bergara	12	6	1.587	105,55	<b>146</b>
Aretxabaleta	9	6	792	111,86	<b>225</b>
Oñati	3	4	1.368	119,29	<b>61</b>
Eskoriatza	2	1	396	96,51	<b>73</b>
Antzuola	2	3	240	110,14	<b>229</b>
Aramaio	2	9	169	114,19	<b>743</b>
Elgeta	2	0	66	58,36	<b>176</b>
Gatzaga	2	0	11	44,00	<b>854</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>60</b>	<b>45</b>	<b>7.715</b>	<b>119,04</b>	<b>182</b>

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

# Kutsatuek eta tasak gora egin dute, azken sei asteetako joera hautsita

Aurreko astean baino hamabost positibo gehiago izan dira azken honetan: 60. Ibarreko intzidentziak ere zertxobait egin du gora, azken asteetan beheranzko joeran izan ostean. Jaurlaritzak adierazi du ez dituela Kontseiluak ebatzitako arauak beteko

**Maialen Santos** ARRASATE

Azken zazpi egunetan 60 pertsona kutsatu ditu koronabirusak Debagoiengan, joan den astean baino 15 gehiago. Eskualdean 7.715 lagun kutsatu ditu gaitzak pandemia hasi zenetik.

Arrasatek baieztatu ditu kasu gehien (26), gainontzeko herriekiko alde nabarmenarekin.

Debagoieneko Ospitalean, bestetik, atzo ez zegoen birusak kutsatutako gaixorik, eguaztenez ingesatuta zeuden bi lagunek alta jaso baitzuten bart.

Eskualdeko intzidentzia-tasak gorabeherak izan ditu, nahiz eta aurreko astetik, oro har, gora egin duen. Gipuzkoan eta Araban gora egin du tasak zertxobait eta Bizkaian, aldiz, behera. Nafarroan berdintsu mantendu da.

**TXERTAKETA KANPAINA**

## EAE-KO HERRITARREN %50EK HARTU DUTE DOSI BAT DAGOENKO

Osasun Sailak jakinarazi duenez, EAEko 16 urtetik gorako herritarren %50,2k jaso dute dosi bat gutxienez eta EAEko biztanleen %27,1ek bukatu dute txertaketa prozesua. Bestetik, orain arteko datuek erakusten dutenez, %1,4 izan dira txertoa jarri ez dutenak –kontraindikazioengatik edo uko egin diotelako–.

Horrez gain, lehenengo dosia AstraZenecarena hartu ostean etxe bereko bigarrena hartu nahi zutenak "zerrenda berezi" batean sartu zituen Osasun Sailak. Atzo hasi ziren hautu hori

egin zutenei hitzorduak ematen, hain zuzen ere.

Azkenik, Osasun Publikoaren Batzordeak erabaki du 40 eta 49 urte arteko herritarrei Janssen txertoa ematea, dosi bakarrarekin. Nolanahi ere, adin-tarte horretakoei Pfizer eta Moderna txertoak ere emango dizkiete. Datorren astean hasiko dira adin tarte horretako herritarrak txertatzen.

**GAUEKO AISIALDIA**

## "JAURLARITZAREN ESKUMENAK URRATZEN DITUZTE"

Lurraldean Arteko Osasun Kontseilua egin zuten eguaztenez, eta gaueko aisialdiaren eta os-

talaritzaren ordutegiak malgutzera erabaki zuen Osasun Ministerioak. Jaurlaritzak baztertu egin zituen haren asmoak, eta ez zuen bozketan parte hartu; izan ere, neurriek "Jaurlaritzaren eskumenak" urratzen dituztela eta "LABIk esandakoarekin" bat ez datozela iritzi du Osasun Sailak. Hala, EAEk bere ibilbide orriari jarraituko diola azpimarratu zuen atzo Urkulluk, eta berretsi, ez dituela arauak jarraituko. Ministerioak ebatzitakoa da intzidentzia-tasa 150etik beherakoa den eremuetan tabernak 01:00ak arte zabalik egon ahal izatea –00:00etan zerbitzatzeari utzita–, eta diskotekak 02:00ak arte egotea. Gaueko aisia 03:00ak arte luzatu ahal izatea ere ebatzi dute, intziden-

tzia 50etik behera dagoen eremuetan. Edukiera erdira egongo litzateke murriztuta diskoteketan, eta %60ra jatetxe eta tabernetan, "aireztapen ona badago". Terrazetan, berriz, %100ekoa izan ahalko litzateke. Bestetik, bilkurak gehienez sei lagunekoak izan ahalko lirateke espazio itxietan eta hamarrekokoak kanpoaldeetan.

Aipatzekoa da LABiren erabakiz eguaztenez indarrean daudela honako neurri hauek: aire zabaleko kirolean pertsona mugarik ez dago; garraio publikoetako azken zerbitzua 00:00etan egin ahal dute; aisialdiko taldeak hamar pertsonakoak izan daitezke; eta aire zabaleko erakusketetan eta bisita gidatuetan hamarrekoko taldeak osa daitezke.

## Gimnasioko erabiltzaileak, baheketara

Osasun Sailak eta Osakidetzak egiten dituzten zaintza eta kontrol-lanei jarraituz, baheketa egin zuten eguaztenez honetan Arrasaten. Maiatzaren 1etik aurrera Coliseum Arrasate gimnasioan egon diren pertsona guztiei PCR proba egitera joateko dei egin zien Osasun sailak. 10:00etatik 11:00etara egin zituzten probak, Debagoieneko Ospitaleko kanpo kontsulteran erakinean.

Gimnasio horretako erabiltzaileen artean azken egunetan "hainbat koronabirus kasu" positibo baieztatu dituztela-eta egin zuten baheketa, ospitaletik adierazi dutenez.

Emitza guztiak SMS bidez bidaliko dituztela adierazi du Osasun Sailak, eta COVID-19aren sintomak edukiz gero etxean geratzeko ohartarazpena egin dute, beste behin ere.





Landa eremuan dagoen Oñatiko Arregi nekazaritza turismoa. M.S.

# Mugimendua igarri arren, normaltasuna helmuga

COETUR landa-turismoaren gaineko kongresua hartu du asteon Arantzazuk, eta sektoreak gizartean duen inpaktua izan dute berabagai, besteak beste. Pandemiak utzitako kalte ekonomikoak "izugarritzkoak" direla azaldu dute parte-hartzaileek

## Maialen Santos OÑATI

Landa-turismoaren Europa mai-lako COETUR kongresuaren VII. edizioa hartu du eguazten eta eguen honetan Debagoienak. Zehazki, Arantzazun egin dute *Landa-turismoaren erronkak eta aukerak 2021ean* izenburua daraman biltzarra, eta sektoreko profesionalak bildu dira bertan, landa-turismoaren balioaz, ahalmenaz eta gabeziez hausnarke-ta egiteko. Horretaz gain, turismoak ekonomian, gizartean eta ingurumenean eragiten duen inpaktua ere izan dute berabagai.

## Kalte ekonomiko handiak

COETUR kongresuan parte hartzen izan da Nekatur EAEko Nekazaritza Turismoaren Elkar-teko gerente Idoia Ezkurdiak, eta azaldu du osasun-krisiak "izugarritzko" eragina izan duela turismoaren sektorean: "2020an landa ostatueta %80ko jaitsiera izan dute fakturazioan, eta aurtengo lehen hiruhilekoan aktibitatearik gabe egon gara

mugikortasun mugen eraginez. Horrenbestez, galerak 8 milioi-tik gorakoak dira; erabatekoak gure sektorearentzat".

Mankomunitateko Turismo Saileko Ana Heriz teknikarik azaldu du egoera bera izan dela eskualdean ere: "Turismo arloan urte gogorra eta zaila izaten ari da, oraindik ez baita amaitu".

## Normaltasunetik "urruti"

Ezkurdiak GOIENARI azaldu dio oraindik ere normaltasuna berreskuratzetik "urruti" daudela, nahiz eta mugimendua sumatzen hasita dauden: "Euskaldunak, estatukoak zein atzeritarrek tor daitezke gurera dagoeneko, eta hasi gara erreserbak jasotzen datozen asteetarako".

**"LANDA TURISMOEN OKUPAZIOA %33AN DAGO UZTAILERA BEGIRA, ETA %43AN ABURTURAKO"**

begira". Zehaztu du uztaileko %33ko okupazioa dutela orain arte, eta aburturako, bestetik, %43koa. 2019ko datuekin alderatuta, baxuagoak dira aurtengo datuak, hala eta guztiz ere. Ildo horretatik, Herizek adierazi du kontsumo ohiturak aldatzen ari direla, eta herritarrak bertakoa eta gertukoa gehiago baloratzen hasita daudela. "Mugikortasun mugek asko mugatu dute hori, eta tokikoa baloratze-ko sortutako ohiturak mantentzea espero dugu".

## Garapen jasangarriari bultzada

"Esperientzia turistikoak sortzea dugu erronka, horretarako garapen jasangarria bultzatuz. Eta merkatuaren eboluzioari egokitzea ere gura dugu", esan du Mankomunitateko ordezkariak. Nekatur-eko gerenteak, bestalde, adierazi du COVID-19a gainditzea izango dutela erronkarik handiena, "eta nekazaritza turismoetako arduradunen belaunaldi aldaketan lanean ere ari gara".

## EKINTZAILTZA GARAIA



Maiatzean zehar egindako jardunaldien une bat. GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOA

## Pertsonen Berrikuntza Hilabetearen hirugarren edizioa Garaian

2019az geroztik berrikuntzaren jokaleku bilakatu da parkea, eta pertsonen talentua garatzea da helburua

## M.S. ARRASATE

Egungo ingurune ziurgabe eta aldakorra "geratzeko" etorri dela azaldu dute Garaia Parke Teknologikoko arduradunek, eta horrek "erronka garrantzitsuak" dakarzkie erakundeei eta, batez ere, pertsonari. "Ezin dira ahaztu garaiotan hainbat erakundetan garatzen ari diren irtenbide zientifiko eta teknologiko guztien atzean pertsonak daudela euren talentua aplikatzeko, soluzioak aurkitzeko, eta erabiltzaileak edo onuradunak daudela", diote.

## Jardunaldiak eta ikastaroak

Maiatzeko astearte guztietan pertsonen eta erakundeen talentuaren kudeaketari, adimen emozionalari eta eraldaketa kulturalari lotutako online eta aurrez aurreko jardunaldiak eta ikastaroak egin dituzte, eta 170 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte horietan.

WeBring-eko kide Amaia Munnua izan da ekimenaren lehengo parte hartzailea, *Nola erakarri talentua eta ez hil saikeran* jardunaldiarekin. *Employer branding*-a lantzen lagundu digu, talentua erakartzeko dugun gaitasuna hobetzeko, errekrutatzearen kostuak murriztuz eta langileen konpromisoa areagotuz", zehaztu dute.

EQUILIAK, Judith Castillo bazkide fundatzailearen bitartez, erakunde baten balioak ukigarri bihurtzeko tresnak proposatu ditu, erakundeak eboluzionatze-

ko mapa bat osatuz, *Nola gidatu balio partekatuek bultzatutako erakundeak?* jardunaldiarekin.

KRUCEn enpresatik, Alaitz Osa eta Romu Artechek fundatzaileek lider orok kontuan izan behar dituen *Lidergo transformazionalaren bost ardatzak* proposatu dituzte: enpatizatzea, inspiratzea, eragitea, haztea eta eraldatzea.

Pertsonen Berrikuntzaren Hilabetea amaitzeko, Zuriñe Altubek *Adimen emozionala, talentua garatzeko giltzarria* tailerra aurkeztu du, "egungo lan ingurunean talentua indartzeak duen garrantziaz jabetzeko".

## Eskaintza zabala

Eskaintza, oro har, gizarte osoari zuzenduta dago, eta, bereziki, taldean lan egiten duten pertsonari: giza balibideetako profesionali, erantzukizuneko karguak dituztenei eta jendaurrean eta hezkuntza sektorean lan egiten dutenei. "Hiru edizio eta hamahiru ekitaldiren ondoren, parkeak gizartean inpaktua izatea lortu du, inguruko profesionalen eta gizartearen parte-hartzea 540 pertsonatik gorakoa izanda eta pandemiaren oztopoak gaindituz", esan dute Garaiatik.

**PARKEAK GIZARTEAN INPAKTUA IZATEA LORTU DU, EGUNGO PANDEMIAREN OZTOPOAK GAINDITUZ**

# 'TicketBai' ezagutzeko, formakuntza enpresariei

Fakturazio sistema elektronikoen berriaren derrigorrezko erabilera datorren urte hasieran sartuko da indarrean. Diru-sarrerak eta zergen ordainketa kontrolatuko dituen sistema ezagutzeko, herrietan formakuntza saioak eskaintzen ari da Gipuzkoako Bazkundera

**Jone Olabarria** ARRASATE

Banku-erakunde bezero diren enpresa txiki eta ertainei zein autonomoei "zuzenean" eragingo die *TicketBai* fakturazio-sistema elektronikoen derrigor-tasunak. Foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak partekatutako proiektua da, eta 2022ko urtarilaren 1etik aurrera derrigorrezkoa izango da Gipuzkoan eta Bizkaian. Arabaren kasuan, 2022an zehar aplikatuko da, modu mailakatuan.

**Zerga ordainketa kontrolatzeko**

"Ogasunei diru-sarrerak guztiak kontrolatzea eta zerga-ordainketen ez saihestea" du helburu fakturazio-sistema elektronikoa. Gipuzkoako Bazkundera zehaztu duenez, sistemak "onurak" ekarriko ditu enpresa eta komertzioentzat: "2021ean *TicketBai* sistemarekin bat egiten duten ETE-ek eta autonomoek %60 arterainoko kenkariak izan ahalak dituzte PFEZaren kuota osoan



Eguaztenean egindako formakuntza saioaren une bat, Seminarixoan. B.U.

edo sozietateen gaineko zergan ekitaldi horretan egindako inbertsioengatik".

**Formakuntza saioak abian dira**  
*TicketBai* ezartzeak eskaintzen dizkigun berrikuntza-aukerak

izenburua duen doako prestakuntza jardunaldia egiten aritu da Gipuzkoako Bazkundera eguaztenean eta eguenean Seminarixoan, ostalaritza eta merkataritza establezimenduetako arduradunentzat eta langileentzat.

## Anibal Criollo chef kolonbiarra bailaran, Mundukiderekin batera

Madrid Fusion-en parte hartuta, Arrasaten izan zen atzo, Kolonbian egiten dituzten proiektuetan sakontzeko

**J.O. BERGARA**

"Afektuan, historian, belaunaldien arteko transmisioan, sus-traitzean eta partekatze asmoan oinarritutako sukaldaritzan" garatzen dute Anibal Criollok eta bere iloba Marcela Jojoa Criollok. Quillasinga herri indigenako jatorriz, Kolonbiako Nariño departamenduan dauka jatorria Criollok: Naturalia.

Nariño Kolonbiako barne-gatazka armatuak gehien kolpatutako departamenduetako bat da, eta giza garapen mailarik txikienetakoa duena. Bertan



Criollo, jatorriko jakiak batzen. V.P.

"Gastronomia zirkularraren eredia" lantzen dute Criollok eta Mundukidek, elkarlanean: "Ekoizle txikien babesa, sasoiko osagaien eta tokiko despentsaren defentsa, ahaztutako produktuen berreskuratzea, giroarekiko eta lehengai urriekiko errespetua, hondakinen aprobetxamendua eta baztertutak jotzen diren produktuen berrerabilera praktikan jartzen duena".

**"Erlazioa sendotzeko"**

Madrid Fusion-en parte hartze- ra gonbidatu dituzte asteon Anibal eta Marcela, bere sukaldaritzaren eta unibertsitateko duten ikuspuntuaren inguruan jarduteko. Bidaia aprobetxatuz, Mundukidek Arrasatera gonbidatu ditu: "Aurretik dugun lan-kidetzaren erlazioa sendotu eta gure bailara ezagutzeko".

Gipuzkoako Bazkundera azaldu duenez, formakuntza saioek etorkizunerako prestatu nahi dituzte enpresak.

"Kontuan izan behar dugu tiketak jaulkitzen dituzten gailuek -ordenagailuak, kutxa erregistratzaileak, balantza ar-reratuak, TPVak- sistema berri horri heldu beharko diotela, nahitaez, eta jaulkitako tiket bakoitza Ogasunera bidaliko dela". Horrek berekin ekarriko du negozioaren beharretara ego-kitzen den irtenbidea ezartzea".

**Datorren astean, Eskoriatzan**

Asteon Bergaran formakuntza eskaini ostean, ekainaren 7an eta 8an Eskoriatzan egingo ditu saioak Gipuzkoako Bazkundera, Ibarraundi museoa. Enpresa txiki, komertzio eta dendetako langile zein arduradunek izena eman dezakete, doan. Bi egunetan egingo dute; 14:30ean hasi eta 16:00etan bukatuko dira saioak. Dagoeneko zabalik dago izena emateko epea, Gipuzkoako Bazkunderaren webguneari bitartez.

**ULMA**

**BATZAR NAGUSIA**

**ULMA Inversiones S. Coop. - Oñati**

**OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA**

COVID-19a dela eta dagoen osasun egoera kontuan hartuta, enpresen karabimeneri eta energia sektoreari laguntzeko premiaz gain zenbait zerga iturri ere aztertzen dituen azaroaren 17ko 34/2020 Errege Lege Dekretuaren 3.2 artikuluan ezarritzen dituzten araber, ULMA Inversiones S. Coop. aho Kontseilu Errektoreak ("Kooperatiba"), 2021eko martxoaren 30eko bilera, erabaki du Ohiiko Batzar Nagusia deitzea eta bide telematikoz egitea.

**Eguna:** 2021eko ekainaren 11a

**Ordua:** 12:00ean lehen deialdia eta 12:30etan bigarrena

**Leku:** Bidekonferentzia sistema bidez

**GAI ZERRENDA**

1. AURREKO AKTA ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2020KO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA, ETA, KASUAN KASU, 2021EKO GESTIO PLANA ETA AURREKONTUA BERRESTEA
3. 2020KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA, ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA
4. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
5. KAPITALERA EGINDAKO EKARPENAK ORDAINTZEKO PROPOSAMENA
6. 2020KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEKO PROPOSAMENA
7. ESTATUTU SOZIALAK ALDATZEA, HALA BADAGOKIO, ETA HAIEN TESTU BATEGINA ONARTZEA, EUSKADIKO KOOPERATIBEI BURUZKO ABENDUAREN 20KO 11/2019 LEGERA EGOKITZEKO ETA ESTATUTUEN TESTUA ARLAGO JARTZEKO
8. HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)
9. KOOPERATIBA BAZKIDE BAKOITZAREN GUTXIENEN KARPEN EKONOMIKOA
10. MENPEKO FINANTZA EKARPENEN JAULKIPENA
11. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
12. ZAINZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
13. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
14. AHALMENAK ESKUORDEZEA
15. GALDE-ESKEAK

**OHARRAK** Baidakari gogoratu behar da Kooperatibaren egotza eta interesen enpresari dituzela zirkulazioa, enpresari aplikatzen proposamena eta kontuan hartzea erabakitzearen ondorioz. Batzar Nagusiaren deialdian enpresari zehazki zehazki izan behar dira. Hala ere, bazkide guztiak jakinarazten dira Kooperatibaren egotza eta interesen enpresari dituzela zirkulazioa. Enpresariaren proposamendua aldatzea behar duen eta aldatzea behar duen proposamendua, eta horiek denak denak enpresari edo bazkideri erabakitzeko. Enpresari, bazkideri jakinarazten dira Kooperatibaren Kontseilu Errektoreak konfirmazio bat egitea deialdi honen eragari gisa, non bazkideri akordioa, akordioa eta bazkideriaren jarduera arduratzen dituzten enpresari. Ohiiko Batzar Nagusia berez. Kontseiluko hiru kooperatibaren egotza eta Kooperatibaren interesen dago enpresari bazkideriaren.

**LEGE OHARRAK** Kooperatibak ez duela diru eta bazkideri, bazkideri, bota enpresari, zirkulazioa eta parte hartze mekanismo elektronikoak erabakitzeko, enpresari edo bazkideri erabakitzeko, arazo teknikoak edo arazo teknikoak hala gogoratuak edo ezarritako diren. Kooperatibak ez du enpresariaren iruzkin gaitzagarriak, enpresari, iruzkin erabakitzeko, kontseiluko akordioak erabakitzeko edo bere bazkideriaren interesen erabakitzeko eta aldi berean bazkideri, bazkideri, bazkideri, parte hartze eta bota bazkideri elektronikoak bidez enpresari erabakitzeko erabakitzeko deialdi gaitzagarriak.

**KONTSEILU ERREKTOREA**  
Oñati, 2021eko maiatzaren 28a

# Digitalizazioaren aroan, aldaketak banketxeetan

Digitalizazioa eta interes-tasak negatiboan izatea aldaketak eragiten ari da. Zenbait kasutan, gainera, sukurtsalak itxi dituzte bankuek, pertsonalean murrizketak egin dituzte eta protestak izaten ari dira, baita Debagoiengan bertan ere

**Imanol Beloki** DEBAGOIENA

Banketxeen sektorearen berregituraketa prozesua duela urte batzuk hasi zen, eta horren eragina gogor kolpatzen ari da banketxeen langileengan zein erabiltzaileengan. Sukurtsalak ixten ari dira, langileen kalera-zeak ere gertatzen, eta, aurre-erretiro planak ere eskaintzen ari zaizkie zenbait langileri, lehen eskaintzen zituztenetatik gaur egunekoekin alderatuz baldintza aldaketa nabarmena izanda, besteak beste.

Bailarako banketxeetan ere kolpatzen ari da fenomenoak: "Ez da oraingo kontua. Duela zenbait urte hasi zen banketxeen berregituraketa prozesua. Gogoan dut Bergaran San Lorentzo auzoan Laboral Kutxa itxi zutela, esaterako. Elgetako Kutxabank bulegoa ere itxi zuten iaz, kutzazain automatikoa utzi arren, eta Eskoriatzan ere Santander bankuko bulegoa itxi dute. Azken honetan, gainera, deslokalizazioa gertatu da; hau da, banketxea herritik kentzea. Eta hori ezohikoa da", adierazi du Ibon Agirrek, Bergarako Caixabank-eko arduradunak.

## Errentagarritasuna da ardatza

Gertatzen ari den egoeraren arrazoiak hainbat dira, baina nagusiak banku-erakundearen arteko fusioak, digitalizazioaren eragina –pandemiak handitu egin du– eta interes-tasak direla argi du Agirrek, Euriborra negatiboan izatearekin batera. "Adibide bat jartzearen: bankuak dirua hartu eta mailegatu egiten du, eta marjina bat atera. Marjina hori gutxitu egin da, eta lehen lortzen zituen irabazi horiek ez ditu lortzen gaur egun. Hala, lehengo irabazi portzentajea izatera bueltatu nahi badu, kostua jaitea modu bat da. Hor sartzen dira gastu pertsonalak, eta horregatik datoz murrizketak".



Herritar bat Aretxabaletako Caixabank-en bulegoan sartzen. AITOR AGIRIANO

## KUTXABANKEKO SUKURTSALA ITXI EGIN ZUTEN ELGETAN, ETA SANTANDER ESKORIATZAN

### Banketxei eskaerak

Kaleratzeak direla-eta enplegua erregulatzeko espedienteen kontrako greba egin zuten maiatzaren 26an BBVAko langileek, Espainian 3.798 langile kaleratu nahi dituztelako. Hego Euskal Herriko hiriburuetan mobilizazioak izan ziren, LABek, ELAk eta CGTk deituta, eta langileen ordezkariak presioa egin diote bankuari, kaleratzeak saihesteko eta baldintzak hobetzeko. Caixabank banketxeko kaleratzeak direla eta, eguazten honetan ordu erdiko geldiduna egin dute. Gaur amaituko da epe ofiziala BBVAko ERE-en negoziazioak ixteko; Caixabanken kasuan, berriz, hilaren 10ean amaituko da epea.

Pentsiodunak, berriz, banketxeen abusuzko banku-komisioak, sukurtsalak ixtea eta aurreko arreta murriztea salatzen

izan dira, banku eta aurrezki kutxen aurrean. Eskaera guztiak betetzea zaila bada ere, Arrasateko Nagusien Kontseilukoek herrian dagoen Kutxabankek bulegoan pauso bat eman zutela adierazi dute. "Bulego honetan 10:00etatik 12:00etara bitartean lehentasuna izatea pertsona helduek eta haurdun daudenek lortu genuen, eta, ilara luzea dagoenean ere, gestionatzera ateratzeko konpromisoa hartzen dute orain", adierazi du Alberto Cabiqueta kideak.

### Digitalagoak, errentagarriagoak

2008an, 45.707 banketxe zeuden Espainia osoan banatuta. 2020ko bigarren hiruhilekoan, Espainiako Bankuko datuek adierazten dute 23.685 geratu direla, %48 gutxiago. Murrizketa izugarria bada ere, adituen esanetan, bide beretik jarraituko du olatu horrek. "Bost-hamar urtera, bulegoetan pertsona bakarra edo bi egongo dira, makinak izango dira dirua ateratzeko, beste bat mailegua eskatzeko... eta bertan egongo den pertsona hori aholkatzeko egongo da. Hori da nire iritzia", adierazi du Agirrek.

## Apirilean baino 139 langabe gutxiago daude maiatzean

Guztira, 2.421 pertsona daude langabezian bailaran, eta jaitsiera nabarmenena Arrasaten izan da

**I.B. DEBAGOIENA**

INEk emandako datuen arabera, Debagoieneko langabezia-tasak nabarmen egin du behera azken hilabeteen. Guztira, 2.421 pertsona daude langabezian, baina aurreko hilabeteen baino 139 gutxiago dira. Jaitsiera nabarmenena Arrasaten izan da, eta, horren ondoren, Aretxabaletan eta Bergaran.

Maiatzean erregistratutako langabezia-tasa %7,99koa izan da, martxoko baino %0,46 txikiagoa. Alde nabarmenena Arrasaten erregistratutakoa

izan da; izan ere, aurreko hilabeteen baino 71 lagun gutxiago daude langabezian. Aramaion, Aretxabaletan, Bergaran eta Elgetan ere egoerak hobera egin du, eta Leintz Gatzagan eta Eskoriatzan berdin mantendu dira kopuruak –apirileko langabe kopuru bera erregistratu dute maiatzean–.

Bestetik, Antzuola izan da aurreko hilabeteen baino langabe gehiago erregistratu dituen bailarako herri bakarra: apirilean baino lau antzuolar gehiago daude langabezian.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELKARTEAREN

## BATZAR OROKORRERAKO DEIA

Honen bidez, 2020ko ekainaren 22an, martitzena, egingo dugun urteroko ohiko batzar orokorreko deia egiten dugu. Batzara Arrasateko Kulturaren Izango da, Aretxabaletan, 17:30ean lehen delaidian eta 18:00etan bigarrenean.

### GAI ZERRENDIA

1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. 2020ko irailaren 10eko batzar orokorreko aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. 2020ko kudeaketaren memoria azaltzea.
4. 2020ko kontuen berri ematea.
5. 2020ko emaitzen erabilera onartzea.
6. Zaintza Batzordeko kideen txostena irakurtzea.
7. 2021eko kudeaketa plana onartzea.
8. 2021eko aurrekontua onartzea.
9. Estatutu sozialak aldatzea, hala badagokio, eta haien testu batetara onartzea, Euskadiko kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legea egokitzeko.
10. Bazkide ekarpenen eguneratzea.
11. Galderek eta eskaerak.

I. Euskadiko Kooperatiben Legearen 24.4 artikularen arabera, bazkideei jakinarazten zaie euren eskura ditzutela kooperatibaren egoitza sozialean, ekitaldiak, Urteko Kontuak, emaitzen aplikaziorako proposamenak eta Kudeaketa txostena jasotzen dituzten dokumentuak.  
II. Era berean, Euskadiko Kooperatiben Legearen 36.7 artikuluan ezarritakoaren bat etorritik, berriaz adierazten da bazkide guztiak eskubidea dutela kooperatibaren egoitza sozialean aztertzei gai-zerrendako puntuak dagozkien arriak.  
III. Bukatzeko, bazkideei jakinarazten zaie, era berean, eta Euskadiko Kooperatiben Legearen 78.3 artikuluan ezarritakoaren bat etorritik, berriaz jasota geratzen da bazkide guztiak eskubidea dutela Eguneko Gai Zerrendako 9. puntuan proposatutako estatutu aldaketan testu osoa eta aldatutako hurrengo justifikatzen dituzten txostenek egotza sozialean aztertzei, bai eta dokumentu horiek dagozkien emaitza edo bidaltzei eskatzei eskubidea ere.

Arrasaten, 2021eko maiatzaren 31n.

**Monica Belastegi Aranzabal**  
Errektore Kontseiluko presidentea

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

# GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2021-2022

## MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

» Oñati gestio  
heziketa

IZEN-EMATEA

Maiatzak 31tik ekainaren 18ra

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none"><li>•Administrazioa eta Finantzak</li><li>•Zuzendaritza Idazkaritza</li><li>•Salmenta Kudeaketa</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>•Mekatronika Industriala</li><li>•Automatizazioa eta Robotika Industriala</li><li>•Fabrikazio mekanikoko Produkzioaren Programazioa</li><li>•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua</li><li>•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa</li></ul>

[www.mondragon.edu/ogh](http://www.mondragon.edu/ogh)  
943 71 80 09  
[rigarza@mondragon.edu](mailto:rigarza@mondragon.edu)

[www.mondragon.edu/gmh](http://www.mondragon.edu/gmh)  
664 298 704 • 664 298 683  
[orientazio.lhm@mondragon.edu](mailto:orientazio.lhm@mondragon.edu)



ZABALIK

ANAJE NARBAIZA

## Etxehurrengoa, etxe

Bizitza bizkor pasatzen ei da; hala entzun dogu etxian. Baina adinez aurrera joan ahala gorputza zahartu egiten bada ere, burua gaztetu egiten da.

Gazte denborara begiratzen badot, baserrian lan asko zegoela gogoratzen dot; lanak ez zeukan akaberarik, baina artajorran egindako orduen poza geratu zait betiko gordeta, irudi horren inguruan dauzkate gure etxian falta diren ama, aita, amandria eta aittajuna.

Gainera, etxeko atiak betik zabalik zeuden; gure etxetik etxehurrengora ez zegoen isturirik edo erromararik, elkar lagundu behar genuen aurrera egiteko. Etxehurrengoa etxea bezelaxe zaintzen zen, ez zegoen ondo egoterik etxehurrengoa gaizki bazan. Egungo eredu indibidualistak ez dosku, ez, poz gehiago ematen, eta gure arteko erromarak eta isturak sendotu egiten ditu. Etxehurrengoaren

### EZ ZEGOEN ERROMARARIK, ELKAR LAGUNDU BEHAR GENUEN AURRERA EGITEKO

konfiantza galdu egin da eta denok gara lapurren beldur, ez daukagu sosegurik; azkenean, etxehurrengoa ere lapur bihurtzen dogu.

Pozik sentitzen naiz hura ezagutzeko eta bizi izateko aukera izan nuelako; izan

ere, etorkizunerako eredu hautatzerakoan ez daukat zalantzarik nora begiratu behar dudana. Ez da zerbait birtuala edo fikziozkoa, ezagutu dot.

Baserritik atera eta industriara salto egin nuen, ezin dot esan sekula damutu naizenik, Euskal Herriko jabegoa duen enpresa batean eman ditut berrogeitaka urte eta bizimodu duina izan dot, enpresa hazten ikusi dot, emakume bakarrenetakoa izatetik emakumeen presentzia areagotu egin da eta aldaketa horren lekuko izateak pozez betetzen nau.

Baina seguru nago bere egunean, baserritarra izatia bakarrik lanarekin lotu beharrean askatasunarekin lotu bagenu eta lehen sektorearen politika hurbilak eta eredu jasangarrientzat laguntza sareak sortu izan bagenu, egungo zenbait baserri hutsek zutik eta bizirik iraungo zutela, eta indargabetu dugun eredu ekonomiko jasangarria berreskuratu.

## MARRAZKIZ

### UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Ez dira betiko garai onenak

#### AITZOL ATUTXA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Egunero zerbait berria ikasita oheratzen garela esan zidan behin aitona; arrazoi zuen. Baina zerbait berria ikasteko ibilbide berri horretan, sarri, beste zerbait desikasten dugu.

[...] Behiek belarra hausnartzen duten eran nahi nituzke nik gauzak hausnartu. Lehenik, sabeleratu, eta ondoren, berriz ere murtxikatu. Hitzak entzun, barneratu, hausnartu, eta ondoren, erabakia hartu. Baina ez, gizakiok ez dugu horrelakorik egiten eta azkar

batean ahazten zaizkigu gertatutako guztiak.

Pandemian bete-betean sartu ginenean medikuak txalotzen genituen 20:00etan. Alarma egoeratik atera garen honetan, ordea, ospakizunak egiten ditugu ordu berean. [...]

Bada nire buruan kabitzen ez den beste kontu bat: bihar, maiatzak 29, argitalpenerako falta diren egunak normaltasunez badoaz, jokatuko da binakako euskal pentatloi saria. Tolosako zezen-plazan izango da, baina lasai, ezin izango da ikuslerik bertaratu eta telebistaz jarraitu beharko duzue.

Hurrengo astean, ordea, zezen-plaza berean zezenketa, kontzertua, antzerkia, zirkua

edo dena delako edozein ikuskizun ikustera joan zaitezke. Eta kontuz! Ni horietako batzuen ikusle naiz eta izango naiz, baina ezin dut ulertu gurea bezalako kirol txiki batek jasaten dituen oztipo guztiak.

Honelakoa da herri kirola, batzuentzat kirola, beste askorentzat kultura, baina garai gogorretan argi geratu da ez dugula ez kulturaren ez kirolaren babesik jasotzen, ez gara inoren esparruan sartzen. Ea urak bere bidea hartzen duten lehenbailehen, eta, uholdeak eramaten ez bagaitu, ekainaren 20an jokatuko den binakako euskal pentatloi sarioko finalean elkar ikusiko dugu.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Monika Belastegi.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantzabal.  
Eduki zuzendaria  
Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
Maketazioa  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martinez de Arenaza.  
Publizitatea  
Mireia Larrañaga,  
Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

#### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA



## BERBAGAI

# "Ludopataren profila neurri kezkarrian gaztetu da"

**KARMELE GURRUTXAGA** PSIKOTERAPEUTA

**Larraitx Zeberio Lekuona** ARRASATE Hamazazpi urteko ibilbidea du Gurrutxagak (Azpeitia, 1972) Jokalari Anonimoen Elkarteko psikoterapeuta lanetan. Ludopatiari buruzko hitzaldia egingo du hilaren 9an, 18:30ean, Kulturaten. **Hamazazpi urteotan asko aldatu du ludopataren profila?**

Profila ikaragarri gaztetu da; neurri kezkarrian, esango nuke. Hasierako urteetan, ehuneko handi bat 50 urtetik gorako gizonezkoak eta, batez ere, taberna girokoak eta makina txanponjaleekin lotutakoak izaten ziren. Gaur egun, gazteak dira, eta gehienek kirol zein online apustuekin dituzte arazoak.

**Ze faktorek eragin dute aldaketa?** Teknologia berrien garapena funtsezko faktoreetako bat izan da. Mugak jartzea ia ezinezkoa da gaur egun. Gero, aisialdi ohituretan normaldu egin dugu lagunekin elkartu eta apustutxoak egitea. Kirolarekin mozorrotuta edo makillatuta, baina aisialdi



Karmele Gurrutxaga psikoterapeuta. K.G.

moda bihurtu dugu, eta normaltzearekin batera arriskuaren pertzepzioa galdu dugu erabat.

**Zergatik garatzen dute jokoarekiko adikzioa pertsona batzuek eta beste batzuek ez?**

Ahalegina egiten da argitzeko ea herentzia kontu bat den, baina, egia esan, ez dago ondorio garbirik. Nik ikasitakoen eragina nabarmenduko nuke. Euskaldunon artean

aspaldikoa dugu apusturako joera, eta ikasitako ohituren indarra hor dago. Gero, hori eboluzionatzen joan da eta beste faktore bat gehitu da: nork ez du dirurik behar? Kontua, batez ere, faktore emozionalekin dago lotuta; hutsuneeekin, ihes egiteko beharrarekin, emozio pizgarrien beharrarekin... Bakean edo lasai dagoenari ez zaio bururatzen diru gehiago lortzeko jokoan hastea.

**Ludopatia, bestetik, ezkuta daitekeen adikzioa da. Hasiera batean, behintzat.**

Hala da. Sakoneko arazo bihurtu arte, ikusezina da. Zenbat aldiz edo zenbat diru jokatu behar da asteen ludopata izateko? Askotan, kopuruarekin lotzen dugu larritasuna, eta ez da kopuru kontua, baizik eta bulkada bati eusteko gai ez izatea. **Orduan, ze prozesu gertatzen da adikzioa garatzen duen pertsona batengan?**

Ez dut kontu teknikoetan katramilatu nahi, baina prozesu neurologiko bat da. Bereizi behar dira substantzia duten adikzioak eta substantziarik gabekoak. Lehenengo kasuan, ia berehala antzeman daitezke erreakzio fisiko batzuk. Substantziarik gabeko adikzioen kasuan, ez. Egon

badaude, baina ez dira berehalakoan nabaritzen. Pertsonaren bizitza bahitzen joaten den ezkutuko degenerazio bat da, eta hasten dira gezurrak, urduritasunak, lo egiteko arazoak... Diru-kontuek ez dute koadratzen... Eta, azkenean, ondorio fisikoak agertzen dira. Orduan konturatzen dira gertutakoak. **Zein da aurre hartzeko gomendioa?**

Pantailak debekatzea, jokoan egiten duten lagunekin ez elkartzeara... Nire ustez, ez dira aukera errealak. Lehenengo eta behin, informazioa eta kontzientziarioa behar dira. Eta arriskua oso handia bada, komeni da inguruko norbaitek arazoaren berri izatea euskarri modura jokatzeko. Ezin dira seme-alabak une oro kontrolatu, baina, lagunak apustuak egitera badoaz, interesgarria litzateke joatea komeni ez zaion horrek lagun bat izatea alboan, une horretan bakarrik ez gelditzeko.

**Nola lantzen duzue ludopatia?**

Bi talde ditugu: kaltetuak eta senideak edo lagunak. Elkarrekin egin behar dute arraunean, baina premia ezberdinak dituzte. Talde terapiak dira, eta nork bere gorabehera emozionalak konpartitzen ditu.

## ITURRI ONETIK

### Kaitin Allende, bakarrizketa lehiaketan garaile

Kaitin Allende kazetari arrasatearrak irabazi du Gasteizko Florida Guridi zinema aretoan joan den domekan egin zuten bakarrizketa lehiaketa. Lehen aldiz antolatu duten Komediaaldia Umore Jaialdiaren baitan egin dute bakarrizketa lehiaketa. Bost lagun aritu dira lehiatzen, bertakoak eta hemengoak. *Klimaxetik klimateriora eta buelta* izan da gaia, eta 500 euroko saria irabazi du Allendek. Hain zuzen ere, *Umorea eta osasuna* izan da gaia lehen edizio honetan.

## ALBISTE IZAN ZEN

2008-06-06

### Arkupe kultur etxea ireki zuten Aretxabaletan

Aretxabaletako "kulturaren aterpe" izateko bokazioarekin jaio zen Arkupe. Herriko kultur etxearen inaugurazio ekitaldian, eraikinaren zinta-mozketa unean izan ziren Maria Jesus Aranburu Kultura diputatua eta Inaxio Garro alkatea, udalbatzako eta kulturako beste kide batzuekin. Zeraia aretoa eta liburutegia zabalik geratu ziren eta hainbat kultura ekitaldi antolatu zituzten aste osoan: musika, dantza, diaporama, arte erakusketa...



GOIENA

## HAU BE BADOGU!

### Astelehen gaueko ekaitza izan da hizpide

Irudi eta bideo oso ikusgarriak txioen bidez partekatu zituzten Euskal Herri osoko erabiltzaileek Twitterren:

@gariberasaluze: "Ekaitza, lehertzeaz. 21:56".

@irribarrez: "Zeinen ederrak diren oineztuak leku segurutik begira gaudenean...".

@eh\_natura: "Ekaitza gogorra une honetan Euskal Herriko zeruetan. Bilbon ordubetean 15 mm pilatu dira".

@etxebarre: "Züberotarrez, ekaitza ere erraiten dügü, bena eüskara arruntago batetan tenpesta".

## D2030: ELKARRIZKETA



Ainhoa Narbaiza. TXOMIN MADINA

# "Jangela kolektiboetan jaten denaren oso portzentaje txikia da bertan ekoiztutakoa"

## AINHOA NARBAIZA EREINDAJAN

'Jantoki kolektiboak hornitzeko Debagoieneko plataforma' izeneko proiektuaren baitan, Elika-Bira jardunaldiak antolatu ditu Ereindajanak, D2030ekin elkarlanean

### Miren Arregi ARRASATE

Eskualdeko jangelak tokiko produktuarekin hornitzeko plataforma sortzea da D2030ek lagunduta Ereindajanak martxan jarri duen proiektua. Testuinguru horretan antolatu dituzte Elika-Bira sentsibilizazio jardunaldiak.

### Zer da Jantoki kolektiboak hornitzeko Debagoieneko plataforma izeneko proiektua?

Debagoiena 2030 egitasmo barruan Ereindajan Bergararik proiektu bat abiatu berri dugu, jangela kolektiboak eraldatzea oinarri eta helburu duena. Alegia, proiektuaren helburua da Debagoieneko jangela kolektiboetan eskualdeko produktuak txertatzea eta

horiek eskualdeko produktuarekin hornitzea. Proiektuak helburu dauka baita ere agroekologiaren eta elikadura burujabetzaren inguruko lanketa eta elikadura osasuntsuaren gaineko hausnarketa egitea, baita, epe luzera begira, Debagoieneko ekoizpen agroekologikoa handitzeko urratsak egitea. **Zergatik da beharrezkoa proiektua?**

Hau egoera konkretu bati erantzuteko abiatu da, eta errealitatea da gure jangela kolektiboetan jaten denak kilometro asko dituela. Oso urrundik ekarritako janaria da, oso baldintza eskasetan, ez dakigu non ekoizten den eta

non prestatzen den. Oso portzentaje txikia da eskualdean ekoizten dena, eta errealitate horri erantzuteko proiektua da.

### Zein puntutan dago une honetan?

Orain arte egon gara eragile sozialen proposamenak jasotzen. Hau da, gai honi begira eginda dagoen ezagutza jaso dugu. Jangeletan zer jaten den, zein kantitatetan, zenbat jangela dagoen Debagoienean, zer-nolako ekoizpena... Horrela jakingo dugu zein borondate dagoen gai honi begira eta zer egin beharko genukeen horri heltzeko. Une honetan, gainera, sentsibilizazio faseari ekingo diogu.

### Proba pilotu bat martxan jartzea ere bada asmoa?

Bai; proiektu pilotua martxan non jarri erabaki beharko dugu. Azken finean, horniketara sistema hori diseinatzea eta, ahal den heinean, martxan jartzea da helburua. Ez dugu lortuko urte baten tokiko produktu pila bat txertatzea, baina bai hornikuntzara begira prozesua abiatzea. Ahal den heinean, prozesu zuzenak bideratu gura dira, salmenta zuzen bidez, sukaldean bertan janaria prestatuta, eta abar.

### Gaur egungo ereduak zein arazo ditu?

Asko aldatu da azken urteetan ereduak. Lehen, ekoizleengana gehiago jotzen zen; eta orain, geroz eta eredu industrialagoa dago. Oso urrunetik ekarritako produktuak dira eta jantokiek ez dute erabakitzeke gaitasunik. Geroz eta jende gehiagok jaten du jantokietan, baina kontsumitzaileak ez daki nondik datorren jaten duen hori, zein egoeratan ekoiztu den, ezta non prestatzen den ere. Hori da arazo nagusia, geroz eta eredu industrialagoa dagoela.

### Eskolako jantokiek lotuta, badago kezkarik?

Egia da jantoki kolektiboaren artean mugimendu gehien dagoen eremua eskolena dela. Egia da eskoletako gurasoekin eta hezitzaileekin egon garela eta interesa badagoela, gutxienez, jakiteko nondik hasi behar dugun bestelako eredu batera bidea egiteko. Euskal Herrian interes handia dago kontu honekin lotuta.

### Proiektu potoloa da, gero.

Bai, baina kontsumitzaile moduan badugu ardura korapilo hori askatzen hasteko.

### Sentsibilizazio kanpaina hasi duzue, eskola jantoki eredu berri baten gainean hausnartz.

Oso polita gelditu da ekintza. Elgetako gurasoak gurekin jarri ziren harremanetan; izan ere, badute jantokien ereduaren bueltako kezka. Bagenekien Bidezko Elikadura eta Gure Platera Gure Aukera izeneko plataforman asko kontrolatzen dutela EAE mailan eskolen eremuan dauden aukerak, araudiak, eta abar... Proposatu genuen ea

Elgetan hitzaldia egiteko aukera egongo litzatekeen, eta Elgetako guraso elkartearen eta Ereindajanen artean antolatu dugu familientzako elikadura eskola. Bidezko Elikadura erakundeko Eneko Viñuela izan da hitzaldia egiten.

### Arauek zelan zailtzen dituzte zuen asmoak?

Erabat baldintzatuta dago. Haurren ehuneko oso handi batek eskola publikoetan jaten du eta araudia oso mugatzailea da, eskoletatik bertatik ezin delako erabakirik hartu. Jaurlaritzatik esleitzen da dena. Orain, inflexio-puntu baten dago araudia, eta denok zain gaude, horrek baldintzatuko duelako proiektua bera.

### Ekainaren bukaeran

### Debagoieneko hainbat etxalde bisitatzeko aukera emango duzue.

Izan ere, kontsumitzaileak eta ekoizleak gerturatzea interesgarri ikusten dugu. Bisita horietan aukera egongo da euren ogibidea ezagutu eta euren ereduaren berri jakiteko. Denak dira ekoizle txikiak, bailarakoak, salmenta zuzen bidez funtzionatzen dutenak; gehienek egin dute eredu ekologikoaren alde. Ekoizleek eurek bertatik bertara gauzak azaltzea interesgarria da, eta etxaldea bera ezagutzea ere bai.

### Noiz egingo da ekintza hori?

Ekainaren 27an egingo da, eta bakoitzak aukeratu beharko du zein etxalde bisitatu. Mendibitzu (Aretxabaleta), Errastiko (Arrasate), Ziarreta (Bergara), Atxineta (Aramaio) eta Iturrieta (Aramaio) dira aukerak.

## "ESKUALDEKO PRODUKTUAK TXERTATU GURA DITUGU JANGELA KOLEKTIBOETAN"

## "EZ DAKIGU JATEN DUGUNA NON EKOIZTEN DEN, ZEIN EGOERATAN ETA EZTA NON PRESTATU DEN"

## Garibai, oinezkoentzako?

**MAITERE LARRAÑAGA LARRAÑAGA**  
ARRASATE

Ondo iruditzen zait galdeketa egitea Garibai oinezkoentzako jartzearen inguruan. Horrek dakar autobus geltokia bertatik kentzea, eta logikoa iruditu zait gehienek baiezkoa eman izana, askoz ere lasaiago egongo direlako.

Baina ze iritzi izango dute autobus geltokiaren kokapen berriaren –oraindik erabaki gabe dago, ulertu dudanez– inguruan bizi diren bizilagunek? Seguruenik, ez zaie hain ondo irudituko.

Nire ustez, galdeketa horretan denak hartu beharko lirake kontuan, ez bakarrik gaur egun autobus geltokiaren ondoan bizi direnak.

## 'Beita' eta sorginak

**LUKENE IGARTUA**  
ONATI

*Sorgin* hitza *sortu* eta *egin* hitzen elkarketatik omen dator; beraz, sorginak sortzaileak dira. Horrela bada, ulertu dezaket antzerki-lan bat *sortu* eta *taularatu* duten bederatzi antzezlek eta horrenbeste teknikari eta laguntzailek sorgindu egin gintuztela, bi aste dela, *Beita* antzezlanean.

Sortzaileek, artistek, lanak sortzen dituztenean, zerbait transmititzea dute helburu. Artelan hori margolana, idazlana, antzezlana edo musika izan, publikoak ulertu eta bereganatzea izaten da

haien xedea. Guk, ikusleek eta entzuleek, gustukoa izan dezakegu edo ez, mezua guregana heldu daiteke edo ez. Askotan, hor gelditzen gara, lan baten azalean. Bazuetan, lan horren mezuak pentsarazi egiten digu, gure barnera iristen da eta esanahi horrek gogoeta eragiten digu. Gutxiagotan gertatzen da lan batek emozioa sorraraztea. Horregatik diot sortzaile talde gazte batek sorgindu eta emozionatu gintuela.

Gai zaila aukeratu zuten, sexu erasoa, guztiok beldurtzen gaituen gaia, eta ez ziren azalean geratu, ez. Gazte talde batek bere mundu eta beldurretatik abiatu eta

bidaiara ematen dit entzutea ez zela kalterik egon eta azkar kontrolatu zutela. Ez dakite tximiniatik lau haizetara zer banatzen duten, eta horri esaten diote kontrolpean egotea?

Substantzia batzuk *kontrolatzeko* filtro modernoak dituzte, baina filtro horiek ez dira tapoiak, eta ezezagunak diren gauzak aireratzen dira; lehenago edo geroago, arnastu, edan edo jan egingo ditugun substantziak.

## Errauskailua, sutan

**JOSU GARITAONANDIA**  
'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN  
ARDURADUNA  
BERGARA

Urtarrilean sutea izan zen Zubietako errauskailuan;

barregura ematen dit entzutea ez zela kalterik egon eta azkar kontrolatu zutela. Ez dakite tximiniatik lau haizetara zer banatzen duten, eta horri esaten diote kontrolpean egotea?

Substantzia batzuk *kontrolatzeko* filtro modernoak dituzte, baina filtro horiek ez dira tapoiak, eta ezezagunak diren gauzak aireratzen dira; lehenago edo geroago, arnastu, edan edo jan egingo ditugun substantziak.

Ezin dugu frogatu kalterik egiten ez duela, ez badakigu zer den tximiniatik irteten den guztia, eta arduragabekeria galanta da zain egotea, ea kaltetutako

batek frogatzen dituen bere minen arrazoiak.

Negargura ematen dit pentsatzeak guk gure zaborrekin errauskailuari jaten ematen diogula, ez ditugulako zaborrak ganoraz bereizten.

## Eskerrik asko, Debagoiena!

**ITZIAR USANDIZAGA**  
DEBAGOIENEN PENTSIODUNEN  
BATZORDEAREN IZENEAN  
BERGARA

Eskerrik asko, Bizikleta Martxari ongietorria egiteagatik.

Joan den maiatzaren 26an, asteazkena, Debagoieneko herriek, ilusio handiz, izugarritzko harrera egin zioten.

Bizikleta Martxako tropelak agerian utzi du mundialak direla.

Argi eta garbi erakutsi dute indartsu daudela, oso ausartak direla.

Ikusi ahal izan dugu zahartzaro aktiboa ondo uztartu dutela: kirola eta aldarrikapenak.

Bejondeizuela. Eta zorionak!

Baita larunbatean Donostiara manifestaziora joan zinetenei: eredu zarete! Nahiz eta izurrite egoeran egon, ausartu eta bat egin duzue solidarizatze konpromisoekin.

Eta, nola ez, eskerrik asko pentsiodunei, herritarrei, eragileei, komunikabideei eta instituzioei, babesa eta laguntza emandako guztiei. Mila esker.

# Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali  
[gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus) helbidera!

# Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus)

## HAUXE BAI JENEROA!

**GARBIÑE UBEDA**



# Zortzi laguntza-lerro ditu 2021eko Enplegu Planak

777.328,27 euroko aurrekontua du Arrasateko Udal Gobernuaren planak; berrikuntza nagusia da enpresa berriek ez ezik, Arrasaten lantoki bat zabaltzen dutenek edota pandemiagatik jarduera dibertsifikatu dutenek ere jaso ahal izango dutela laguntza

## Eneko Azurmendi ARRASATE

Planaren helburu nagusiak dira langabeziaren arazoari aurre egiteko neurriak aktibatzea, kalitatezko enplegua sortzen laguntzea, udalerriko ekonomia eta enpresa ehuna indartzen laguntzea eta garapen jasangarriaren alde eragitea, Edurne Unamuno Enplegu zinegotziak adierazi duenez. "Era berean, COVID-19ak eragindako beharretara egokitu ditugu laguntza lerroak", gaineratu du.

Lehen lerroa herriko langabeen kontratazioa da, "interes publikoa duten proiektuak garatzeko". 417.828,37 euroko partida izango da. "Aurten 30 kontratu egiteko asmoa du Gobernuak, baina oraindik zehazteke dago. Seguruenik, errepikatu egingo dira herritarren laguntzaileenak eta zentroen garbiketara egiteko langileenak. Baina aurrerago zehaztuko dugu; oraindik 2020koen balorazioa egin behar dugu, eta ikusi ze behar berri dauden", azaldu du Enplegu Saileko teknikari Marga Garmendiak.

## Langabeak enpresetan

Arrasateko enpresetan herriko langabeak kontratatuzko dirulaguntzena da bigarren lerroa: 87.500 euro. "2014an jarri zen martxan lerro hau eta iaz, esaterako, zortzi enpresak jaso zuten laguntza. "Eskaera gehiago egon ziren, baina ez ziren baldintzetara egokitzen", azpimarratu du Garmendiak.

## Praktikaldia administrazioan

Bestalde, Udalaren hainbat egitasmotan praktikaldiak egiteko aukera izango dute unibertsitateko eta Lanbide Heziketako ikasleek, beka izaerako ordainsariak erantsita: 7.000 euro. "Praktikaldia Udalean egiteko eskariak geroz eta gehiago dira. Horregatik, hori kudeatzeko araudi bat lantzen ari gara, eta 2022an sartuko da indarrean".

## Enpresentzako dirulaguntzak

Arrasateko enpresentzako laguntzetara 35.000 euro bideratuko ditu Udalak. Hala ere, enpresa berriek ez ezik, Arrasaten lantoki edo egoitza bat zabaltzen duen edozein enpresak, erretiroagatik edo beste arrazoiren batengatik jabez aldatu duten enpresek eta pandemiaren eraginez jarduera dibertsifikatu behar izan duten enpresek jaso ahal izango dituzte laguntzak. "Ostalaritzaren adibidea da garbiena; etxera eramateko zerbitzua ezarri duen jatetxe bat, esaterako", dio Garmendiak.

## Ikasketa gastuak ordaintzeko

Bosgarren lerroa Lanbide Heziketako ikasketak egitera animatzen diren 25 urtetik gorako langabeei zuzenduta dago: 30.000 euro. "Orain arte eduki duena baino erabilera handiagoa eduki dezake honek. Interesgarria

## "ZIUR ASKO", BERRIZ HARTUKO DITUZTE GARBITZAILEAK ETA HERRITARREN LAGUNTZAILEAK



Kontratatutako garbitzaileetako batzuk, urtarrilean, Herriko Plazan. E.A.

da garraio gastuak, matrikulak eta bestelakoak ordaindu ahal izateko. Betiere, gastuaren %75 izango da, gehienez, ordainduko dena; gehienez, 2.000 euro".

## Ekintzaitza sustatzeko lerroa

Ekintzaitzaren sustapenera 60.000 euro bideratuko ditu Udalak. "Bereziki, unibertsitateko ikasleen artean ekintzaitza sustatzea da helburua; konkretuki, Saiolan enpresarekin elkarlana gauzatzeko eta Mondragon City Challenge sustatzeko".

## Ekonomia suspertzeko lerroa

Besteak beste, nekazaritza, trantsizio energetikoa, ekonomia eta enplegua sustatzeko ekintzetara 90.000 euro bideratuko dira, hainbat eragilerek elkarlanean: Caritas, Neiker ikertegia eta D2030 plataforma, esaterako.

## Langabeentzako formakuntza

Lanerako prestakuntza eskaintza da azkena: 50.000 euro. Hau da, langabeen laneratzea errazteko, lan merkatuaren beharretara egokitzeko formakuntza ematea; nagusiki, Bastida akademiaren bitartez.



NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

## Eskerrik asko!

Azkenaldian askori entzundako gaia da hau, norberak egindako lanaren balioa eta honi besteok ematen dioguna, hain zuzen. Nire kasuan, lasterketa munduan asko ibiltzen naiz, lehiatzen ez bada, zale moduan, ikusten. Bertan, arduradun, laguntzaile, epaile, parte-hartzaile, publiko zein argazkilariak izaten dira. Hauek gure bizipen horiek bukaezin bihurtzen dituzte guk gure betirako biltegian gordetzeko.

Lanbidea, hobya, denbora-pasa zein animatzaile gisa egiten dute eta horren balioa zein handia den askotan ahaztu egiten zaigu. Ni ez naiz esaten hasiko ordaindu edo musutruk izango diren irudi horiek edo *eskerrik asko* batekin edo zerekin saritu behar diren. Baina nahiko nuke balioa nabarmendu eta beti hor beste aldean dauden horien lana goraiatu.

Nahiz eta gustuko duguna egiten dugun, askotan gure denbora librea erabiltzen dugu eta hori eskertzeko ez da ahalegin berezirik egin behar.

## Elurra enpresak jarraituko du kaleko animalien ardura izaten

Bergarako enpresak 2017a ezkerre ematen du bide publikoan utzitako animaliak jasotzeko zerbitzua

## E.A. ARRASATE

Arrasateko Udalak Residencia Canina Felina Elurra enpresari esleitu dio, berriro, bide publikoan utzitako animaliak jasotzeko zerbitzua, 7.840,8 euro ordainduta –BEZa barne–. Bergarako enpresak 2017a ezkerre egiten du zerbitzu hori. "Eskatzen dioguna betetzen duen bakarra baita; hau da, 24 orduko zerbitzua, 365 eguneko eta txakurra bi orduan jasotzea", nabarmendu du Victoriano Fuentesek, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako zinegotziak.

Fuentesek helburu "argia" du: zero hilketa. "Honek esan nahi du Elurra aterpetxean sartzen diren bide publikoan utzitako animaliak egoitza mantenduko direla, hil gabe, justifikatutako salbuespenezko kasuak salbu".

2020an, hamasei txakur jaso zituzte. "Azken sei urteak aztertuta, 2016an, 41 txakur aurkitu ziren bide publikoan; 2017an, 47 txakur; eta data horretatik aurrera, murriztu egin da kalean etxerik gabe zeuden txakurren kopurua: 2018an, 31 txakur utzi zituzten; eta 2019an, 23".

## Bisita gidatuetan eta ibilaldietan plaza gehiago egongo dira

Eusko Jaurlaritzak astelehenean onartutako dekretuaren arabera, turismo aktibitateetan orain hamarrekotako taldeak onartzen dira –lehen, seikoak ziren–. Ondorioz, Arrasaten antolatuta dauden bisita gidatuetan plaza berriak sortu dituzte, dagoeneko agortuta baitzeuden guztiak. Udal webgunean edo 943 25 20 00 telefonoan eman daiteke ize-

na –ekintzaren aurreko egubaikitzean, 12:00ak baino lehen–.

Hiru bisita historiko eta beste hiru mendi ibilaldi geratzen dira oraindik.

Bihar, zapatua, esaterako, *Burdin Aroa-Erdi Aroa: Arrasate Erdi Aroko hiribildua* izeneko bisita egingo dute, Herriko Plazan, 10:30ean euskaraz eta 12:30ean gaztelaniaz.

Domekan, berriz, PR-GI 205 Anporreta bira –burdinaren bidea– egingo dute, 10:00etan Herriko Plazatik irtenda.

# Kaleak konpontzea eskatu dute auzotarrek

Avesantes elkarteak, Santa Teresa eta Doneztebe Portuko kaleetako bizilagun taldeak, joan den astean Udalak auzunean igogailua jartzeko ireki zuen parte hartze prozesuaren gainean erantzun du: "Ez du bizilagunon irisgarritasuna bermatzen"

**Hasier Larrea** ARRASATE

Prentsa agerraldia egin dute, astean, Musakola eta Santa Marina artean bizi diren herritarrek. Lehenik eta behin, esker oneko azaldu dira Udalarekin: "Santa Teresara eta Santa Marinara igotzeko igogailuen eraikuntza prozesua ireki izana pozgarria da, zalantzarik gabe, auzoarentzat hobekuntzak ekarriko dituelako". Era berean, gabeziak ikusten dizkiote proiektuari, parte hartze prozesuaren eta inbertsioaren aldetik.

**Aldapa mekanikoak nahiago**

Horren harira, joan den uztailen sortutako Avesantes elkarteak lehendakariak, Juankar Davilak, hauxe adierazi du: "Udalak mahai gainean hiru proiektu jarri baditu ere, bakarria ere ez da bizilagunon beharretara egokitzen". Hori arrazoitzeko, parte hartze prozesua "igogailuen proiektuak idatzi aurretik" ireki beharko luketela aipatu du: "Eta ez ostein, gure botoek ez dutelako benetan nahi duguna adieraziko". Izan ere, kexu dira hiru proiektuak toki berean amaitzen direlako; ondorioz, aukeratu dezaketen bakarria igogailuetarako sarbidea dela nabarmendu dute. Gainera, igogailuen instalazioak aparkalekuen galera ekarriko lukeela eta beste arrazoi bat ikusten dute proiektuarekin ados ez egoteko: "Izan ere, handitu egingo lirake autoak aparkatzeko arazoak".

Uste dute eskailera eta aldapa mekanikoak jartzea dela irisgarritasuna hobetzeko konponbide bat: "Gasteizen, Hondarribian eta Eibarren jarri badituzte, zergatik hemen ez? Zergatik soilik igogailuak jartzeko saiakera hori?", galdegin du Avesantes elkarteak.

**Hobekuntzak, "barra-barra"**

Santa Teresa eta Doneztebe Portuko kaleak "konponketa sako-



Avesantes elkarteak kideak, eguaztenean, Santa Teresako autobus geltokian. H.L.

## "BAZTERTUAK" SENTITZEN DIRA, ETA URTEETAN ESKATU DUTENA BETE DADILA NAHI DUTE BEHINGOZ

na" behar dutela diote auzotarrek: "Ia 60 urtean ez da esku hartze integralik egin, unean uneko moldaketak baizik".

Euriteak izaten direnerako kanalizazio sistema baten beharra sumatzen dute, eta Doneztebe Portuko kalearen atzealdeko mendi magalean dagoen 12 metroko luzerako eta metro eta erdiko zabalerako zuloa jarri duten adibide: "Arriskutsua izateaz gain, euste-hormari kalteak egiten dizkio; espaloietan errepideetan ere zulo sakonak daude uraren filtrazioen ondorioz".

Zaharkituztat jotzen dituzte lurra "gero eta irristakorrago" egotea dakarten espaloiak, eskailerak, farolak eta aparkalekuak. Zebra-bide zein autobus geltokietan koskak egotea ere ez dute mugikortasunari dagokionez onuragarri ikusten. Gainera, larrialdietako ibilgailuen-

tzat errepidean gora igotzea "oso zaila" dela diote; bihurtu eta, batez ere.

Arratoi eta labezomorro "ugari" daudela ere aipatu dute, eta espero dute Udalak neurriak hartuko dituela animalia horien presentzia murrizteko.

Bestalde, ez dute ulertzen zergatik Mankomunitateak oraindik ez duen eurekin "bilera bat egin nahi", zakarrontzien, zabor-erakundearen eta objektu astunen gaiari heltzeko.

**"Gu ere arrasatearrak gara"**

Gainontzeko auzoetako bizilagunen iritzia kontuan hartu dituzten neurrian, eurei ere kasu egiteko eskatzen dute Avesantes elkarteak, euren bizitokia herrian dagoen gunerik "bartzertuena" dela iritzita: "Haurrentzako parkerik ez duen auzune bakarria gara, esaterako".

Zerrendatutako hobekuntzak egitea "presazkoa" dela azpimarratu dute, lau bizilagunetik bat 65 urtetik gorakoa dela aintzat hartuta. 2017ko datuen arabera, 1.065 lagun zeuden errolatuta Santa Teresa, Agerre, Galizia eta Doneztebe Portuko kaleetako atarteetan.

## Unai Paroti babesa emateko bertso-saioa bihar, Monterronen

Atxilotu zuten urte berean, 1990ean, jaiotako hiru bertsolari ariko dira, 12:00etan: Jone Uria, Miren Amuriza eta Madalen Arzallus. Gai-jartzaile lanetan Ane Zuazubiskar ariko da. "Espetxe araudi arrunta aplikatuz aspaldi behar luke kalean Unai. Eta bertso-saio honekin ere hori aldarrikatu nahi dugu", azaldu du Sarek.

## Internazionalismoa izango dute berbagai domekan gaztetxean

Askapenako kideek *Internazionalistak garelako, lehen urratsa Euskal Herria* hitzaldia egingo dute, 18:00etan. "Beti hala izan bada ere, garai bereziki zailak dira zapalkuntzarik gabeko mundu berri bat eraiki nahi dugunontzat, jendarteko harremanak gidatuko dituen oinarriko printzipio etikoa elkartasuna izango den mundua nahi dugunontzat".

## OHARRAK

### Jostailu truke merkatua, ekainaren 11n

Ekaitzagatik, astebete atzeratu dute. Gaur ziren egitekoak.

### Ibai-artek inkesta bat jarri du martxan

Elkartea eta egiten dituzten ekimenak hobetzeko asmoz. Parte hartzeko, 688 73 41 49 zenbakira *whatsapp* bat bidali behar da.

### Yugular taldeak bi emanaldi egingo ditu bihar

Lehena 18:00etan eta bigarrena 20:00etan, gaztetxean.

### Karmele Gurrutxagaren hitzaldia eguaztenean

Kulturaren izango da, 18:30ean. Elkarrizketa, 9. orrian ikusgai.



**bertako**  
igogailuak | ascensores

**Euskal Herria hobetzeko prest?**  
Bertakoren emakumezkoen kirola, gutxiengoa, egokitua eta inklusiboa babesten dugu, elkarrekin Euskal Herri hobea eraikitzeko.



**OROTARIKO ZERBITZUA**  
**100 €-tik / hileko**  
Arrunta 70€-tik / hileko



Garaia Berrikuntza Gunea  
20.500 Arrasate



943 903 450



info@bertako.eus



www.bertako.eus



Xabier Herrarte, bi tranpa sistemekin. Ezkerrean, orain arte erabili izan dutena; eta eskuinean, sistema berria. IBAI ZABALA

# Euskal Herrian aitzindari izan den sistema 'vespa velutina' harrapatzeko

2.470 liztor beltz harrapatu dituzte aurten Arrasaten; iaz baino "emaitza okerragoak" dira, tenperatura aldaketa handien eraginez. Nabarmenezkoa da, ordea, orain arteko tranpaz gain, selektiboagoa baina hain eraginkorra ez den beste bat ere erabili dutela

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

"Aurten tranpa gutxiago jartzea erabaki dugu, albo-kalte gutxiago eragiteko helburuarekin. Izan ere, iaz tranpa asko jarri genituen eta erlabio asko harrapatu, baina baita beste intsektu asko ere", azaldu du Arrasateko Udaleko teknikari Xabier Herrartek. Hala, iazko 64 tranpen aldean, 39 baino ez dituzte jarri aurten, 25 gutxiago, baina jarri dituztenak indartu egin dituzte.

Gainera, orain arte erabili izan duten sistemaz gain, beste sistema bat ere erabili dute aurten. "Kanpaina hasi eta berehala, Gipuzkoako Foru Aldunditik jakinarazpen bat bidali zidaten, esanez beste tranpa bat dagoela merkatuan, selektiboagoa dena, eta lehenbailehen harremanetan jarri nintzen komertzialarekin, horiek eskuratu ahal izateko.

Era horretan, tranpa batzuk erosi genituen, proba egiteko eta bi sistemak alderatzeko. Beraz, bigarren astetik aurrera, orain arte erabili izan ditugun tranpen alboan, selektiboak jarri nituen puntu batzuetan", adierazi du Herrartek.

**Diferentzia nabarmenak dituzte**

Udal langilearen esanetan, bi tranpen aldeko diferentzia nabarmena da. "Orain arte erabili izan duguna pote borobil bat da, zabala, eta azpian zulo handi bat dauka, erdian. Potearen barruan likido bat botatzen dugu,

**HERRARTE": HORREN EFIKAZA EZ BADA ERE, OSO SELEKTIBOA DA; HORRI EMAN BEHAR DIOGU GARRANTZIA"**

urarekin nahastuta, intsektuak erakartzeko. Beraz, intsektuak azpiko zulotik sartzen dira, modu naturalean, eta, beti argira jotzen dutenez, gorantz, ez dakite zelan irten. Ondorioz, nekearen eraginez edo likidoan itota hiltzen dira". Sistema berria, aldiz, botila itxurakoa da eta albo batean hainbat zulo ditu. "Zulo horietako batzuk txikiak dira eta bat, erdian, handiagoa, barrurantz egiten duena. Liztorra azken horretatik sartzen da, eta gero, ez du jakiten zelan irten. Bestean moduan, hemen ere nekatuta edo itota hiltzen da. Sartzen diren gainontzeko intsektuak, gainera, beste zulo txikiago batzuetatik irteten dira; izan ere, zulo horiek oso ondo neurtuta daude, liztor beltzak irteteko aukerarik izan ez dezan. Halaber, zulo txiki horietan brida batzuk jartzen dira, gai-

nontzeko intsektuei irteten laguntzeko edo bideratzeko", azpimarratu du Herrartek.

Hala ere, liztorrari gehiago kostatzen zaio sartzea. "Bestean modu naturalean sartzen bada ere, hemen gehiago aztertu behar du sarrera, inguratu, usaina hartu eta gero sartu. Horregatik, eraginkortasuna galtzen du".

**Ez da horren eraginkorra**

Astez aste neurketak eta kontaktak egin ostean, Herrarteren ondorioa garbia da: sistema zaharra askoz ere eraginkorragoa da berria baino. "Hala ere, zaharrean, liztor beltzak gain, beste intsektu asko ere hiltzen dira. Berrian, ordea, intsektu asko sar daitezke, baina barruan geratzen den bakarra liztor beltza da. Horrenbestez, nahiz eta hain eraginkorra ez izan, oso selektiboa da eta horri garrantzia eman behar diogu. Egun, ekosistema babesteko ahalegina egin behar dugu, eta, hain zuzen, helburu hori lortzeko ari gara liztor beltzaren kontra, gainontzeko intsektuen harrapakari handiena da eta. Liztor beltzak ekosistemaren oreka hausten du, eta horregatik harrapatu behar dugu. Baina, tranpa zaharrak intsektu asko ere hiltzen dituzte, kasu horretan, gaitza baino okerragoa da sendagaia. Guk geuk ere ekosistemaren oreka apurtzen dugu tranpak ipinita, eta, selektiboa ez bada, ez dugu helburua betetzen".

**Urte osoan jartzeko aukera**

Selektiboa izanda, gainera, aukera emango luke urte osoan jartzeko. "Orain arte erabili izan ditugun tranpak jartzeko, epe bat jartzen du Foru Aldundiak. Azken urteetan, martxoaren

letik apirilaren 30era izan da epe hori. Garai horretatik aurrera, diotenez, gainontzeko intsektuak gehiago hiltzen dira liztor beltzak baino, eta horregatik ez dute uzten erabiltzen. Hori hala bada, sistema berria urte osoan erabili daiteke, ez baitie beste intsektuei kalterik egiten. Lan gehiago eskatzen du eta tranpa kopurua altuagoa izan beharko da kantitate bera harrapatzeko, ez baita hain eraginkorra, baina merezi du", bukatu du Herrartek.

## Jazarpen handia egiten dio erleari

Erlea da liztor beltzaren biktima nagusia. "Liztor beltza ez da haragijalea, baina larbak bai. Liztorrek erleak harrapatzen dituzte larbei jaten emateko, haien dietaren %60-70 inguru erleak baitira. Erlauntz batean izugarriko jazarpena egiten du liztorrak; izan ere, erle asko hiltzen dituzte, eta beste asko estresagatik hiltzen dira", dio Herrartek.

Beraz, "funtsezkoa" da liztor beltza kontrolatzea, erleari egiten dion kaltea aintzat hartuta. "Gure ekosisteman ezinbestekoa da erlea, polinizatzaile handienetakoa delako. Erle gutxi egoteak dakar landare batzuk polinizatu gabe geratzea eta, ondorioz, makalago eta zaugarriago bilakatzea".

**GALLAS**  
Leiho eta pertsiana konponketak

PVC eta aluminioa  
Ardatz aldagarriko leihoak  
Pertsiana motorizatuak

617 81 38 02  
gallasleiho@gmail.com

# Eskola tailerra egokituko dute Hondarribia kalean

Santa Marina auzoan, Hondarribia kaleko 1-3 atarietako eraikina, udal jabetza duena, gizarte-bazterkeria egoeran dauden herritarrei zuzendutako eskola tailerra izango da, LAN-r-BAI programaren baitakoa, eta jada hasi dituzte eraikina egokitzeko lanak

## Eneko Azurmendi ARRASATE

Arrasateko Udal Gobernuaren LAN-r-BAI programaren baitan, gizarte-bazterkeria egoeran dauden herritarrei zuzendutako eskola tailerra egokituko dute Santa Marina auzoko Hondarribia kalean, eta helburua da pertsona horiei prestakuntza eta laguntza eskaintzea.

Duela astebete inguru hasi zituzten horretarako lanak, nahiz eta hasiera batean 2020ko azaroan zegoen aurreikusita obren hasiera. Edozelan ere, Bergarako Construcciones Artzamendi enpresa ari da lanak egiten, eta, ezustekorik ezean, lau hilabete inguru beharko dituzte



Hondarribia kaleko 1-3 atarietan eskola tailerra egiteko lanak hasi dituzte. E.A.

bukatzeko –lizitazioa 110.000 eurokoa izan da–.

## Ibilbide pertsonalizatuak

Duela bi urte pasatxo, 2019ko martxoan, abiatu zuen Gobernuak LAN-r-BAI programa, eraikin berean –garai hartan, egoera kaxkarragoan zegoen–. Helburua da "ibilbide inklusibo pertsonalizatuak sortzea". Hori, hain zuzen, egokitutako prestakuntza-enpleguaren bidez eta laguntza soziohezitzailearen bidez egiteko asmoa dute: "Programak erabiliztaileei baliabideak eta tresnak transferitu nahi dizkie, gizarteratzeko eta hezkuntzarako laguntzaren eta prestakuntza teoriko-praktikoaren bidez ibilbide bat gara dezaten".

## Programa "berritzailea"

Europako finantzaketa jaso duen programa "berritzailea" dela adierazi zuen Gobernuak bere garaian, eta eraikinaren egokitzapena "pauso garrantzitsua" dela. Parte hartzeko, Udaleko Gizarte Zerbitzuetan eta Foru Aldundiko Gizarteratze Sailean bazterketa-egoeraren balorazioa egiten diete herritarrei.



Lan irabazlea. ELISABETH MONTOYA

## Elisabeth Montoya gasteiztarrak irabazi du Bookface lehiaketa

Euskal Autonomia Erkidegoko 16 urtetik gorako guztiek izan dute Arrasateko Udal Bibliotekak antolatutako lehiaketan parte hartzeko aukera, eta 30 lan aurkeztu dituzte. Horien artean onena, esan bezala, Elisabeth Montoyarena izan da. Aurpegia edo gorputzeko beste edozein atal liburu baten azalean agertzen den irudiarekin bat egitean datza Bookface lehiaketa.



**AMAGARA**  
*Estetika Zentroa*

**Guk zainduko zaitugu**

**DETOXA**

*Likidoak eta koipea gutxitu*

*Azala egonkortu eta leundu*

Erdiko kale 54, behea 20500 Arrasate • 943 79 09 09 • [www.amagaraestetikazentroa.es](http://www.amagaraestetikazentroa.es) • [facebook.com/amagara](https://facebook.com/amagara)

# Itsasoak zeharkatutako bidaiaria, lemazain

Cristian Levis Petricorena, Argentinan hazi eta Andaluzian zein Ingalaterran ibilitako futbolari ohia, izango da Mondrako lehen taldeko entrenatzailea datorren sasoiari; Osasunako Jagoba Arrasate du ispilu, jokalaria izan zeneko azken prestatzailea

## Hasier Larrea ARRASATE

Adituei futbolaren historiako partida gogoangarriena zein izan den galdetuz gero, aise joango zaie gogoa 1986ko Munduko Txapelketara, Argentinak eta Ingalaterrak jokatuak final-laurdenetara. Maradonak sartutako bi golik famatuenekin irabazi zuen haren selekzioak, ingelesen kaltetan. Partidu hark kirolez gairik dimentsioa izan zuen, bi herrialdeetan futbolari ematen dioten garrantziaren erakusle. 5 urte zeuzkan orduan Cristian Levisek (Mar de Plata, 1981), eta baloiari lehen ostikoak ematen hasia zen. Inor gutxi esango zion orduan aurkari izandako bi herrialde horietako azpikategorietan egingo lukeela futbolari ibilbidea.

Hala ere, Levisen esanetan, Munduko Txapelketa ez da munduko futbol lehiaketarik ederrena, FA Cup baizik. Pare bat urtez jokatu zuen torneooa, Bosgarren Mailako Basingstoke taldearekin: "Ez dakit ba ote dagoen beste txapelketarik Bederatzigarren Mailako talde xume batek lehen mailako izarren aurka joka dezakeena". Zoritxarrez, zozketek ez zieten "Chelsea-ren edo Manchester United-en aurka" neurtzeko aukerarik eman, nahiz eta gai izan ziren Bigarren Mailako



Cristian Levis, baloia hanketan, Basingstoke taldeko elastikoarekin, 2004an. C.L.

lako talderen bat mendean hartzeko. Ingelesek futbola nola bizi duten frogatzeko balio izan zion esperientziak: "Zaila da harmailetan 400 zale baino gutxiago ikustea, azken kategoriako partiduak jokoan egonda ere".

## Gazteen aldeko apustua

Espiritu hori Mojategira ekarri nahiko lukeela ez du ezkututzen, nahiz eta badakien taldeak transmititu beharko diela pasioa jarraitzaileei, eta ez alderantziz: "Mondra beti izan dena erakustea da asmoa, izaeraz, indarrez

eta ilusioz betetako taldea; hori lortzeko esfortzua eta intentsitatea dira gakoak, eta ez horrenbeste ondo edo polit jokatzeko".

Futbola "gauza askoren gaitetik" jartzen duen horietakoa da Levis, eta jokalariei ere pentsamendu hori transmititzen saiatuko da, "datorrena gogoratzeko moduko urtea" izateko. Proiektu "eder" baten oinarria jarri nahi du hemendik aurrera klubak, eta zuzendaritzak jokalariai motibatuzko pertsona aproposa ikusi du argentinarra; gazte eta gorengoen mailletako gazteak

entrenatu ditu azkenaldian; beraz, lehen taldean eskarmentuzko jokalarien erreleboa hartzeaz daudenak ondo ezagutzen ditu: "Behetik datozenek kalitatezko minutuak jokatzeko da erronketako bat, pixkanaka berdegunean euren tokia hartu eta garrantzitsuak izateko". Badaki apustu hori arriskutsua izan daitekeela: "Baina kalitatea badago".

## Itsasargia, igoera

Galdera behartua da ea Mondrako zein kategoriatan egon behar duen, eta argi mintzatu da prestatzailea: "Epe ertain-luzera eskuratzeko helburua izan behar du Hirugarren Mailara igotzeko, ikusgarri egon behar duen faroak; baina kirol honetan inoiz ez duzu jakingo ze pasako den, eta trantsizio urte bezala planifikatutako denboraldia sekulako lorpenez betetako izan daiteke, eta, kontrara, apustu sendoa egin eta erdibidean gelditzea ere gerta liteke". Bide horretan, datorren liga multzo bakarrekoa izango delakoan dago, eta, "klasikoa" dela kontuan hartuta, begi onez ikusten du, "urte osoan zehar egindakoak jarriko du-eta bakoitza bere tokian sailkapenean".

## Badu nora begiratu

600.000 biztanleko Mar de Plata hirian jaiotakoak Cadetes de San Martin eta Quilmes izeneko klubetan jaso zuen formakuntza futbolari gisa. 18 urterekin Alejandro Giuntini agenteak, Boca Juniors-eko futbolari ohiak, Andaluziako Isla Cristina ekipoa jokatzeko aukera eman zion, eta bitan pentsatu gabe bidaiatu zuen Espainiara. Hurrengo urteetan joan-etorrika ibili zen Ingalaterra eta Andaluzia artean: Basingstoke-n pare bat aldiz, San Roque de Lepen

behin eta Isla Crisitinan bigarrenez jokatu zuen.

Bitartean, eibartar bat ezagutu zuen, gaur egun bere emaztea dena, eta, familia osatu nahian, "bizimodu lasaiago baten bila" jo zuten Eibarrera, gaur egun ere bizitoki duten herrira. Ondoko herrian, Elgoibarren, jokatu zituen futbolari gisa azken urteak, eta bertan egin zuen topo Jagoba Arrasatearekin. Hitz onak besterik ez dauzka bere entrenatzaile izandakoarentzat: "Goi mailara kategoria guztiak ondo ezagutzen dituelako eta, batez ere, taldeak kudeatzeko duen gaitasunagatik iritsi da".

Oraindik harreman ona mantentzen du Berriatukoarekin, eta. Osasunaren lan-saioak ikustera ez ezik, klubaren instalazioak eta filosofia ezagutzera ere gonbidatu zuen behin, Mondrako bi ordezkariarekin batera: "Baita bazkaltzera ere!".

Hark izan zuen eraginik Levisen botak eskegi eta aginduak emateko hautua egiterakoan. Elgoibarren bertan entrenatzaile bezala lehen urteak egin eta gero, garai hartan Mondrako kirol koordinatzailea zen Iosu Echevarria ezagutu zuen ikastaro batean. Hark ireki zizkion "bere etxe" gisa definitzen duen Mojategiko ateak. Klubean "oso baloratua" sentitzen da, "arlotzuztietan" laguntzeko aukera ematen diotelako. Egin dioten oparia baliatzen saiatuko da, orain arte bezala, barruan duen pasioa ingurura transmitituz.

**EUSKALDUN JATORRIA ERE BADU, NAFARRAK, BIDASOA ALDEKOAK, BAITIRA BERE AMAREN SUSTRAIAK**

## Areto futboletik harago doan campusa antolatu du Mondrategi

2005etik 2012ra jaiotakoek parte hartu ahal izango dute, uztailearen 5etik 23ra bitartean, goizetan

## H.L. ARRASATE

2015ean egin zuen lehenengoz Mondrategi areto futboleko klubak uztaileko campusa. Mikel Gonzalez futbolari arrasatearra ezagutzeko aukera izan zuten gaztetxoek orduko hartan; hu-

rrengeko urtean, osterara, Eibar taldearen entrenamenduak Atxabalpen bertatik bertara ikusi ahal izan zituzten.

Aurtengorako, antolatzaileek aurreratu dute "areto futboletik gain, jolas kooperatiboak, ur-

jolasak, irteerak eta eskulanak ere" egingo dituztela.

Campusean izena emateko bide egongo dira, [kanpusmondrate@gmail.com](mailto:kanpusmondrate@gmail.com) helbidera idatzita eta 639 59 05 71 telefono zenbakira deituta. Uztailearen 5etik 9ra, 12tik 16ra eta 19tik 23ra egingo dituzte ekintzak, 10:00etatik 13:30era, eta zaintza zerbitzua eskainiko dute, 09:00etatik 10:00etara. Astebeteko izenematea 60 eurokoa izango da, bi astekoa 100 eurokoa eta hiru astekoa 135 eurokoa.



2019ko udako campuseko talde argazkia. MONDRATE



# Doke eskolakoak ez daude hontzari begira

12 eta 15 urte arteko aktoreek Amaia oholza gainean erakutsiko dute hilaren 15ean antzerki eskolako klaseetan urte osoan ikasitakoa; kurtsoen arrakasta ikusita, udalekuak egingo dituzte uztailean, baita helduentzat ikastaroa ere, irailean eta urrian

## Hasier Larrea ARRASATE

Gaztetxoei begirako ikastaroak eskaintzen hasi zen joan den udazkenean Doke antzerki taldea. Hala, 8 eta 11 urte arteko lau talde eta 12 eta 15 urte arteko talde bat osatu zituen. Orain, ikasturte bukaera bete-betean, aktore sena jendaurrean erakusten ari dira ikasleak; talderik gazteenak gertukoaren aurreko emanaldiak egiten hasi ziren joan den asteburuan, Dokeren lokalean, eta beste horrenbeste egingo dute asteburu honetan.

Aldiz, hemendik bi martitzenera, hilaren 15ean, publikoki estreinatuko du talderik zaharrenak *Lapurreta nesken institutuan* izeneko obra propioa. Emanaldi hori Amaia antzokian hasiko da, 18:00etan, eta, sarreak Doke berak banatuko dituen arren, leihatilan ere eskuratu ahaliko dira, egunean bertan.

Maider Alzelai arduratzen da bost taldeotako kideak formatzeaz. Irakasleak nabarmendu du ikasleak "euren borondatez" joaten direla klaseetara, eta, alde horretatik, datorren ikasturtera begira "jarraitzeko asmoa dutela jakiteak" bide onetik doazela erakusten dio.

Gazte gehiagori ere tokia egin nahi diote; horretarako, udalekuak antolatuko dituzte ekainaren 28tik uztailearen 23ra bitartean, eta oraindik zabalik dago izenemate epea: "Partaide bakoitzak bost egunez izango du sormenez jositako ekintzak probatzeko aukera, gero sakondu nahi duen jakiteko balio izango diona".

Izan ere, gazteei begirako ikastaroek jarraipena izango dute datorren kurtsoan, eta izenemate jadanik irekita dago. Antze-lanen prestaketa, ahozko zein gorputz adierazmena, sormena eta pertsonaren alderdi artistikoa landuko dituzte, "guztiak modu ludikoan, talde-lanean eta euskaraz".

## Helduentzat, irailean eta urrian

Helduentzako tailer trinkoa ere egingo dute, lehenengoz. Borja Ruizek gidatuko ditu saioak, iraileko ostiraletan, 16:30etik 20:30era, eta urriko zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara. "Laster" irekiko da izen-emate epea.

Hiru ekimenetakoren batean izena emateko, [dokeikastaroak@gmail.com](mailto:dokeikastaroak@gmail.com)-era idatzi edo 665 11 85 72 telefono zenbakira deitu beharko dute interesatuek.

## Ballet ikuskizuna Amaia antzokian Arrasate Musikalekin

Udaberri ziklo musikalarerkin segituko du datorren astean Arrasate Musikalek. Astelehenean, biolin eta biola kontzertua egongo da, Kulturaten, 18:00etan; eguaztenean, akordeoi emanaldia, musika eskolan, 19:15ean; egunean, klarineteena, Kulturaten, 18:30ean; eta egubakoitzean, ballet emanaldia, 19:00etan hasita, Amaia antzokian.

## Lur Kortak ipuinak kontatuko ditu gaur Kulturaten

Udal Bibliotekak 3 eta 4 urteko haurrentzako saioa antolatu du gaur arratsalderako, seietatik zazpitarerako bitartean, Kulturaten. Lur Korta izango da umeei imaginazioaren atea zabalduko die; bailaran sarri egiten dituen txikienei begirako saioak, eta, iaz bezala, aurten ere etorriko da oiartuarra herrira. Partaide kopurua bete egin da dagoeneko.

Aurrezki gehiago bazkide izateagatik

Ekainaren 3tik 5era

20€  
oparitutako dizugu

100 €-tik gorako erosketengatik, elikadura ataletan izan ezik

(Bazarra, Ehungintza, Elektro eta Optika)

- Sustapena EROSKI hipermerkatu honetan baliozkoa da.  
- Ikasiburuak, esperientzia-paketeak, telefonoko saldoaren kargak, E-pay txartelak (aurreordainketa), ere belatu digitala, bermeen luzapenak eta bestelako fidelizazio-promozioen bidez (puntuak eta antzekoen bidez) eskura daitezkeen produktuak ez dira sustapenean sartzen.

 **EROSKI**

ARRASATE

 Musakola z/g ARRASATE,

 Tel.: 943 71 10 30



8 eta 11 urte artekoen antzerki emanaldiaren irudi bat, joan den astean. MAIDER ALZELAI

# Herriaren historia irudi bidez jasotzeko lehiaketa

1960a baino lehenagoko argazkiak bildu, katalogatu eta digitalizatzeko proiektua du Udalak. Lan hori egiteko lehiaketa deialdia egin dute: interesatuek ekainaren 25a baino lehen aurkeztu beharko dute dokumentazioa udaletxean

## Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Argazki historikoak jasotzeko lehiaketa deialdia egitea onartu zuten egueneko osoko bilkuran. Orain dela urte batzuk egin zuten proiektu horren lehenengo fasea; 1960tik aurrerako argazkiak bildu eta artxibatu. Hala, orain, hasitako bideari jarraipena eman nahi zaio. 1960a baino lehenagoko argazkiak bildu, aukeratu, katalogatu eta digitalizatu egin gura dituzte.

Lehiaketa bidez egingo dute hautaketa prozesua. Hautagaiek proiektu bat aurkeztu beharko dute –taldeka ere egin daiteke–. "Proiektu horretan azaldu beharko dute ze asmo duten: nola katalogatuko duten, digitalizatzeko ze baliabide erabiliko dituzten...", azaldu du Oihana Amezkua zinegotziak. Hainbat irizpide bete beharko dituzte hautagaiek: besteak beste, Aramaioko kultur ondarea ezagutzea, euskara menderatzea eta argazkigintzaren ezagutza eta formakuntza izatea.

Behin esleipena eginda, lau hilabeteko epea izango du aukeratuak proiektua egiteko. Landa eta artxibo lana egin beharko da: etxez etxe argazkiak bildu, digitalizatu eta artxibatu. Udalak ezarritako irizpideei jarraituta egin beharko da lana.



Udal zinegotziak eta idazkaria osoko bilkuran. A.E.

Lan hori bukatutakoan, proiektua bera nola herriratu erabaki beharko dute udal ordezkariak. Proiektua egiteko aurrekontua 2.000 eurokoa da.

Interesatuek ekainaren 25a baino lehen aurkeztu beharko dute proiektua eta dokumentazioa Aramaioko udaletxean.

## Aurrekontuari txertaketa

Bestalde, 2020ko likidazio positiboa aprobetxatuta, 2021eko aurrekontuari 424.324,11 euroko txertaketa egitea onartu zuen udalbatzak aho batez. 2020an

24.000 euro gehitu zitzaion soberrakinarari: egun, Udalaren soberrakina 1.641.454,35 eurokoa da. Eta soberakin horretatik, aipatutako kopurua txertatuko zaio aurrekontuari. Egoera finantzario ona aprobetxatuta "dauden beharrak eta eskaerak" bete nahi dituzte, herritarren bizi kalitatea hobetzeko. Txertaketa horretako proiektu aipagarrienak dira: irisgarritasuna hobetzea kultura etxearen, okindegiaren eta goiko bi tabernen inguruan; Kurtzeaga-Karobia-Andra Mari ibilbidean zati bat bide berde gisa egokitu-



Kasatxon egindako pintaketak. ARAMAIOKO UDALA

## Aramaioko Udalaren gaitzespena

EAJK mozioa aurkeztu zuen egueneko ohiko osoko bilkuran. Maiatzaren 23an, Urkiolako parkean, Etxaguen auzoan, gertatukoak salatu zituzten: Kasatxo elkartearen egindako pintaketak eta inguruko zortzi zuhaitzi eragindako kalteak. EAJK hiru puntuko mozioa aurkeztu zuen; horietatik bi puntu onartu egin zituen udalbatzak. Lehenengo puntua: "Aramaioko Udalak gogor gaitzetsi ditu hilaren 23an Etxaguenen Kasatxo inguruan izandako gertakariak; izan ere, ezezagun batzuek pintaketa kriminalizatzaileak egin zituzten eta, gutxienez, zortzi zuhaitz kaltetu zituzten". Bigarren puntua: "Udalak salaketa jarriko du Ertzaintzan, Udalaren jabetza delako eta Urkiolako parke naturalean kalteak izan dituelako". Gertaera Ertzaintzan salatu du Udalak, eta parke naturaleko ordezkariari eta Aldundiari jakinarazi die.

ko da eta beste zati bat porlanez jarriko da; liburutegian Aramaioko fondo berezia sortuko da; agertoki txiki modularra erosiko da; ur sarean inbertsioak egingo dira; eta hainbat errepide asfaltatuko dira.

## Mozioa: espetze politika

Bestelako espetze politika bat ezartzeko adierazpena onartu zuen udalbatzak, aho batez. 2020ko abenduan hamalau eragile politikok eta sindikalek aurkeztutako adierazpena onartu zuten: espetze politika nor-

malizatua ezartzeko beharrezkoak diren urratsak egitea; espetzeetako Lege Orokorrean aurreikusitakoa betetzea; eta egungo urruntze politikari amaiera ematea. Onartutakoa Etxerat elkarteari helarazteko konpromisoa hartu zuen udalbatzak.

## BESTELAKO ESPETXE POLITIKA BAT EZARTZEKO ADIERAZPENA ONARTU ZUEN UDALBATZAK

## Eskolaren izena zein izango den erabakiko dute eguenean

Herritar guztiek izango dute botoa emateko aukera: goiko taberna parean jarriko dute bozkatzeko mahaia

## A.E. ARAMAIO

Ekainaren 10ean, eguena, egingo dute eskolaren izen berria zein izango den erabakitze bozketa. Martxo erdialdean martxan jarritako prozesua amaiera iritsi da. Izenak bete behar-

ko lituzkeen irizpideak zehaztu eta lehenengo bozketa egin ondoren, bigarren bozketa honetan, herritar guztiek izango dute botoa emateko aukera.

Eguenean, goiko taberna parean jarriko duten mahaian

eman ahal izango da botoa, ondoko ordutegian: 12:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 18:30era bitartean. Ordutegi horretan joaterik ez baina botoa eman gura duenak mezu bidez eska dezake *on line* egiteko aukera, [aramaioeskola@aramaioeskola.eus](mailto:aramaioeskola@aramaioeskola.eus) helbidera mezua idatzita. Gainera, eskolako gimnasioan ere bozkatu ahal izango da, 10:30etik 11:00etara eta 11:45etik 12:15era bitartean, hain zuzen ere. Orain arte bezala, eskolako guraso eta langileek galdetegi-

ren bidez izango dute botoa emateko aukera.

Astelehenean, Elkarbizitza batzordeak eta ikasleen ordezkariak batzarra egin zuten. Lehenengo bozketako emaitzak aztertu zituzten –maiatzaren 26an egindakoa– eta bigarren bozketarako zeintzuk proposatu adostu zuten. Boto kopuru oso txikia jaso zuten aukerak baztertu egin zituzte. Behin betiko bozketara pasako dira boto kopuru handiena izan zuten sei izenak: *Aramaixo eskola* (41 boto);

*Aramaio eskola* (29 boto); *Aramaixo herri eskola* (29 boto); *Aramaio herri eskola* (23 boto); *Tellamendi eskola* (16 boto); eta *Orixolpe* (15 boto).

Izen berria proposatzerakoan kontuan hartu dituzten irizpideak izan dira: errespetuzkoa izatea, euskarazkoa, bakarra izatea, Aramaiorekin lotura izatea, erraza izatea eta izen propioa ez izatea. San Martin eskolako zuzendaritza taldeak herritarrak animatu nahi ditu bozketan parte hartzera.



Mariñe Arboe, Nerea Ibarzabal, Ane Labaka eta Malen Amenabar. TXAKUR GORRIA

# Feminismotik sortutako proiektua: Txakur Gorria

Datorren astelehenean, Txakur Gorria sormen kolektiboko kideak Aramaioko udaletxe oso bilkuren aretoan izango dira, 18:00etan. Irakurle klub feministak gonbidatuta etorriko dira, eta 'Errealitateak' liburua izango dute solasaldiaren ardatz

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO  
Autoekoizpena lantzen duen sormen taldea da Txakur Gorria. Lau emakumek osatzen dute, eta hitzaren eta ilustrazioaren bueltan ibiltzen dira. Hain zuzen ere, sortzen zaien lehen ideia plazaratzera iritsi arteko prozesu guztia modu kolektiboan lantzen dute.

Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal testuez arduratzen dira eta Mariñe Arboe eta Malen Amenabar, ilustrazioez. Hain zuzen, Labaka eta Amenabar izango dira Aramaioko solasaldian. Osoko bilkuren aretoan izango da, 18:00etan, astelehenean.

## Feminismoa eta euskara

Irakurle klub feministak antolatutako solasaldia izango da. Euskaltzaletasuna eta feminismoa dira irakurle taldearen ardatzak; eta, hain zuzen, bi ideia horiek izango dituzte hizpide Labakak eta Amenabarrek. "Irakurle taldean *Errealitateak* liburua irakurri dugu, eta liburu

horri buruz berba egingo dute. Horrez gain, euren lanei buruz berba egiteko tartea ere hartuko dute", azaldu du irakurle taldea dinamizatzen duen Ainhoa Aldazabalek.

## Autoekoizpena

"Sormen talde berezia da Txakur Gorria", azaldu du Aldazabalek, eta gehitu du: "Ekoizpen literarioa ez dute argitaletxeen bitartez egiten, autoekoizpena egiten dute. Hori horrela, liburuak bereziak dira bai forma aldetik, ilustrazio aldetik, eta baita testuen aldetik ere".

Solasaldian aztertuko duten liburuko hitzak Labakak egingoak dira; aldiz, ilustrazioez arduratu da Amenabar.

**AUTOEKOIZPENA EGITEN DUEN TALDEA DA: ILUSTRAZIO ETA TESTU BEREZIAK SORTZEN DITUZTE**

Solasaldia herritar guztiei zabalik dago, ez bakarrik irakurle taldekoak direnei. Izena ematea ezinbestekoa izango da parte hartu nahi izanez gero, [berdintasuna@gorbeialdea.eus](mailto:berdintasuna@gorbeialdea.eus) helbide elektronikora idatzita. Plazak mugatuak dira.

## Irakurle taldea

Ainhoa Aldazabal "pozik" dago aurtengo ikasturteak eman duenarekin: "Asteleheneko solasaldiarekin amaitutzat emango dugu 2020-2021 ikasturtea. Egia esan, oso balorazio ona egiten dut. Ez da talde handia, baina bai egonkorra".

Egoera berezietan horrelako dinamika mantentzea pozgarria dela dio Aldazabalek. Ikasturtea amaitutzat eman arren, hurrengora begira jarrita dago dagoneko: "Urrian ekingo diogu ikasturte berriari. Jendea animatu nahiko nuke parte hartze". Feminismoaren inguruko liburuak irakurri eta horiek aztertzen dituzte solasaldietan.

## Oholtzan erakutsi dute nolako trebezia duten musikan

Musika Astea amaierara iristen ari da: gaur, kantu emanaldia izango dute, parkean, 17:30ean

### A.E. ARAMAIO

Musika Astearen barruan hainbat musika ekitaldi egin dituzte astean zehar. Garrantzitsuen eguztenez egin zuten musika eskolako ikasleen emanaldia izan zen. Izan ere, kultura etxeko oholtza gainera 30 bat ikasle igo ziren. Pianoa eta gitarra lagun, abesti bereziak eskaini zituzten.

Larraitx Arriolabengoa eta Manex Arriolabengoa irakasleak "pozik" zeuden emanaldiak emandakoarekin: "Hunkigarria da ikustea bai umeen inplikazioa eta baita familiena ere. Oso hunkituta eta oso pozik gaude". Emanaldiaren hasiera, gainera, eskerrak emateko aprobetxatu zuten: "Ez ginateke hemen egongo eskolaren babesa izan ez bagenu. 2013an joan nintzen proiektu batekin Guraso Elkartera, eta lehenengo momentutik babesa jaso izan dugu. Gure

jarduera aurrera eramateko gela bat utzi digute eta beti prest egon dira laguntzeko. Orain, musika etxean oso ondo gaude, baina baloratu egin behar dugu San Martin eskolak emandakoa".

### Aste bukaerako ekitaldiak

Musika Asteak beste lau ekitaldi izango ditu aste bukaeran. Gaur, Alaiak kantu taldearekin batera kantu emanaldia egingo dute parkean, 17:30ean. Bihar, zapatua, musika klasikoko emanaldia izango dute, 18:30ean. Kultura etxean, harpa eta zeharkako txirula bikoteak musika klasikoa eskainiko du.

Domekan, aldiz, trikiti doinuak entzungo dira Azkoaga auzoan. 12:00etan izango da Debagoieneko trikitalarien emanaldia. Eguna amaitzeko, zinema kontuak izango dituzte: *El piano* filma eskainiko dute, kultura etxean, 19:00etan.



June Ballesteros, Nerea Guerrero eta Manex eta Larraitx Arriolabengoa. A.E.

## Tantai proiektua aurkeztuko dute ekainaren 8an

Tantai Baso Jabe kooperatiba proiektua aurkeztuko dute martitzenean, 18:00etan. D2030 garapen iraunkorrerako sarearen eta Errez kooperatibaren eskutik izango da. Basoak modu errentagarrian, jasangarrian eta bateratuan landuko dituen proiektua aurkeztuko dute. Izena eman behar da 945 44 50 16 telefono zenbakian.

## Erretiratuen artisau lanen bila dabilta erakusketa egiteko

Aramaioko Udalak eta Alaiak erretiratuen elkarteak antolatuta, eskulanean erakusketa egingo dute uztailean. Erretiratuek egindako artisau lanak erakutsiko dituzte; pertsona bakoitzak, gehienez, hiru lan aurkezteko aukera izango du. Parte hartzeko, izena eman behar da, ekainaren 18a baino lehen, udaletxean bertan edo bulegora deituta.

# Badator '7x7' egitasmoa herriko kaleak girotzera

Ekainaren 9tik 30era bitartean zazpi kultura ekitaldi izango dira herriko hainbat txokotan; besteak beste, Imanol Ituiño magoaren saioa, musika eskolako bandaren emanaldia, Neomak taldearen kontzertua eta Kiki eta Koko pailazoaren ikuskizuna

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Ekaina iristearrekin batera jarriko du abian Udaleko Kultura Sailak *7x7 kultura kolean* egitasmoa. Aurreko urteetan legez, zazpi ikuskizun izango dira, herriko hainbat txokotan. Ainhoa Cabero kultura zinegotzia ekiteko gogotsu agertu da: "Segurtasun neurri guztiak hartuta, publiko guztientzako kultur proposamenak eskaintzen jarraitzearen aldeko apustua egin dugu". Hala, ikusleek eserita egon beharko dute, distantziak zaindu egingo dituzte eta edukiera mugatuta egongo da. Era berean, gogorarazi dute helduek lagun eginda egon behar dutela umeei ikuskizunetan.



Ainhoa Cabero zinegotzia eta Inma Miguel teknikaria egitasmoa aurkezten. M. ALTUBE

## Magia, musika eta antzezlanak

Magiak emango dio hasiera aurtengo egitasmoari: Imanol Ituiño magoaren *Magia parrastan* ikuskizunak, hain zuzen ere. Saio parte-hartzailea izango da eta kartak, bolatxoak eta sokak izango dira protagonistak.

Musikak ere izango du lekua. Jon Lopezek zuzendutako Leizarra musika eskolako bandak filmetako soinu bandak eskainiko ditu. Neomak taldeak, ostera, trikiti eta pandero doinuekin beteko du plaza. Eta Acordes Navarros taldeak *De Estella a la Ribera* lana aurkeztuko du; jotak eta rantxerak eskainiko dituzte, besteak beste.

Familia giroan ikusteko emanaldiak ere izango dira: Bihar taldeak *Karolino, printzesa eta dragoiaren burua* ipuina eskainiko die neska-mutikoei; Patata Tropikalak, *Kalean otso, etxean uso* antzezlanak; eta Kiki eta Koko pailazoak, *Bizi-bizi zirkua*.

## Jaiki elkartekoaren saioa

Jaikik, ostera, *Kaioak ez du hotzik* dantza saioa eroango du Ilargi plazara, ekainaren 18an. Dantzari Sara Alonsok egingo die lagun kantuan eta pianoarekin.

## Egitaraua

### Ekainak 9 (Iralabarri plaza)

- Imanol Ituiño magoa.

### Ekainak 11 (Santa Rita lorategia)

- Leizarra musika eskolako banda.

### Ekainak 13 (Herriko Plaza)

- Neomak taldea.

### Ekainak 16 (Santa Kurtz plaza)

- Bihar txotxongilo taldea.

### Ekainak 20 (Herriko Plaza)

- Acordes Navarros taldea.

### Ekainak 22 (Santa Rita lorategia)

- Patata Tropikala antzerki taldea.

### Ekainak 30 (Kurtzebarri eskolako kantxa)

- Kiki eta Koko pailazoak.

Oharra: Ekitaldi guztiak 19:00etan dira (eguraldi txarra egingo balu ekitaldiak, Iturri gorri pilotalekuan).

## 'Zubiak eraikiz' argazki erakusketa

Arkuperen ez da kultura ekitaldirik izango ekainean, baina erakusketa aretoko ateak zabalik izango dituzte hilaren 10etik aurrera. Elkar Hezten plataformak antolatutako *Zubiak eraikiz* argazki erakusketa izango da han. Aniztasun funtzionala duten pertsonen kolektiboarekin lan egiten duten Gipuzkoako eta Nikaraguako hainbat elkarteren arteko truke-egitasmoa da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Dikar kooperatibak finantzatutakoa –Gureak, Goyeneche Fundazioa, Atzegi, Aspace...–. Pandemia egoerara egokitzeko langileek eta erabiltzaileek egindako ahalegin handia jaso dute argazkietan.



ALEkoek egindako autoa zapatuan, Bilbon, lehiatzen. JULEN IRIONDO

## Euskelec lehiaketan egindako lanarekin "gustura" ALEkoak

Aretxabaleta Lanbide Eskolakoek egindako auto elektrikoak zortzigarren postua eskuratu zuten Bilbon

**Julen Iriondo** ARETXABALETA

Asteburuan Bilbon egindako Euskelec ibilgailu elektrikoaren lehiaketan hartu dute parte ALEko ikasleek. Urte osoko lanaren emaitza erakusteko aukera izan dute, beste hamabosten bat eskolatako ordezkariekin batera. Eta zortzigarren postuan bukatu arren lehiaketa, "gustura" itzuli dira.

### Ikasteko baliagarria

Ikasleek auto elektriko bat diseinatu, egin eta proban jarri behar izan zuten. Lehiaketaren sailkapena erabakitzeke, hainbat

emaitza hartu ziren kontuan: sormenari eta alderdi teknikoari dagozkien fasekoak, batetik, eta fase dinamikokoak, bestetik, eslalom, azelerazio eta balaztatze probekin. Amaitzeko, errendimendu proba egin behar izan zuten: zeinek egin ordubetean zirkuituari itzuli gehiago. "Lasterketa esandakoa baino lehenago bukatu zen, eta guri kalte egin zigun horrek, ondo gindoa zelako", jakinarazi du Xabat Igartua ikasleak.

Egindakoak "askorako balio" izan die eta hurrengorako auto arintxoagoa egitea aipatu dute.

## GORA ETA BEHERA



### Bide bazterreko seinaleztapenak, belarrak estalita

Aramaioko Untzilla auzo aldera paseatzera sarri joaten den herritar batek jakinarazi du azken asteetan belarra asko hazi dela bide bazterretan, eta, ondorioz, seinaleztapenak ez direla batere ondo ikusten: "Horren eraginez, arrisku handia dago oinezkoentzako".

### EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.





Aretxabaletako Sareko hainbat kide ekimenaren berri ematen futbol zelaietan. M.A.

## 300 lagun batu gura dituzte bihar, Sare Herritarrak deituta

Futbol zelai txikian elkartuko dira, 17:30ean, guardasolen laguntzarekin gezi bat irudikatzen

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Aretxabaletako Sare Herritarrak *300 baietz!* erronka deitu du bihar, hilak 5. Izan ere, 300 lagun elkartu gura dituzte kiroldegi aurreko futbol zelaietan, guardasol zuriak eskuetan –ez du norberak eraman behar–, "giza eskubideen eta konponbidearen alde".

**Espetxe politika arrunta eske**

Ibilian ibilian dinamikari ekin dio Sare Herritarrak, eta horren baitan dago biharko ekitaldia. Geziaren helburua beste espetxe politika baten aldeko adostasun soziala irudikatzea eta salbuespenezko espetxe politikaren amaiera eskatzea dela diote: "Gari Garciak Aretxabaletarako bidea egin dezan, graduen progresioan aurrera egitea ahalbideratuko duen espetxe politika arrunta aplika diezaiotela aldarrikatuko dugu. Horregatik, gonbidatuta zaudete erronkara elkarbizitzaren eta bakearen alde, konponbidearen alde eta preso eta iheslarien etxeratzearen alde bidea izan nahi duzuen guztiak".

ren eta bakearen alde, konponbidearen alde eta preso eta iheslarien etxeratzearen alde bidea izan nahi duzuen guztiak".

Pozik agertu dira Izan Bidea dinamikaren baitan maiatzaren 8an mendi tontorretara joateko deiak izandako erantzunarekin: "Euskal Herriko tontor ezagunenak igo genituen presoen eta iheslarien etxeratzearen alde eta elkarbizitzaren eta bakearen alde. Inoizko mendi igoera bateratu handiengan, aretxabaletarrok bost tontorretara eraman genuen *Gari Atxabaltara!* deia-darra eta 400 herrikide baino gehiagok argi azaldu genuen urratsak egiteko prest gaudela, guztiok batera, egoera hau behin betiko amaitzeko".

Hala ere, oraindik asko dagoe la egiteko uste dute, eta salbuespenezko espetxe politikari bukaera emateko lanean jarraitzen gertu agertu dira.

## Udaero egitasmoa gertu dute gaztetxoek uztaileko

Nerabeek ez dute aspertzeko tarterik izango aurtengo uztailean. Izan ere, ekintza sorta antolatu diete Atxagazte gazteleko kideek, Aretxabaletako Udalaren bitartez.

Uztailearen 5ean emango diote hasiera Udaerori, gaztelekuan bertan egingo duten parriladarekin. Ekintza gehienak, baina, herrikan kanpora izango dira.

Hala, hilaren 6an, Zarautzera surf egitera joango dira; 9an, Usakora bizikletan; eta 13an, paintballean jardungo dute eta eguna Landan pasatu.

Alabitararen ere joango dira gaua pasatzera: talde bat hilaren 15etik 16ra eta beste bat 22tik 23ra. Uztailearen 20an, osterara, ekintza berezia egingo dute, egitasmoari agur esateko.

Izena emateko epea zabalik izango da ekainaren 20a arte, eta, horretarako, gazteleku deitu behar da: 688 84 38 15.

## Zabalik UDAko zuzendaritzarako hautagaiak aurkezteko epea

Ekainaren 14a, astelehena, izango da azken eguna; batzar nagusiak, osterara, uztailean egingo dituzte

**M.A. ARETXABALETA**

Aretxabaleta kirol elkartearen zuzendaritza batzordeak bi urte bete ditu agintean, eta, horregatik, estatutuek diotena betez, hautagai berriak aurkezteko epea ireki dute. Ekainaren 14a

arte izango dute horretarako aukera. Zerrendak aurkezteko hiru bide daude: [udaretxabaletake@gmail.com](mailto:udaretxabaletake@gmail.com) helbidean, [www.udaretxabaleta.eus](http://www.udaretxabaleta.eus) webgunean edo Aretxabaletako postetxean, 10 posta-kutxara bideratuta.

Hautagai zerrenda bat baino gehiago aurkeztuz gero, uztailean, 2021eko ohiko batzar nagusiarekin batera egingo den ezohiko batzarrean boto gehien jasotzen dituen izango da hautatua.

**Campusa, arratsalde ere bai**

Bestetik, UDAk aditzera eman du uztaileko futbol jolasen campusa goizez ez ezik arratsalde ere egingo duela. Izena emateko epea ekainaren 18an itxiko dute. Argibideetarako: 659 79 44 65 edo [uda.kudeatzaillea@gmail.com](mailto:uda.kudeatzaillea@gmail.com).



Ruben Guinea eta Ander Villanueva.

## "Karrozeria ikasketek eskertu ezagutza batzuk jaso ditut eta horrek, gero, asko lagundu dit Automozioan murgiltzeko"

Ander Villanueva, Karrozeria egin ondoren, Automozio ikasketak egiten dabil Aretxabaleta Lanbide Eskolan

**Zergatik hautatu zenituen Automozio ikasketak?**

Automobilak gustuko ditut, eta erdi mailako Karrozeria ikasketak egin nituen aurretik, oso gustura egin ere. Horregatik, jarraitzea erabaki nuen goi mailako ikasketekin. Zailtasuna eta ikasketak bateratzeko aukera izaten nabil, eta, etorkizunera begira, lan munduan sartzerakoan, eskertu egingo dut.

**Goi mailako ikasketak hasi aurretik erdi mailakoak eginda izateak lagundu egiten du?**

Bai, noski. Karrozeria eginda ezagutza batzuk jaso ditut eta horrek asko lagundu dit Automozioan murgiltzen. Gainera, Karrozeriari esker bost urte pasatu ditut lanean ibilgaietan azalera amaierak egiten. Nik bide hori jarraitzea gomendatuko nuke, eta Aretxabaleta Lanbide Eskolan bada, hobeto.

**Zelakoa izaten dabil zure esperientzia Aretxabaleta Lanbide Eskolan?**

Aurretik ezagutzen nuen, mekanika ikasketak egin nirelako bertan, eta oso esperientzia ona bizi izan nuen itzultzea erabaki dut. Ezagutzak irakasteaz gain, ikasleen autonomiari garrantzi handia ematen diote, eta hori asko lantzen da. Lan mundura begira oso garrantzitsua dela uste dut neuk ere, unean uneko erabakiak hartzen jakin beharko dugulako.

**Lanbide Heziketak zer du beste ikasketak batzuek eskaintzen ez dutena?**

Praktikan oinarritzen direla eta lanera bideratuta daudela, bereziki. Ikasketak bukatu aurretik hiru hilabeteko praktikak egiten ditugu eta horri esker lanbidea bertatik bertara ezagutzeko aukera dugu; hortaz, trebatuta goaz lanera.

**Zeini gomendatu zenizkioke heziketa ziklo hauek?**

Eskuzko lanak gustuko dituztenel, adibidez; bereziki, Karrozeria, oso ziklo praktikoa eta entrenigarria delako.

**Etorkizunera begira automobilaren artean ikusten duzu zeure burua lanean?**

Bai. Esperientzia dut, Karrozeria ikasketak egin ondoren margolari lanetan jardun nuelako, eta oso gustura, gainera.

# Bonu berriak, bereziki, ostalaritzari zuzenduta

Tokiko kontsumoa sustatzeko bonuen kanpaina berrikuntzekin hasi da. Batetik, hiru koloretako erosketa-bonuak atera dituzte, iazkoak modukoak, eta, horiekin batera, ostalaritzako sektorerako bideratutakoak diren bonu berriak ere atera dituzte

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

*Eskoriatza bizirik* ekimenaren baitan, 2020an bezala, aurreko ere tokiko kontsumoa sustatzeko bonuak salgai jarriko ditu Eskoriatzako Udalak; tokiko merkataritzan, ostalaritzan eta bestelako zerbitzuetako establezimenduetan COVID-19 pandemiak eragindako kalte ekonomikoak aurre egiteko. Eguazteenan, hasi ziren horiek saltzen, Ibarraundi museoan, eta interesa duena bertatik pasa daiteke horiek erostera.

Berrikuntza gisa, aurtengo kanpainak bi bonu mota izango ditu: batetik, osasun eta estetikaren zentroetan, merkataritzan eta ostalaritzan erabiltzeko bonuak –iazko bonuak bezalakoak–, eta, bestetik, horiekin batera, eskusiboki ostalaritzan erabiltzeko izango direnak.

**Ostalaritzari zuzenduta**

Iaz bezala, kanpainaren helburua da COVID-19 pandemiaren osasun-larrialdiak eragindako kalte ekonomikoak arintzea, herri-arrantzako erosketa-bonuak sortuz, tokiko kontsumoa sustatzeko; baina aurtengo ekinaldian, ostalaritzaren sektorea bultzatu nahi da, bereziki, itxialdi luzeak egitera behartuta egon baita, eta, irekitzeko aukera izan duenean ere, ezarri dizkioten neurri murriztaileek ez diote zerbitzua ehuneko ehuneko ematea ahalbidertu.

**Bonuak erosteko baldintzak**

Bonuak erosteko ezinbestekoa da interesdunek bi baldintza hauek betetzea: Eskoriatzan erroldatuta egotea eta adinez nagusia izatea. Baldintza horiek betetzen dituen herritar bakoitzak lau bonu erosi ahal izango ditu urtean zehar, ostalaritzako berezi bat eta beste bonu bana kanpainaren fase bakoitzeko. Guztira, hiru fase izango ditu egitasmoak.



Nerea Arana, Ibarraundiko teknikaria, *Eskoriatza bizirik* kanpainako bonuekin. I.B.

## OSTALARITZA SEKTOREAN ERABILTZEKO BONUAK ERE ATERA DITUZTE KANPAINA BERRIAN

Ekainean hasi den lehenengo fasean, Eskoriatzan erroldatutako eta adin nagusiko pertsona bakoitzak 15 euroko bonua erosi ahal izango du, eta kanpainarekin bat egin duen Eskoriatzako edozein saltokitan 30 euro gastatu. Kontsumoko bonu horrekin batera, beste 15 euroko bonu bat erosi ahal izango du, ostalaritzan soilik erabiltzeko, 30 euroko balioarekin. Beraz, ostalaritzan edozein motakoa erabili ahal izango da, baina ez gainerako establezimenduetan.

Eskoriatzako ostalaritza sektorean gastatzeko izango direnak bost euroko sei frakzio zatietan banatuta egongo dira eta kontsumo orokorrerako bonuak, berriz, 5 eurotan, 10 eurotan eta 15 eurotan. Erosketa bakoitzean frakzio oso bat erabili beharko da, gutxienez.

**Eguaztena ezkerro salgai daude**

Eguazteenan hasi ziren Ibarraundi museoan saltzen, eta ordutegi honen barruan erosi ahal izango dute interesdunek: astelehenetan eta egubakoitzetan, goizez, 11:00etatik 13:30era bitartean, eta arratsaldean, eguaztenetan, 17:00etatik 19:30era bitartean. Norbaitek txartelak erostera joateko arazoak baditu, hirugarren bati eskatu diezaike bonua erosteko, bere nortasun agiri zenbakia emanda. Ordainketa kreditu-txartelarekin edo sakelako telefonoarekin egin beharko da. Beraz, bonua erosi ahal izateko, interesdunaren nortasun agiri zenbakia eta kreditu txartela beharko dira.

Bonuen epemugari dagokionez, lehenengo fasekoak, kolore morekoak izango direnak, abuztuaren 31ra arte erabili ahal izango dira eta ostalaritzakoak –kolore zurikoak–, abenduaren 31ra arte. Hala ere, *Eskoriatza bizirik* kanpaina berriaren bilakaeraren arabera, moldagarria izan daiteke. Edozein zalantza argitu nahi duenak deitu edo mezu bat bidali dezake ondorengo telefono zenbakira: 619 01 97 56.

## Mundu bat motxilan daraman Alex Txikonekin berbaldia

Gaur, 'Mundu bat motxilan' liburuan oinarritutako dokumentala proiektatuko dute, 19:00etan, Zaldibarren

**I.B. ESKORIATZA**

*Mundu bat motxilan* liburuan oinarritutako ikus-entzunezko proiektatuko dute gaur, 19:00etan, Zaldibar antzokian, Alex Txikon alpinistaren *menditazioak* eza-gutzeko. Dokumentala ikusi ostean, solasaldia izango da ikus-entzunezkoan protagonista den Alex Txikon alpinistarekin eta Unai Ormaetxea *Mundu bat motxilan* liburuaren egilearekin.

*Mundu bat motxilan* liburuan, Txikonek mendira igotzeko dituen motibazioak, kontuan hartzeak, eta abar azaltzen dira: laguntasuna, enpatia, elkartzasuna, taldea, errespetua... "Garaipena ez dago gailurrean, bidean baizik" esaldia oinarri, horiek izango ditu berbagai.

**Gonbidapenak, aurrez**

Proiektatuko den dokumentalak 53 minutu irauten du, eta ostean



Unai Ormaetxea eta Alex Txikon. TXIKON

izango den solasaldia hogeita minutu ingurukoa izatea aurreikusten da. Sarrera doakoa den arren, gonbidapenak eskatu beharko dira, kultura etxera deituta, 943 71 46 88 telefono zenbakira, edo 650 49 51 66 zenbakira *whatsapp*-a bidalita.

## Ausartak taldearen hirugarren saiorako sarrerak, agortuta

*Las brujas se salem* antzezlanaren hirugarren saioa izango da zapatu honetan Zaldibar antzokian eskainiko dutena Eskoriatzako Ausartak antzerki taldeko kideek. Arratsaldeko zazpitan izango da, baina sarrerak agortuta daude. Sorgin-ehiza, umoretik landuta, bertaratuko diren herritarrek disfrutatuko dute, segurua.



Ausartak taldekoak. IMANOL SORIANO

## '¿Hay alguien por ahí...?' antzerkia domeka honetan

Domeka honetan, 19:00etan, Arabako La Farandula de Elburgo antzerki taldearen *¿Hay alguien por ahí...?* antzezlan ikusteko aukera izango da Zaldibar antzokian. Burgeluko taldeak eskainiko duen saioa gaztekeraz izango da, eta sarrerak bost eurotan erosi daitezke, alde aurretik, Manuel Muñoz kiroldegian.

## Odola emateko autobusa plazan martitzenean

Odola emateko autobusa izan da asteon Fernando Eskoriatza plazan, 16:30etik 20:15era bitartean, eta datorren martitzenean, ekainaren 8an, leku eta ordu berean egongo da. Euskadiko odol emateko elkarteek odol premiak bere horretan jarraitzen duela gogorarazi dute, eta herritarrek odola ematera animatu dituzte.

# Ferixarik ez egon arren, jolasak eta ginkana gaur

Eskoriatzako Ferixiek 25 urte beteko lituzke zapatuan, baina ez da azokarik ezta bestelakorik izango. Hala ere, datorren urtean edizio borobila ospatu nahi dute; beraz, ekintza xume batzuk egingo dituzte gaur, Ferixan egiten dituztenak gogorarazteko

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Zapatu honetan zen egitekoa 25. Eskoriatzako Ferixie, baina ez da ezer antolatu egunerako. Ez dute posturik jarriko, talogileak ere ez dira urtero moduan arituko hain estimatuak diren jakiak prestatzen, dantzak ikusteko ere itxaron egin beharko dute herritarrek, eta txapel jaurtiketa lehiaketarik ere ez da izango. Hala ere, urtero-urtero egiten direnak haurrei gogorarazteko, Arizmendi ikastolako Jose Arana gunekoek zenbait ekintza egingo dituzte gaur, egubakoitza.

"Egoera hobeagoan bageunde, aurten antolatuko genukeen edizioa borobila izango zen; hogeita bosgarren Ferixie, hain zuzen ere, baina ez da ezer antolatu zapatuak. Hala ere, gaur, hainbat ekintza egingo ditugu Jose Arana guneko haurrekin. Batetik, denon artean apaingarriak egingo ditugu ikastetxean. Txorimaloak ere egingo ditugu, etxetik ekarritako arropa zaharrek eta bestelako elementuekin... Bestetik, gunean bertan, jolasak izango dira haur txikiarentzat; eta nagusiek, berriz, ginkana egingo dute herriko zenbait txoko bisitatuz", adierazi du Mainer Nafarratek, Jose Arana guneko hezitzaileak.



Asteon, txorimaloak egiten izan dira Jose Arana gunean. ARIZMENDI

## Jolasak eta ginkana

Burbuila taldeetan daude antolatuta Jose Aranako haurrak. Hori horrela, 4 eta 5 urteko haurren taldeak ginkana egingo du, batetik. Ikastetxetik irten eta Santa Marinara joango dira, egubakoitzeko azokara. Handik bibliotekara, eta, Manuel Muñoz kiroldegitik pasata, ikastetxera bueltatuko dira, leku bakoitzeko pistak jarraituz. Ibilbidea bukatzen dutenean, jasoko duten saria edo altxorra ikastetxean prest izango duten txistorra izango da.

2 eta 3 urteko haurrak, aldiz, ikastetxean geratuko dira, eta zenbait ekintza egingo dituzte bertan, musikaz girotuta. Kasu horretan ere, txistorra jateko aprobetxatuko dute txikiak.

## Datorren urtean egiteko gogoz

"Aurten modu honetan egitea erabaki dugu. Hala ere, pandemiaren ondorioz, bi urteko geldiunearen ostean, herritarrekin batera ospatzeko gogoz antolatuko dugu datorren urtean izango den 25. edizioa", adierazi du Nafarratek.

## Hip-hopa ikasten

10 eta 12 urte arteko hamahiru neskatilak egin dute hastapeneko hip-hop ikastaroa Enrike De Souza irakaslearekin. Berotze ariketak egin ostean, hip-hoparen oinarriko pauso batzuk landu zituzten, joan den asteburuan, Joseba Iñurategi pilotalekuko gimnasia gelan. Pauso batzuk ikasita, koreografia txiki bat egin zuten guztien artean.



IMANOL SORIANO

## Bi kasu berri hautemanda, eremu berdetik gorrira jauzia

Joan den egubakoitzean, COVID-19 kasu berri bi baieztatu zituen Osasun Sailak Leintz Gatzagan

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Apirilaren 19a ezker ez da koronavirus kasu positiborik hauteman Gatzagan. Hala ere, astelehenean, Osasun Sailak asteburuko koronabirusaren egoera epidemiologikoaren berri eman zuen, eta joan den egubakoitzean bi kasu antzeman zituztela adierazi du; hala, guztira, hamaika dira pandemia hasi zenetik gaur egunera arte herrian izan diren kasuak.

## Intzidentzia-tasa: 854,70

Biztanle gutxiko herria izanda, hamalau eguneko tasa metatuaren arabera kolore aldaketa nabarmena izan du. Izan ere, azken bi kasu positibo horien eraginez, eremu berdetik gorrira egin du salto: hamalau eguneko intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 0,00 izatetik 854,70 izatera pasa da.



Herriko kalea, hutsik. I.B.

## Zuhurtziaz jokatzea

Udal ordezkarien esanetan, "ez da albiste ona bi kasu baieztatu izana". Hala ere, herritarrek "zuhurtziaz" ari direla jokatzeko adierazi dute, eta bide beretik jarraitzeko gomendioa egin nahi izan dute.

## Labidea alboko tunelean murala egingo dute, hiru zapatutan

Gurelek antolatuta, eta POOK elkartekoek lagunduta, muralismo tailerra izango da, datozen hiru zapatuetan

**I.B.** LEINTZ GATZAGA

Gurel Guraso Elkarteak sustatuta, Leintz Gatzagako Udalaren babesarekin eta POOK sormen laborategia elkartekoek lagunduta, muralismo tailerra izango da hiru zapatutan. Asmoa da Labidea dendaren alboan Pilar kalera ematen duen tunelean, margolan bat egitea auzolanean, herria apaintzeko; eta, horretarako, batez ere, haurrak animatu nahi dituzte antolatzaileek parte hartzerako. Oraingoan, hamaik eman dute izena, eta parte hartu gura dutenek bost euro ordaindu beharko dute.

## Muralismo tailerreko egitaraua

Muralismo tailerra hiru zapatu arratsaldetan egingo den arren, bi fase izango ditu: batetik, arlo teorikoa, zapatu honetan egingo dutena; eta bestea, praktikoa, hurrengo bi zapatuetan egingo

dutena. Hala, izena ematen dutenak bozetoa eraikitzekeo batuko dira ekainaren 5ean, 17:00etan, kultura etxean. Ekainaren 12an, 17:00etan, berriz, behin ideia pentsatuta dutela, margolana egiten hasiko dira, eta, hitzordu horretan, murala bera nola egin behar den irakatsiko diete parte hartzen dutenei, muralari forma ematen hastez batera. Amaitzeko, ekainaren 19an, azken ukituak egiteko batuko dira; hala, lana amaituko dute, 17:00etan elkartuta.

## Murala egiteko pautak

POOK sormen laborategia elkarteko kideak izango dira muralismo tailerrean arituko diren neska-mutikoei egin beharrekoak zehazten. Gidari lanetan aritzeaz batera, halako artelanak egiteko irakaspenak ere eskainiko dizkie tailerrean batzen direnei.



Beñardo Kortabarria, Jabi Asurmendi, Gorka Artola eta Iraitz Lazkano, eta atzean, hiru udaletako Kultura zinegotziak, atzo. T.M.

## 'Geuretik sortuak', euskal kulturaren hedapenerako

Bergarako, Antzuolako eta Elgetako udalek hitzarmena sinatu dute Udalbiltzarekin, euskara hutsezko artearen eta kulturaren sormena, ekoizpena eta zabalkundea sustatzeko; 2021ean eta 2022an 53.395 euro bideratuko dituzte proiektura hiru udalek

### Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako, Antzuolako eta Elgetako udalek hitzarmena sinatu zuten atzo eguerdian Udalbiltzarekin, *Geuretik sortuak* proiekturako. Euskara hutsean egindako artea eta kulturaren sormena, ekoizpena eta hedapena sustatu nahi dituen proiektua da *Geuretik sortuak*, eta Euskal Herriko 26 artistak hartuko dute parte. "Euskal arteak lengoaia asko izan ditzake, baina hizkuntza bakarra du, geurea: euskara. Azken urteotan, globalizazioarengatik eta Espainiako eta Frantziako estatuen ahalbide ugariengatik, atzerriko hizkuntzetan egindako kultura nagusitzen ari da gizartean, gure hizkuntzan egindako artearen kalterako", adierazi zuten atzoko agerraldian.

26 artista horiek jaioterritik kanpo hiru asteko egonaldia egingo dute obra bat sortzeko: hamasei ipuin, bost film labur eta bost antzezlan. Obrek herrietako errealitatea islatu beharko dute, "modu batera edo bestera".

### Oier Zuñiga artista etorriko da

Oier Zuñiga artista etorriko da Bergarara, Antzuolara eta Elgetara. Dantza eta antzerkia fusionatzen duen *Lurra arin bekizu*, ama ikuskizuna sortuko du, dolua gaitzat hartuta. Iruñeko margolaria eta eskarmentu handiko aktore gaztea da Zuñiga.

Hitzarmenak jasotzen duenez, Bergaran bost antzerki emanaldiren, eleberri laburrez osatutako liburu osoaren eta film laburrez osatutako film osoaren aurkezpen publikoak egingo dira. Antzuolari eta Elgetari dagokionez, berriz, hiru antzerki emanaldi izango dira, horietako bat bertan ekoiztuko dena.

2021ean eta 2022an hiru udalek egingo duten diru ekarpena

**IRUÑEKO OIER ZUÑIGA ARTISTA ETORRIKO DA, 'LURRA ARIN BEKIZU, AMA' IKUSKIZUNA SORTZEKO ASMOZ**

ere zehaztu zuten atzo. Hurrenez hurren, 2021ean, Bergarak, Antzuolak eta Elgetak honako diru ekarpen hau egingo dute: 16.353, 4.214 eta 3.625 euro. 2022an, berriz, Bergarako Udalak 19.933 euro, Antzuolakoak 4.851 euro eta Elgetakoak 4.419 euro. Artistek urtarrilerako amaitu beharko dituzte lanak, otsailean ikusgai egon daitezten.

### EAJren eta PSE-EEren abstentzioa

Asteleheneko osoko bilkuran onartu zen hitzarmena, EAJren eta PSE-EEren abstentzioarekin. EAJko Maite Agirreren arabera, "alderdi politiko bakar baten" proiektua delako abstenitu ziren, besteak beste: "Hor daude Eudel, Aldundia eta Jaurlaritzak, halako ekimenak garatzen dituzten erakundeak, eta hor alderdi politiko guztiak gaude ordezkatuta. Gainera, Bergaran badira eragileak euskal sorkuntza bultzatzen dutenak, eta egokiaz ikusten dugu sortzaile horiei bideratzea diru partida hori".

## Eskolak okupatuta jarraitzea "onartezina" da, EAJren ustez

Jeltzaleek Zubietako eskolaz galdetu ostean, EH Bilduk adierazi du hurrengo batzordean hartuko dutela erabakia

### J.B. BERGARA

Asteleheneko osoko bilkuran, EAJko Maite Agirrek EH Bilduren Udal Gobernuari galdegina 2020ko abendu amaieratik Deba Bailara Kontseilu Sozialista taldeak okupatuta duen Zubietako eskolarekin zer egingeko asmoa duen: "Onartezina da sei hilabeteren ondoren okupatuta jarraitzea; zerbait gertatuko balitz zer? Alkateak argi laga du Udalarena dela erantzukizuna zerbait gertatuko balitz; argindarrak eta urik gabe dabilta, ez dugu uste baldintza egokietan ematen ari zaionik erabilera udal eraikin horri. Gainera, Bergaran badira hainbat eragile eraikin hori erabili nahiko luketenak".

### Erabakia, "hurrengo batzordean"

Gorka Artola alkateak EAJri erantzun zion esanez gaia kezka jarraitzen dutela eta kolektibo horri hasieratik azaldu ziotela jarraitu beharreko prozedura ez zuela bete: "Eurei esan genien, publikoki ere esan genuen eta baita auzotarrekin egindako bileretan ere". Hirigintza txostenaren arabera, oinarriko segurtasun neurriak

betetzen ditu eskolak, Artolak aditzera eman zuenez: "Kezka genuen bereziki segurtasun aldetik gertatu daitekeenarekin, baina, harrigarria bada ere, hirigintza txostenak dio oinarriko segurtasun neurriak betetzen dituela". Udal Gobernuak Nagore Iñurrategik esan zuen hurrengo batzordean landuko dutela gaia: "Txostenak aztertuko ditugu, baina hori batzordean egitea tokatzen da; ondoren hartuko dugu erabakia".

### Bizilagunek, "prozesu irekia"

Bertako bizilagunak "modu zabalean" ordezkatzen dituen Zubietako Berri elkarteak Udalari eskatu zion "prozesu ireki bat" zabaltzeko eskolako oruberako: "Orube hori berrantolatzearen alde egiten dugu. Irisgarritasuna ziurtatu eta aisialdia lehentsita, horretarako kale osoan daukagun gune bakarra delako".

Bestalde, Deba Bailara Kontseilu Sozialista taldearekin jarri da harremanetan GOIENA asteon, eta, erantzun bat emateko "prestutasuna" agertu duten arren, adierazi dute "denbora faltagatik" oraingoz ezin izan dutela erantzun.

## Jardun euskara elkarteko bazkideen urteko batzar orokorra



**Eguna:** ekainak 17, osteguna

**Ordua:** lehen deialdia 18:00etan bigarren deialdia 18:30ean

**Lekua:** Irizar jauregiko 3. Solairuan (Euskaldun berria aretoan)

### Gai zerrenda:

- Aurreko urteko aktaren onarpenera
- 2020ko jarduerak eta balantzea
- 2021erako asmoak eta aurrekontua
- Bakoitzak dakarrena

Bergaran, 2021eko ekainaren 4an.

Jardun euskara elkarteko lehendakaria (Miren Etzeberria Jauregi)



# Bidea egiteko dei egin dute, euskal presoen alde

Euskal Herri osorako Izan Bidea ekimenaren barruan, Gure Artera-Sarek "euskal presoen aldeko bidea egiteko" ibilbide bat aurkeztuko du etzi (10:00): "Elkarbizitzan eta bakean oinarritutako aro batera eroango gaituen bidea egiteko ibiltariak gara"

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Euskal presoen alde Euskal Herri osoan egiten ari den Izan Bidea ekimenaren barruan, Debagoienean *Ibilian ibilian etxerako bidea* dinamika jarri du martxan Sarek. Bergarari dagokionez, ekimen zehatz baten berri eman du Gure Artera-Sarek, etziko: "Bergarako Izan Bidea ibilbide iraunkorra aurkeztu nahi dugu, eta, Bergarako jendartearen parte-hartze aktiboa bilatzeko, hiru ideia nagusiren baitan: presoek eta iheslarien etxeratze prozesua martxan jartzea, elkarbizitzan bizi den jendarte baten eraikuntza aurrera egitea eta bakearen aldeko urratsak egitea".

**Herritarren inplikazioa nahi dute**

Bergarako Gure Artera-Sarekoek diote garaia dela iraganeko zauriak sendatzeko: "Egoera hau behin betiko gainditzea nahi dugu ibiltari aktiboak gara, eta aurrera egin nahi duen oro sare honetara batzera gonbida-

tu nahi dugu. Elkarbizitzan eta bakean oinarritutako aro batera eroango gaituen bidea egin nahi dugun ibiltariak gara, baina horretarako herritarren ardurak eta parte-hartzea ezinbestekoak dira, guztion bultzada beharrezkoa da eta gauzak mugitu daitezten". Euskal presoak etxeratze eta bakearen aldeko urratsak egiteko bidea egitea inoiz baino beharrezkoagoa dela diote: "Bizi dugun pandemia garaian, lehen baino urgentzia, behar eta ardura handiagoz bidea egiten jarraitu behar dugu".

**Hamar kilometroko paseo laua**

Bergaran domekarako antolatuta dute ibilbide iraunkorraren aurkezpena. Euskal Herri osoan

**"EDONORK" EGITEKO  
MODUKO HAMAR  
KILOMETROKO  
IBILBIDEA  
AURKEZTUKO DUTE**

aurkeztu 3.127.326 kilometro egiteko erronka ezarri dute, Euskal Herriak dituen biztanleak beste: "Herritar bakoitzari ibiltari izatea proposatzen diogu, modu indibidualean edota kolektiboan, guztion artean bidea osatzeko".

Etzi aurkeztuko duten ibilbidea "edonork" egiteko modukoa dela diote: "Hamar kilometroko paseo laua da, erraza, edonork egiteko modukoa, osoa edo zatika". Torrekuako autobus geltokian hasita, Ibargarai kalean bidetxerri sartu eta Boni Laskuraindik eta Ernai kaletik pasatuta Mekolaldeko trenbide zaharren bidetik igaro behar da, gaur egun bidetxerria dena. Mekolalden Narbaiza zeneko eremuan buelta egin eta goiko trenbidetik Buruñao auzora ematen duen aldapan aurrera eginez goiko estazioko indar-etxea zeharkatu behar da. Gero, Bolura eginez Haizemendiko parajeraino, Artzamendiko jaitsieratik Espoioan zehar berriro autobus geltokira iritsi behar da.



Izan Bidea ekimenaren barruan maiatzaren 8an Bergarako tontoretara egin zen igoeretako bat. GURE ARTERA-SAREK

## Apurketak San Martin eskolako fatxada, leiho eta pertsianetan


"Hainbat pertsonak" eragindako kalteak gaitzetsi dituzte zuzendaritzak, Agorrosin guraso elkarteak eta Udalak

**J.B. BERGARA**

Maiatzeko azken astean San Martin Agirre eskolan izan ziren apurketak salatu dituzte eskolako zuzendaritzak, Agorrosin guraso elkarteak eta Udalak: "Hainbat pertsonak eskolako eremuan ibili eta kalteak eragin zituzten eraikinean, fatxadan, leiho eta pertsianetan... Herri hezitzaile baten eraikuntza bidea egiten ari garen herria gara eta errespetuan oinarritutako herria eraikitzeke lanean ari gara Udalean eta herriko hezkuntza zentroetan. Horregatik, ez ditugu ulertzen ezta onartzen ere horrelako jarrerak, lekuz kanpo daude gure herrian".

**Etz da gertatzen den lehen aldia**

Salatu dute ez dela gertatzen den lehen aldia: "Orain dela aste gutxi berriro da eraikina, gainera. Halako jarrerekin, guztion dirua



Apurketak ikastetxe fatxadan. B.U.

xahutu baino ez da egiten. Ari-keta batera gonbidatu nahi ditugu herritarrek: pentsa dezatela nolako herria nahi duten, nola nahi dituzten izan eraikin eta plaza publikoak eta parte har dezaten guztiok gustura biziko garen herria eraikitzen".



### T. DE ARANZADI IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAREN EZOHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Gure kooperatibaren estatutuak 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, Arlezkaritza Kontseiluak T. DE ARANZADI IKASTOLA, KDOP. ELK. ren ezohiko Batzar Nagusira dei egiten du (Arlezkaritza Kontseiluaren eskaritz). Batzara 2021eko ekainaren 16an egingo da, **arratsaldeko seieta** lehen deialdian eta, hala balegokio, **sei eta erdiletan** bigarren deialdian, Bergara herriko Herriagunak kaleko Aranzadi Ikastolan.

#### GAI-ZERRENDA

- Akta onartzeko kideak izendatzea.
- Aurreko bilkurako aktaren onarpen-bostena irakurtzea.
- Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Lege berrira egokitutako Estatutuak aurkeztea eta onestea.
- Hemendik aurrera, Batzar Orokomerako deialdiak ikastolako webgunean argitaratzea (onestea).
- 2021etik 2025era arteko bideragarritasun-plana aurkeztea eta, hala badagokio, neurriak onartzea (bozketa bidez).
- Galde-erantzunak.

Bazkideek gai-zerrendan dauden gaien inguruko dokumentazioa Aranzadi Ikastolan aurrez aztertzeke aukera dute.

Bergaran, 2021eko maiatzaren 28an

Lehendakaria  
Maider Gariteno Pagaldai



Irati Goikoetxea *Herriak ez du barkatuko* liburuaren aurkezten, anaiaren eta gitarra jole baten laguntzarekin. MIREIA BIKUÑA

# Sufrimendua erdigunean jarri, literaturaren bidez

Igartza saria irabazi ostean idatzitako 'Herriak ez du barkatuko' eleberria aurkeztu zuen Irati Goikoetxeak kartzela zaharrean, ETak aita hil zion Oihana pertsonaiaren bizipenak azaltzen dituena: "Irakurle asko hurbildu zaizkit liburuak sorrarazi diena kontatzeko"

## Jokin Bereziartua BERGARA

Angiolillo liburutegiak gonbidatuta, Irati Goikoetxea idazlearen *Herriak ez du barkatuko* eleberriaren aurkezpena izan zen joan den asteburuan kartzela zaharrean. Anaiaren galderei erantzunez eta gitarra doinuek lagunduta, pasarte batzuk irakurtzen aurkeztu zuen liburu Goikoetxeak; GOIENARI azaldu dionez, honelaxe jarri zuen amua: "Nahi duenak hozka egin eta etxean liburu ira-kurtzeko irrika izan dezala".

## Protagonistaren tokian jarri nahi

ETak aita hil zion Oihana da liburu "abiapuntua eta ardatza", eta, 22 urtez gai horretaz inorekin hitz egin gabe egon ondoren, bere sentimenduak adieraztea erabakitzen du. Hirugarren pertsona idatzita egon arren, idazleak Oihanaren tokian kokatu nahi du irakurlea: "Gakoa da irakurlea bera liburu pertsonaia sentiaraztea. Izan ere, denoi eragin digu gatazkak,

denok hartu dugu jarrera bat haren aurrean. Eta, antza, lortu dut helburua; izan ere, igarri dut irakurleari oso zuzenean eragin diola eleberriak".

## Igartza saria jaso ostean idatzia

Jaioterri duen Beasainen banatzen den Igartza sariaren 22. edizioa 2019an irabazteak eman zion aukera liburu bat idazteko, eta berehala aukeratu zuen gaia: "Minaz, sufrimenduz eta pertsonen hitz egin nahi nuen, alderdi humanoa erdigunean jarri. Neure buruari eskatzen nion zerbait zenez, nahiko erraza egin zait eta lasai idatzi dut, oso barneratua izan dut eta urteetan zehar minarekin eta sufrimendurekin konexio hori. Barne-

**IRAKURLEA  
PROTAGONISTAREN  
TOKIAN JARRI NAHI  
IZAN DU IDAZLEAK:  
"LORTU DUT, ANTZA"**

ratutako guztia kaleratzeko ariketa ederra bezain aberasgarria izan da liburu idaztea".

## Hutsune bat betetzeko asmoa

Horrez gain, uste du hutsune bat betetzera ere badatorrela liburu: "Irekiera zabalean mina eta sufrimendua erdigunean jartzeko falta dira tresnak eta erremintak eta nire ahalegina izan da horietako bat eskaintzea; betiere, literaturaren bidez".

Duela bi hilabete eta erdi inguru kaleratu zuen liburu, eta hainbat erreakzio jaso ditu dagoeneko irakurleen partetik: "Ederra iruditzen zait edozein liburu eragin ditzakeen sentimendu, bizipen, oroitzapen, zirrara edo dena delako horiek irakurleak egilearekin partekatzea. Eta hori gertatu zait. Askok izan dira hurreratu zaizkidanak, moduak eta bideak bilatu dituztenak niregana hurbildu eta liburu nondik sortu dudana galdetu eta euren sorrarazi dien hori kontatzeko".



JOKIN OREGI 'SORTWO'

## 'Sortwo'-ren eta 'Remak'-en lana

Miguel Altuna institutuak eskatuta, mural berria egin dute Jokin Oregi *Sortwo* eta Mikel Larrañaga *Remak* artistek: "Teknologia berriak islatzeko margotu dugu errealitate birtualean ari den pertsona eta kultura aniztasuna irudikatzen da emakume beltzarana. Miguel Altuna mundura zabalik dagoela ere islatu nahi izan dugu, Lurra bestelako forma abstraktuekin ere irudikatuz".

## Erakusketa, azoka eta Askasibari omenaldia biharko Beart egunean

2020an ez zen ospatu, baina aurten, pandemiak baldintzatuta bada ere, Beart egunak ez du kalerik egingo. Bihar, 12:00etatik 14:00etara, erakusketa jarriko dute Iralan, eta marrazki eta akuarela batzuk "oso merke" saltzeko asmoz azoka txiki bat ere jarriko dute; artelan garestiena 40 eurokoa izango da. "Ezingo dugu bazkaririk egin; ea datorren urtean ohi moduan ospatu dezakegun...", espero du Beart-eko presidente Karlos Gallarragak. Gainera, Beart sortu aurreko elkartearen erreferente handienetako bat izan zen Lorenzo Askasibar eskultorea omenduko dute udaletxean (13:00), Udalarekin elkarlanean.

## Zuen udako istorioak eta abenturak irakurri nahi ditugu!

### Goiena komunitatea

Jardun euskara elkarte / BERGARA

Aurten ere udako euskarazko postalen lehiaketa antolatu dugu, hamargarren edizioa izango dena. Edozein pertsonak har dezake parte, nahi beste postal bidalita; postalek euskaraz idatziak izan behar dute eta gaia librea da; eta posta arruntez bidali behar dira gure helbidera –ez ahaztu norberaren kontaktua jartzea postalean-. Postalak jasotzeko azken eguna irailaren 16a izango da eta postal onenak 60 euroko saria jasoko du. Zuen udako istorioak, abenturak eta xelebrekeriak irakurri nahi ditugu! Argibide gehiagorako: 943 76 36 61 edo 605 71 24 69.

# "Kantxako zikloa amaitu zait, baina badakit familia hau ez dudala lagako"

**GORKA UGALDE** SORALUCE BKE ESKUBALOI TALDEKO JOKALARI OHIA

'Komandante Che Bergara' ezizena erdi brometan jarri zioten taldeko gazteenek, haientzat erreferente ukazina izan den seinale: "Labegaraietan ordu asko egingo ditut, hori ziur"

**Jokin Bereziartua** BERGARA

23 denboralditan Soralue BKE-ko elastikoa harro izerditu ostean, maiatzaren 29ko partiduan ostean esan zion agur eskubaloiari Gorka Ugalde (Bergara, 1986). Kiroldetik kafetegian GOIENArekin izandako solasaldia esker on mezuekin amaitu du: "Beti egongo gara Josetxori [Muniategi] eskertuta, klubagatik egiten duenak ez duelako preziorik. Arazo bat izango dugu delegatu gabe kluba uzten badu...".

**Zergatik erabaki duzu erretiratzea?**

Kantxako zikloa amaitu dela sentitu dut. 2019ko maiatzaren 12an, lehen territorialetik bigarren nazionalera igotzeko fasean, nire ibilbideko lesio aipagarriena izan nuen, sorbalda atera nuen eta partidu baten. Lesio haren ostean lagatzekotan egon nintzen, baina beti nabiltenez hemen [Labegaraieta kiroldegian] eta Josetxok proposatuta berriro hasi nintzen... konfinamendua iritsi zen arte. Iritsi da ordua, adinean ere aurrera goaz...

**Zaila izango zen erabakia hartzea...**

Oso. Neska-lagunak, adibidez, animatu egin nau beste urtebete jarraituzera, baina ez dut egoera jartzearren luzatu nahi izan. Publikorik gabe jokatzeko laga behar izan dut, baina zikloa ondo itxi izanaren sentsazioa daukat. Duela bi urte lesionatuta nengoan, iazkoa ez zen denboraldi bat izan eta aurrean, sikiera, denboraldi osoa jokatu dut.

**Espero gabeko sorpresa eta guzti...**

Bai... Partidu aurretik ez nuen ezer esan, ez nuelako nahi partidua baldintzatu, baina Josetxok bazekien, COVID-19rako arduradunak ere bai... Josetxo bera ezin izan zen kantxan egon egun hartan, baina abisua pasata zeukan: partidua amaitu baino bost minutu lehenago hutsartea

eskatu zuten txalo zaparrada bat eskaintzeko. Pankartak ateratzen hasi ziren... Askok hunkitu ninduen, oso polita izan zen.

**Fuerteflojuetan ere aditua zara. Ez dakigunondako... zer da?**

Atezainari baloia indartsu bota behar diozun itxura egin eta gero, baloia leun bota baloia doi-doi sar dadin. Adinean aurrera egin ahala gehiago erabili dut teknika hori, eta nahiko ondo atera izan zait. Fisikoki ez gara ginena eta beste teknika batzuk garatu ditugu; kar, kar. **Ze urte gogoratzen duzu, bereziki?** 2006-2007 denboraldia sekulakoa izan zen. Belaunaldi bereko jokalaritza talde ederra izan genuen; lehen territorialetik ligako partidu guztiak irabazi genituen, bat izan ezik, igoera fasean ere aurkariak birrindu genituen... Gipuzkoako Txapelketa irabazi

ostean, Bizkaiko eta Arabako onenekin batera sei taldeko ligaxka bat jokatu genuen eta hori ere irabazi egin genuen. Bigarren nazionalera igo gineneko urte hartan izugarri gozatu genuen.

**Beste denboraldi aipagarririk?**

2012an, bigarren nazionallean geundela, lehen itzulian bigarren bukatu genuen, sekulako maila ematen. Baina, bat-batean, hainbat lesio larri izan genituen eta sekulako gainbehera izan genuen. Lehen itzulian igoera fasea jokatzeo aukerak izango genituela pentsatetik ia maila galtzera pasatu ginen. Gainera, urte hartan taldearen bizkarzurra zena desagertu egin zen.

**Zer da Soralue BKE zuretzat?**

Auzolana eta konpromisoa oinarri dituen familia bat. Lagun pila bat egin ditut; azken urteetan ni baino askoz gazteagoekin



Ugalde, Labegaraietan, asteon, 2006-2007 denboraldiko ordezkari kamisetarekin. J.B.

ibili naiz eta sekulako harremana garatu dut. Ez dakit zertan arituko naizen laguntzen, baina badakit ez dudala familia hau lagako. Sei edo zazpi urtez aritu naiz entrenatzaile, zuzendaritzan ere laguntzen aritu naiz... Labegaraietan ordu asko egingo ditut oraindik ere, hori ziur.

**Ze etorkizun ikusten diozu klubari?**

Neska mordoak ditugu beheko mailatan, eta hori oso pozgarria da, baina bete behar dugun erronka da senior mailako taldea ateratzea. Mutiletan ere pixkanaka heltzen dira senior mailara, eta pena handia litzateke bi taldetik bakarrera pasatzea.



Euskadiko Txapelketa irabazi osteko talde argazkia, 2007an. SORALUCE BKE

## Lehen territorialetako Euskadiko onenak

2006-2007 denboraldia izan zen Ugalderen ibilbideko onena: "Itzela izan zen urte hura, izugarri gozatu genuen. Kantxan sekulako maila eman genuen, guk ere espero ez genuena; lagunak ginen, eta hori ere igarri zen. Azken partidu hartan giro ederra izan zen harmailatan".



## Jokalarien maisuak laga gaitu

**JOSETXO MUNIATEGI** SORALUCE BKE-KO ENTRENATZAILEA

Erabaki du ez dituela berriro jantziko galtza motzak. Denboraldiko azken partidua lehiatu ondoren esan zuen agur, bere modura eta estilora, zarata handirik atera gabe eta diskrezioarekin. Ia lortu zuen bere helburua, baina taldeak ez zion laga; taldeko liderra agurtzeko unea zen eta ezin izan beste denboraldi bateko azken partidu bat. Hori ez.

Jokalaritza guztien maisua, beti laguntzeko prest eta akatsak lasai zuzentzeko, partidu bukaeran gaizki jokatu duenari hitz positiboak esateko beti gertu. Erasoko jokalaritza ausarta, kontraerasoa eta joko bizkorra maite zituen; gol asko egiten zituenean seinale ona zen guretzat, partidua poltsikoan genuen adierazle zen. Eta hirugarren zatiko maisua ere bazen; taldeko giroa lantzen aparta, guztiok norabide berean arraunean jartzen espezialista zen.

Baina badakigu taldetik gertu egongo dela, galtza luzeekin orain, baina beti bere ikuspuntua ematen eta jokalaritza gazteen makila izaten momentu txarretan. Espero dugu beste urte mordo bat egotea, kantxaren beste aldean bada ere.

Zorionak, Ugalde, eta zorionak Bergarako eskubaloi taldeari, horrelako pertsonak izateagatik!



Bergarako Musika Bandako kideak, protokoloak zehazten dituen neurriekin, Zabalotegin egindako entseguan. ENRIKE TXURRUKA

# Entseguetara bueltatuta, emanaldi gogoz da Banda

Musika Banden Euskal Federazioak egindako lanarekin, Eusko Jaurlaritzarekin protokoloa zehaztu eta aurrez aurreko entseguetara itzuli dira musika bandak; Bergarakoa ere bai. Asteon egin dute "gogo handiz" hartu duten lehen entsegua

**Jone Olabarria** BERGARA

Azaroko kontzertua prestatzen ari zirela, bertan behera utzi zituzten aurrez aurreko entseguak Bergarako Musika Bandako kideek. "Prebentzioagatik" erabaki zuten entsegu presentzialak etetea, eta handik egun gutxira etorri zen ostera ere Jaurlaritzaren debekua.

**Asteartean, lehen entsegua**

Ordutik hona, etxetik ibili dira musika egiten, "ahal den moduan". Aste honetan ikusi dute berriz elkar, Zabalotegi aretoan asteartean egin zuten entseguan. Bandako zuzendari Enrike Txurrukak azaldu duenez, "gogo handiz" bueltatu dira: "Kide bakoitzaren egoerak oso desberdinak direnez, errespetatu egin dugu zeinek nahi edo ahal duen orain hasi eta zeinek geroago. Kontsultatu ostean, orain, 45 kide ingururekin hasi gara, entseguak erdi eta erdi egiten, pare bat egunetan, bakoitzean hogeitau edo 25 bat kiderekin".

**Jaurlaritzaren baimena**

Martxoan sortu zuten Euskal Musika Banden Federazioa, eta, horrek egindako lanari esker, Eusko Jaurlaritzak protokolo orokor bat onartuta iritsi da berriz ere entseatzeko aukera: "Orain, protokolo hori bakoitzak bere lokal, kide kopuru eta ezagarrrietara egokitu behar izan du martxan hasi ahal izateko". Oraingoa bezalako kasuetan soilik ez, epe luzerako ere, Federazioa eratu izana "baliagarria" izango dela uste du Txurrukak: "Azken batean, denak batera egonda, zalantzak daudenean ere dena errazagoa da".

Protokolo berri horrek zenbait moldaketa ere eragin dituela azaldu du Txurrukak: haize-

**"ERRESPETATU EGIN DUGU ZEINEK NAHI DUEN ORAIN HASI ETA ZEINEK GEROAGO; EGOEREN ARABERA DA"**

instrumentuekin aritu eta, ondorioz, maskara gabe entseatzeko duten musikarien arteko distantzia metro eta erdikoa izateko bi metrora pasa da.

**Kontzertuak berreskuratzeko**

Txurrukaren arabera, emaitza musikala "ez da, ziurrenik, egokiena izango", baina helburu nagusia martxa berreskuratzea izango da: "Ekaineko eta uztaileko ekitaldiak eskaintzea gusatuko litzaziguke, baina bada-kigu hainbeste denboraren ostean lan egin beharko dugula. Hala ere, oraindik ikusteko dago nola egin daitekeen, eta musikarien egoera zein den".

Musikariez gain, Bergarako Musika Bandak dituen jarraitzaile fidelak ere "gogoz" daude emanaldiez berriz ere gozatzeko: "Kontzertuetan ohikoak direnek, kalean ikustean, esaten digute ea noizko emanaldi edo kontzerturen bat. Hori espero dugu, segurtasun neurri guztiekin berriz ere bueltatzea".



Jardunen antzerki eskolako ikasleak, entsegu batean. JARDUN

## Antzezle gazteak taula gainean, Jardunen antzerki eskolari esker

Ekainaren 10ean, bi obra eskainiko dituzte gaztetxoek Seminarixoan: 'Umore on TB' eta 'Ametsetan'

**J.O. BERGARA**

"Primeran" pasatzeaz gain, Jardunen antzerki eskolako ikasleek "lan handia" egin dute kurtso osoan, eta, ikasturte amaierarekin batera, iritsi da ikasitakoa taularatzeko unea. Edozelan ere, argi utzi nahi izan dute helburua ez dela bukaerako lan hori, baizik eta antzerkigintzaz gozatu eta prozesu osoan ikastea.

8 eta 12 urte bitarteko 32 haur ari dira aurten antzerkigintzaz gozaten. Hiru taldetan banatuta, bi obra eskainiko dituzte datorren egunean, arratsalde-

ko sei eta erdietan, Seminarixoan. *Umore on TB* eta *Ametsetan* antzezlanak interpretatuko dituzte, hain zuzen ere.

**Ikasleek sortutakoa**

Jarduneko ordezkariak azaldu dutenez, ikasleek euren beharren eta nahien arabera sortu dituzte antzezlanak: hala nola pertsonaiak, gidoia, dekoratuak, eta abar.

Emanaldietarako sarrera doakoa izango da, eta parte hartzaileen senideek gonbidapena jasoko dute. *Seminarixoa.eus* webgunean ere eskura daitezke.

## Idazlan gehiago aurkeztuta, "pozik" aurtengo Koldo Eleizalden

Protokoloa "zorrotz" beteta, zapatuan egin zuten aurtengo edizioaren sari banaketa, Seminarixoan

**J.O. BERGARA**

Erabat normala ez, baina ia-zkoarekin alderatuta "erdi normala" izan da, Estepan Plazalaren hitzetan, aurtengo Koldo Eleizalde literatur sari banaketa ekitaldia. Izan ere, pandemia egoerak oraindik neurriak zorrotz jarraitzea eskatzen du, eta protokoloa zorrotz bete zuten zapatuan Seminarixoan.

Koldo Eleizalde sariketako saridunak aretoan izan ziren, eta, bertso, poesia eta antzerki artean, denek jaso zituzten euren sariak. "Parte-hartzeari dago-

kionez gustura geratu gara, idazlan kopurua beste edizio batzuetakoa baino zerbait handiago izan da, bereziki, nagusien kategorian, eta oso maila politeko lanak egon direla esan digute epaimahaiko kideek".

Interpretazio arloan ikus-entzunezko lanak eta jasotzen gazteek zailtasun handiagoak izan dituztela azaldu dute: " Eskoletan bertan interpretazioa lantzen dute, eta aurten ez da halakorik egon. Normala den moduan, lan kopuruan jaitsiera izan dugu, baina pozik geratu gara".

# Komunikazio udaleku irekiak. 2021



- **Euskara** hutsean.
- Komunikazioaren mundura hurbiltzeko modu **kritiko, praktiko eta dibertigarrian**. Besteak beste, landuko dira: kamera aurrean nola jarri, fotokazetaritza, youtuber izateko gakoak, podcastak nola egin, benetako albisteak eta faltsuak nola identifikatu...
- Mondragon Unibertsitateko irakasleekin eta Goienako **profesionalekin**.
- Gainera, landuko diren gaietan ezagunak direnek emango dituzte master-eskolak:  
**Aiora Mujika** @probatxoa youtuberra.  
**Ainhoa Vitoria** komunikatzaile eta Gazteako irrati esataria.  
**Xabier Urzelai** Goiena Komunikazio Taldeko kazetaritza-argazkigintzan aditua.

## Anima zaitetz eta eman izena!



### Noiz:

- Lehen txanda, uztailaren 5etik 9ra.
- Bigarren txanda, uztailaren 12tik 16ra.
- Astelehenetik ostiralera, goizez.

### Non:

Mondragon Unibertsitateko  
Komunikazio Campusean, Aretxabaletan.

### Orduetgia:

09:00-13:30.

### Norendako:

DBH-4ko eta batxilergoko 1. mailako gazteak.

### Izen ematea:

Maiatzaren 3tik ekainaren 18ra.

### Prezioa:

125 euro.

### Izena emateko:

[www.goiena.eus/bereziak/udalekuak](http://www.goiena.eus/bereziak/udalekuak)

### Informazio gehiago:



600 04 66 89



[komunikazioudalekuak@gmail.com](mailto:komunikazioudalekuak@gmail.com)

ANTOLATZAILEAK:



Mondragon  
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea

goiena<sup>“</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA



Juan Bernabe apaiz gaztea Antzuolako Errukizko Amaren parrokian. MAIDER ARREGI

# "Hazi egin diren eliza elkarteetatik ikasi behar dugu, biziberritzeko"

**JUAN BERNABE GOROSTIDI APAIZA**

Apeztu berri da Juan Bernabe (1995, Donostia). Antzuola du bere lehen destinoa, eta irailaren 15ean esan zuen lehen meza herrian. Pozik dago herritarren harrerarekin

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Apaiztu berri den 26 urteko donostiarra da herriko apaiz berria. Irailean esan zuen Bernabek lehen meza. Bere gaztetasunak, bi metroko garaierak eta leporak ez du inor epel uzten. Egungo Elizak "hazi" egin behar duela dio, eta pederastia kasuak "amesgaizto gisa" bizi izan dituela aitortu dio GOIENARI. **Zergatik eta noiz erabaki zenuen apaiz izan nahi zenuela?**

Berez, ez da zerbait nahi izatearen erabakia; baizik eta dei edo

bokazio bat da. Bide honetan murgildu naiz dei hori entzun edo ikusi dudalako. Nire erabakia da dei horri jarraitzea. Hori argituta, nire momentua batxilergoa hasi aurrekoa da. Letrak ikasi nahi nituen, baina zein

**"EUSKAL HERRIAN EZ DUT BERGARAKO 'MOJAZAHAR' GAZTEEN MODUKO KOMENTURIK IKUSI"**

zen Jainkoaren nahia niretzako? Zerbait zegoen hor, kezka berezi bat. Azkenean, Gazteen Munduko Jardunaldian, Benedikto XVI.a aita santuarekin egon eta gero [eskua eman nion] baieztatu zen bokazioa.

**Etxean, familiak nola hartu zuen albistea?**

Oso ondo, eta bakoitzak erantzun ezberdin bat izan zuen. Etxekoei pixkanaka esan nien: lehenengo, gurasoei; gero, anai-arrebei, aitonari... Momentu oso politak izan ziren niretzako.

**Zazpi anai-arrebaren artean zaharrena. Zure bidea jarraituko duenik?**

[Barre] Momentuz, ez. Gure familia oso fededuna izan arren, apaiz gutxi izan ditu. Nork bere egoeran, Jaunari baietz esaten jarraitzea nahiko nuke. Bai apaiz bizitzan, ezkontzan, bizitza erlijiosoan edo beste edozein bidetan... Eta uste dut hala egiten ari direla, gainera.

**Oso fededunak zarete etxean?**

Baietz erantzungo nizuke; egia da asko garelara, eta nork bere bidea eta bere denboraldiak dituela, baina bai, uste dut auto-bidaietan arrosario santua errezatzen duen familia bat fededun gisa hartu daitekeela. Nigan ikusten duten onena beraien-gandik datorrela esan ohi dut.

**Gaztea, bi metro, leporarekin...**

**Ez zara oharkabea igarotzen.**

Jakin badakit ni ikustean jendeak nitaz jarduten duela. Baina behar hala asmatzen dut zertaz mintzo diren. Batzuetan, agurtzera hurreratzen naiz, dibertigarria da. Ongietorri ona eta beroa izan dut Antzuolan. Oso gustura sentitzen naiz; batez ere, jendea ezagutu ostean. Hitz onak bakarrik ditut antzuolarrentzat.

**Antzuola da zure lehen destinoa?**

Urtebete ere ez daramat apaiz, eta Antzuola eta Bergara dira nire lehen destinoak. Nire lehenengo meza Antzuolan esan nuen, irailaren 15ean.

**Bergarako apaiz etxean bizi zara.**

Bai; oso gustura nago. Gauzak ondo prestatu ditzaket bertan, noizean behin norbait gonbidatu, otoitz egin, irakurri. Hiru apaiz gaude: parrokoa, asko laguntzen gaituen erretiratutako apaiza eta ni. Oso ezberdinak, baina harreman bikainekoak.

**Zu zara gazteena elizbarrutian?**

Ez; hilabete gutxigatik nire lagun min Mikel Ormazabal da gazteena. Elkarrekin apezte ginen eta biok gara 95eko belaunaldi-koak; 26 urte ditugu.

**Eliza biziberritzeko beharrik ikusten duzu? Jendearengana hurbiltzeko zer egin behar du Elizak?**

Elizara datorrenaren –eta baita apaizarena ere– batez besteko adinak adierazten digu urte gutxi barru hainbat lekutan eliza

**"PEDERASTIA KASUAK AMESGAIZTO DIRA; BARKAMENA ESKATU ETA LAGUNDU EGIN NAHI NUKE, BENETAN"**

desagertu egin daitekeela. Horregatik, nire iritziz, mahai gainean egon behar den galdera da: zer egin Elizak iraundera? Bada, funtsean, egoera honetan egon diren eta, hala ere, hazi egin diren eliz elkarteek ikasi behar dugu. Adibidez, Bergaran ditugu Maria Stella Matutinako mojak. Euskal Herri osoan ez dut horrelako komenturik ezagutzen. Lekaime gazte beteta, batzuk ni baino gazteagoak; beharbada, beraiei galdetu behar-ko genieke.

**Nola bizi izan dituzu Elizako pederastia kasuak?**

Amesgaizto baten gisa. Ez dago beste hitzik. 2004an irakurri nuen, *Guinness* liburuan, Los Angelesko Elizbarrutiak zuela kalte-ordainen errekorra. Sinestezina zen, baina bat-batean gure herrian eta egunkarietan azaldu dira kasuak. Min handia sortzen dit, eta benetan gustatuko litzaidake biktimei barkamena eskatzea eta eman dezakedan laguntza eskaintzea. Bestalde, honen ondorioz, apaiz gehienak sumoepan egoteak ere min handia sortzen dit. Ezer egin ez duten apaizak dira, eta saiatu behar dugu ekintzen bidez susmoa argitzen.

**Zein onura dakartza fededuna izateak?**

Pila bat, ziur egon; azkenean, fedea ez da bakarrik guk betetzen dugun zerbait; nolabaiteko argi bat da, Jainkoak emana eta guk onar dezakeguna. Eskaintzen zaigun dohaina. Beraz, gure kontu egin dezakeguna baino zerbait handiagoa da. Horrela esanda, nahiko interesgarria dirudi. Adibide bat: maitasunagatik eta ez kaosagatik sortuak garelara ezagutzea; argi hori zugar pizten denean, beharbada, bizitza alaitasun eta itxaropen berezi batekin ikus dezakezu.

**Zoriontasunaren bidea hautatu duzula esango zenuke?**

Zorion-bidea txikitatik hautatu nuen, ikusi behar du benetan aurkitu dudana edo ez. Apaiz oso on batek esaten zuen bezala: "Zoriona ez da bizitza eroso bat edukitzea, baizik eta bihotz maitemindu bat". Zorion-bilatze bideak egungo egoerara eramane; norberak ikusi eta ibili behar du bere bidea, alegia... Baina ez zait burura etortzen Jainkoarengandik gertu egotea eta gure anai-arreben alde bizitza ematea baino zoriontasun handiagorik.

# Eskolako jantoki eredua aztergai dute gurasoek

Herri eskolak ez du sukaldetik eta kanpoan erabakitako eta kozinatutako menuak kontsumitzen dituzte jantoki zerbitzuko erabiltzaileek. Indarrean den legediak ez du, oraingoz, eredu aldaketarik ahalbidetzen, baina gaia aztertzen hasita daude gurasoak

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Gauzak alda daitezkeela sumatuta proiektu berriak lantzeko une interesgarria dela esan zuten, eguaztenean, bai Bidezko Elikadura taldeko Eneko Viñuela bai Ereindajan kooperatibako Ainhoa Narbaizak.

Guraso elkartearekin elkarlanean, informazio hitzaldia eskaini zuten, eta gaiak interesa piztu zuen; izan ere, 27 lagun elkartu ziren; horietatik 23, Elgetako eskola komunitatekoak.

**Hasiera puntuan**

Elgetako eskolak ez du sukaldetik eta eredu berria litzateke bertako ekoizleen produktuekin eta bertako sukaldean prestatutako menuak eskaintzea. Jangela zerbitzu jasagarri eta pedagogiko baten aldeko diskurtsoa egin zuten hizlariak, eta horrekin batera kalitatezko zerbitzua aldarrikatu.


Maala guraso elkartearen ordezkariek hasita daude udal arduradunekin hartu-emanetan, eskolaren azpian dagoen antzokiko sukalde erabiltzeko aukera mahai gainean jartzeko. "Erantzuna, berez, baiezkoa da, baina, oraino, ez dago proiektu zehatzik, eta airean dago dena", adierazi du guraso elkartearen Ikuska Lizarralde.

Viñuelaren gomendioa da urratu daitezkeen bideak aztertzen hastea. Aurreikusten du Jaurlaritzak laster aldatuko duela indarrean duen arautegia, eta eredu aldaketak egiteko aukera interesgarriak zabalduko direla. Bizkaiko lau ikastetxetan egindako esperientzia pilotuek, bestetik, bidean ikasitako ekarpen interesgarriak utzi dituzte. Elgetako eskolaren ezaugarriengatik eta tamainarengatik, baikor agertu da. "Udala prozesuaren alde dago. Ikastetxeko zuzendaritzarekin eta jantokiko langileekin elkartzen hastea komeniko litzateke orain".



Eneko Viñuela hitzaldia egiten, eguaztenean, Espaloian. L.Z.L.

## Zein da egoera gaur egun?



**ENEKO VIÑUELA**  
BIDEZKO ELIKADURA

**"Espero dugu gutxi barru arautegia aldatzea"**

"Elgetako eskola komunitateak erabaki behar du zenbateraino eraldatu nahi duen eskolako jantokia. Garrantzitsua da familiarekin, irakasleekin, ikastetxeko zuzendaritzarekin eta jangelako langileekin egotea, proiektua eta helburuak finkatzeko. Gaur egun indarrean dagoen arautegiarekin gutxi egin daiteke, oraino, baina espero dugu hilabete gutxi barru egoera aldatzea eta baldintza berriak egotea. Komeni da ordurako lanak aurreratu edukitzea".



**IKUSKA LIZARRALDE**  
MAALA GURASO ELKARTEA

**"Orain ikusiko da ea lantalderik sortzen den"**

"Hasiera fasean gaude, eta erabakia hartu aurretik informazioa jaso nahi genuen, ikusteko ze aukera dagoen eta zein den egoera erreala. Orain ikusiko da ea lantalderik sortzen den eta indarririk dagoen horrelako proiektu bat aurrera eramateko. Badirudi une egokia dela halakoak bultzatzeko. Udalarekin egonda gaude, eta Ereindajan kooperatibaren babesa ere badugu. Garrantzitsua da, ekoizle sare handia behar baita halako proiektu bat aurrera eramateko".



L.Z.L.

## Eskerrak herriko bi odol-emailereri

50 odol-ematetik gora egin izanagatik urrezko intsignia eta diploma jaso ditu Jose Mari Arozenak. Eta zilarrezkoa Enaitz Ezpeletak, 25etik gora egiteagatik. Mariasun Agirrereren eta Carmen Ojangurenen eskutik jaso dituzte oroigarriak. Odol-emale izatearen garrantzia azpimarratu dute guztiek, eta deialdia egiten denean gerturatzeraz animatu dituzte elgetarrak.

## 68 neska-mutikok eman dute izena uztaileko udalekuearako

Udal arduradunak dekretu berria aztertzen ari dira; esan dute saiatuko direla zerbitzua ume guztiei zabaltzen

**L.Z.L. ELGETA**

Aurreko astean bukatu zen behin-behineko izena-ematea. Udal arduradunek adierazi dute 68 neska-mutikok eman dutela izena. "Dekretu berria aztertzen ari gara", azaldu du Iratitz Lazkano alkateak, eta taldeak egiteko mugei begira daudela. "Aztertzen ari gara nola egin, baina saiakera egingo dugu izena eman duten guztiek udako aisialdian parte hartzeko".

Zerbitzua, hasiera batean, ekainaren 21etik uztailearen 23ra emango du Udalak.

**laz, hamabost neska-mutiko**

Gauzak ondo bidean, beraz, oso bestelako kopuruak izango ditu aurtengo uztaileko udaleku zerbitzuak. Iaz, lau astez egon zen zerbitzua zabalik –uztailaren 6tik 30era–, eta pandemia tarteko hamabost umek hartu zuten parte. Kontziliazioari eman zitzaion lehentasuna, eta familiek egiaztatu egin behar izan zuten zerbitzua zabalik zen ordutegian gurasoak lanean zirela. Duela bi urte, 2019an, bost astez eman zuten zerbitzua Udalak, eta 86 umek hartu zuten parte.

## Eguaztenean bi positibo berri atzeman ziren herrian

Gaurko datuek ekarriko dutenaren zain, bi izan dira aste honetan Elgetan erregistratu diren koronabirus kasu positiboak. Eguaztenean komunikatu zituen Osasun Sailak, martitzenean egindako probetan atzeman ostean. Horrenbestez, pandemia hasi zenetik, 66 koronabirus kasu positibo erregistratu dira Elgetan.

## OHARRAK

### 'Ipuinen ordua' gaur

HH-3ko eta HH-4ko neska-mutikoendako, 17:20an, liburutegian. Lekua mugatua da eta aurrez eman behar da izena.

### Lorenzo Askasibar

Artistari omenaldia eta L. Askasibar. *Eskultore baten testigantza* liburuaren aurkezpena, hilaren 9an, 18:30ean, antzokian.

# HAPOren bidea zuzena da, Udal Gobernuaren ustez

Aurrerakin fasean dago HAPO, eta jeltzaleek uste dute herritarrak ez dituztela ondo informatu; ekarpenen erantzunik ez dutela jaso ere kexu dira. Udal Gobernuak, berriz, dio herritarren parte-hartzearekin egin eta egingo dela prozesu osoa

## Oihana Elortza OÑATI

Oñatiko Herri Antolamenduaren Plan Orokorrari buruz orain arte egin den lanaren gaineko iritzi ezberdinak dituzte Udal Gobernuan dagoen EH Bilduk eta oposizioan dagoen EAJk. Prozesua ez dela zuzena izan uste dute jeltzaleek, eta horixe adierazi zuten osoko bilkuran. Baina Udal Gobernuak adierazi du orain artekoa herritarren parte-hartzearekin egin dela eta oraindik ez direla plana bera idazten hasi. Euren egindako ekarpenen erantzunik jaso ez dutela ere gaineratu dute jeltzaleek.



Oñatiko erdigunaren ikuspegi orokorra. O.E.

## Herritarren iritziarekin

2018an ekin zioten HAPOren egitasmoari, eta ordutik hona "herritarren partaidetza bidelagun" dela joan da forma hartzen, Udal Gobernuaren iritzi. "Informaziorako eta parte-hartzerako zenbait mekanismo ezartzea aurreikusitako fase horietan

guztietan, eta halaxe egin da. Hori bai, aintzat hartu beharra dago parte-hartze prozesuak ezin duela zurrina izan, unean uneko egoerara eta beharretara moldatu beharra dagoela. Prozesua bera da haren jarraipena

zehaztuko duena", esan du Oñatiko alkateak. Gaineratu du aurrez aurreko informazio saiok, lan-tailerrak, kale erakusketak eta kontraste saiok egin direla herritarrekin batera eta aurrerakin faseko emaitzak



NIRE USTEZ

UXUE MOTERO

## HAPO eta erantzunik eza

Alkateak eta Sabai Arkitektoak taldeak Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra (HAPO) aurkeztu berri dute gaztelekuan. HAPOk Oñati nolakoa izango den erakusten du. Hainbat herritar, *Kontzejupetik* aldizkarian Berezaio auzoan eta Autlan-lehen Cegasa- dauden lekuetan etxebizitzak eraikiko direla ikusi ondoren, kezka handiz eta galdera askorekin gerturatu ziren. Erantzunik gabe atera ziren batzarretik. HAPo egokia den ala ez alde batera utzita, ez dut uste hori gauzak egiteko modua denik; ez, behintzat, herritarrez kezkatzen diren agintarien aldetik. Gutxieneko enpatiarekin aurreikusitako behar zen berri horrek Autlan-eko langileen eta Berezaon lantokiak eta etxebizitzak daukaten artean eragingo zuen ziurgabetasun, eta kezka, egoera. Gainera, kontuan hartzeko da Berezaon autonomoak badirela, eta jada oso egoera zaila dakartzate pandemiaren ondorioz. Berriz diot: ez naiz HAPo baloratzen ari; salatzen ari naiz Udalak, kontu eta xehetasun faltagatik, herritar batzuen artean sortu duen larritasuna.

## Zaintzaren gaiaren gaineko tailerrak daude asteartean

Oñatiko emakume zaintzaileen lanari buruzko ikerketa jaso dute liburu batean Selma Huxley bekaren laguntzarekin, eta gai horri buruz herritarren artean berba egiteko eta horren gainean jarduteko, tailerrak antolatutako dituzte ikerketako egile diren Jone Arrazolak eta Miren Aranguren eta Udaleko Berdintasun Sailak. Ekaineko martitzenetan izango dira, 15ean, 22an eta 29an, 17:00etatik 19:00etara, kultura etxeko erakusketa gelan. Aurretik eman behar da izena, udal webgunean sartuta.

Ikerketa jaso duten liburua bera eguaztenean, hilak 9, aurkeztuko dute, zinema aretoan, 11:00etan eta 18:00etan.

herritarren aurrean aurkeztu zirela, maiatzaren 10ean, gaztelekuan: "Ordurako, publiko eginda genituen aurrerakin faseko emaitzak, *Kontzejupetik* herri aldizkariaren bidez. Hartara, herritarrek aurrez ezagutzen zituzten saioren nondik norakoak, eta, parte hartzeari dagokionez, kokatuago egon zitezkeen".

## Luzatzearen alde

Jeltzaleen kexetako bat da, hain zuzen ere, "aurrerakina herritarrak behar bezala informatu gabe idatzi dela". Horri lotuta, diote fase honetan jasotakoa informazio panel handietan jartzea eskatzen duela prozesuak, eta ez dela hori egin. Panelen azalpena gaia landu duten adituek egitea ere igarri dute faltan jeltzaleek.

EAJri "kezka" sortzen diote, bestalde, HAPOren gainean Udala hartzearekin dagoen irizpide eta helburu orokorrekin: "Hainbat gai oker planteatuta daude". Dio plan horrek "herrian eta herritarren etorkizunean duen garrantziaz jakitun", iradokizun "sorta zabalak" aurkeztu dutela

eta ez dutela oraindik erantzunik jaso. Kezka, bereziki, hiru esparruri dagokionez: bizitzeko lurzorua esparrua, ekipamendua, zehazki kultur eta kirolari lotutakoak, eta herritarren partaidetza. Futbol zelaiaren behin-betiko kokalekuaren gaia ez dela aztertu diote, eta uste dute "akats handia" dela etxebizitzak Cegasa eta Eroski-Berezaio lurzoruetan kokatzea. "Hor egin orduko hamar bat urte pasako dira, gutxienez, eta bitartean, zer?", zioen Anjel Biain jeltzaleak osoko bilkuraren amaieran. Bestalde, Garay-ko lurzorua aldeko "apustu irrimoa" egin dute jeltzaleek, eta EH Bilduren Udal Gobernuak hori aintzat ez hartzea "akats handia" dela iritzi.

Izaro Elorza alkateak, baina, adierazi du orain artekoa aurrerakin fasea dela. "Egindako proposamen guztiak erantzun ditugu, EAJrenak barne, eta hau osoko bilkuran onartu eta gero hasiko gara plana idazten, herritarren parte-hartzearekin hori ere". Prozesua gelditu eta denbora gehiago hartzearen alde daude jeltzaleak.



## TXANTXIKU IKASTOLA, Koop. Elkartearen OHIKO BATZAR NAGUSIA

### GAI ZERRENDA

EGUNA: EKAINaren 28a, ASTELEHENA  
ORDUA: 18:00etan lehen delaldian eta 18:30ean bigarrean.  
LEKUA: Santa Ana antzokia

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko.
2. 2020/2021 ikasturteko kudeaketa txostenaren berri ematea.
3. 2020ko Urteko Kontusak aztertzea eta, badagokio, onartzea.
4. 2020ko emaitzen banaketa eta, badagokio, onartzea.
5. 2021eko aurrekontua aztertzea eta, badagokio, onartzea.
6. 2021/2022 ikasturteko zerbitzuen ordainsarien berri ematea.
7. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
8. Galde-eskeak.

### OHARRA:

Bazkideei gogorarazten zala sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela Urteko Kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kudeaketa txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan dituzten.

Oñatin, 2021eko ekainaren 4an



# Vigoko fasea irabaztea bigarrenenez gerta daiteke

Espainiako Eskubaloi Txapelketako lehen fasean lehiatuko dira gaurtik domekara Aloña Mendiko kadete mailako neskek; duela 23 urte, hirugarren sailkatu ziren, Vigon irabazi ostean. Aurten ere badute aukera, "asteburuaz disfrutatzea" doazen arren

## Oihana Elortza OÑATI

Vigoko (Galizia) Traviesas udal kiroldegian jokatuko dituzte Espainiako Txapelketako lehen faseko partiduak Cartonajes Arregi-Aloña Mendi taldeko jokalariek: gaur, egubakoitza, Gaztela eta Leongo taldearen kontra, 18:00etan; zapatuan, Madriloen kontra, ordu berean; eta domekan, galiziarren kontra, 12:30ean. "Azken partidua eta, etxekoen kontra. Horrek esan gura du faboritotzat dituztela oñatiarrak", dio eskubaloian eskarmentu handia duen Iñaki Canterok.

Mikel Agirrek eta Andrea Gartzia zuzentzen duten taldeak



Jokalariak eta entrenatzailea asteleheneko entrenamenduan. O.E.

ez du emaitza buruan, asteburu ondo aprobetxatzea eta esperientziak disfrutatzea baizik, baina badakite irabazteko moduan daudela. "Egon gara beste taldeen partiduak ikusten, eta, egia esan, ondo egin dezakegula uste dut", dio Agirrek. *Streaming* bidez emango dituzte partidu guztiak.

**Ikusleak izango dira harmailetan** Atzo, eguena, joan ziren Vigora. Lauko zortzi talde daude lehen kanporaketa honetan, eta Vigokoan egokitu zaio jokatzea Aloña Mendiri. Elkarren aurka jokatuko dute han lau taldek, eta irabazlea bigarren eta azken faserako sailkatuko da, gainerako taldeetako irabazleak bezala. Duela 23 urte ere egoera berean ziren orduko kadete mailako neskek, Vigon; irabazi egin zuten, eta hirugarren gelditu Espainiako Txapelketan.

Ikusleak izango dira harmailetan. Kantxan 35 lagun sartzen dira, guztira, baina mugatua izango da edukiera, eta gutxiago sartuko dira. Hala ere, kanpoko beiratik jarraitu ahal izango dituzte hemendik joandako etxekoek.

## 1998an eta 2002an bezala ari da izaten

Beste bi aldiz iritsi dira Aloña Mendiko kadete mailako eskubaloiko neskek Espainiako Txapelketako bi faseak jokatzea. Eta biak ditu gogoan talde bien entrenatzaile izan zenak, Iñaki Canterok. "Urte bi haietan Euskal Liga irabazi genuen eta Espainiakora pasa ginen. 2002an, Murtzian irabazi genuen lehen fasea, eta Kanariar irletan jokatutako bigarrenaren, zazpigarren egin genuen. 1998an, berriz, Vigon irabazi egin genuen; handik Mallorcara, eta han hirugarren gelditu ginen. Sekulako esperientziak izan dira biak. Aurten ere gerta daiteke. Pena dut ezin naizelako joan, baina ea ondo jokatzen duten".

**Erosteko orduan, nire lehen aukera, Oñati**

HERRITIK ZUZTARRERA, ZUZTARRETIK HERRIRA

Gure merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak

OÑATI dabilen herria

**Julen Iriondo M. de Zuazo** OÑATI

Bi ahizpak corpusetan dantza egitearenak derrigor izan behar zuen berria, kontuan izanda hiru urte baino ez direla emakumeak herriko festa berezian dantza egiten hasi zirela. Hain justu ere, Amaia Tatiegi izan zen 2018ko jaietan dantza egiteko aukera izan zuten nesketako bat; zapatu goizean eta asteburuko ekitaldi nagusian, domeka goizeko prozesioan, jardun zuen. Ainhoa ahizpak hurrengo urtean izan zuen aukera, baina aurten izango da lehen aldian bi ahizpak bederatziko berean jardungo dutena—asteburu berean hainbat bederatziko izaten dira, saioak bezala—, domeka arratsaldean.

Pandemiaren eraginez, aurtengoak ere ez dira ohiko corpusak izango, nahiz eta iazkoetan baino saio gehiago izango diren, hori bai. Ikastetxez ikastetxe ariko dira gaur, egubakoitz, dantzariak; domeka goizean, berriz, meza nagusian egingo dute dantza, eta arratsaldean plazako frontoian—bi ekitaldiotarako gonbidapenak behar dira, eta agortuta daude—.

Frontoiko saioan jardungo duten Tatiegi ahizpentzat lehen aldian izango da corpusetan elkarrekin, baina Antzuolan egindako Dantzari Egun batean bai, dantzatu zituzten batera Oñatiko dantzak. "Lehenengo aldi hark ilusioa egin zigun, bai", dio Ainhoak; eta Amaiak erantsi: "Baina aurtengoa ere berezia izango da; gainera, elkarren ondoan tokatuko zaigu".

Aitor neba ere nagusien dantza taldeko kide da; hark ez du, oraindik, corpusetan dantza egiteko aukerarik izan: "Bera falta da. Baina, bueno, gazteagoa ere bada, eta edukiko du aukera oraindik gurekin entseatzeko



Oñatzeko dantzariak, eguazteneko entseguan. EIDER MONCAYOLA

# Oñatz eta corpusak, senide arteko gauza

Dantza taldea familia handi bat delako, bai; baina, are gehiago, nagusien taldean 11 neba-arreba, ahizpa edo anaia bikote—kasu batean, hirukotea— daude gaur egun. Adibidez, lehen aldiz egingo dute domekan dantza bi ahizpak bederatziko berean

hasteko, eta ea zer gertatzen den gero". Bederatziko berean hiru neba-arrebak egotea "larregikoa" izango litzatekeela diote, hala ere, ahizpek, barre artean.

## Agirretarrak

Julen eta Alazne Agirrek hirugarren aldiz egingo dute elka-

rrekin dantza corpusetan; domeka goizeko saioan izango da. Julen lehenago ere jardunda, Alazne ere 2018ko hartan estreinatu zen. Oñatiarrentzat—eta, tartean, Oñatzeko dantzariarentzat— halako ospakizun berezia, Alaznek dio "polita" izan zela nebarekin une haiek konparti-

tzea: "Eta lehenengo urtean Iñigorekin [Murgiondo] ere bai, kapitaina, gure lehengusua dena. Polita izan zen niretzako berarekin ikastea eta lehen aldiz irten nintzenez neba eta lehengusua, biak, edukitzea hor, konfiantzaz jarduteko. Polita da guretzat eta familiarentzat".

Familiarentzat, gurasoentzat ere bai: "Corpusak gure etxean beti izan dira asteburu berezia. Julen dantzan ateratzen zenean, batez ere domeka goizean, lehen aldiz atera zenean, gogoratzen dut guraso biak nola zeuden negar malkotxoarekin. Eta, gero, biok batera ikustea Oñatiko arropekin Oñatiko dantzak egiten, bada, polita izan zen. Eta aurten ere, jakin zutenean domeka goizean egin behar genuela biok, ezin ziren mezarako sarrerarik gabe geratu".

Juleni "burutik pasatu ere" ez zitzaion egiten corpusetan arrebarekin dantza egiteko aukera izango zuenik: "Gero, prozesu natural moduan etorri zen neskak entseatzeko hastea, jende askok lana ondo eta asko egin ostean, eta gero eta gertuago ikusten duzu, eta hasten zara pentsatzeko: 'Agian, hau errealtate bihurtu daiteke'. Eta bihurtu zen: 'Hasieran espero ez genuen aukera hori sortu zen'".

Opari bat. "Alineazioa esan behar zutenean, ni Julenena noiz esango ote zuten, eta: 'Ai ama! Biok egun berean! Ai ama!'. Lehenengo urtea neskek irteten ginena, neuri tokatzea, eta, gainera, Julenekin eta Iñigorekin... Oso polita izan zen, hunkigarria izan zen", dio Alaznek. "Beti izan da pozgarria neba dantzan ikustea corpusetako asteburuan, eta biok batera egitea... Eta bera ere ikusten nuen pozik, iritsi ginelako dantza batera egitera. Izan ere, beste dantza batzuk egin ditugu, Luzaidekoa-eta, baina honen prozesua bereziki berezia izan da".

Aurten emanaldi nagusian ariko dira elkarrekin, eta Alaznek dio eguna gerturatzen doan heinean nabaritzen dituela tximeletak sabelean; Julen saiatzen





Ainhoa eta Amaia Tatiegi. J.I.



Julen eta Alazne Agirre. J.I.



Axier eta Eneko Uriarte. J.I.

da arrebari patxada transmititzen –tximeletak berak ere izaten ditu, elizakoa berezia izaten delako–: "Esperientzia dugun aldetik, lasaiago gaudenoi tokatzen zaigu bai, agian, teknikoki zuzentzea, posturak-eta, baina gehiago lasaitasun hori transmititzea". Dantzan ari direla, jarriko dio arreta arrebari: "Ondo egingo du, ez dut inolako zalantzarik".

#### Uriartetarrak

Eneko eta Axier Uriarte anaiek 2019an domeka goiz eta arratsaldean egin zuten elkarrekin dan-

### BEDERATZIKOAK OSATZEKO, URTE OSOAN EGINDAKO MERITUAK HARTZEN DIRA KONTUAN

tza corpusetan –beste egunetan ere egin izan dute batera–. Corpusetan elkarrekin dantza egin zutenerako, batera dantza asko egindakoak ziren, eta diote, horregatik, corpusetan dantza egiteak berak sortu izan diela zirrara handiagoa anaiarekin egiteak baino. Familiarentzako bai, familiarentzako bereziagoa izan zen: "Amandrearentzako, bi bilobak han, aldarean, ikustea edo prozesioan ikustea, asko da; amandrearentzako, etxeko denentzako". Beti komentatzen omen zuten etxekoek ea noiz tokatzen ote zitzairen bi anaiei batera dantza egitea: "Momentua heldu zenean, amandrea-eta elizan malkoei utsi ezinda".

Oñatz dantza taldeak urtean egiten duen emanaldi garrantzitsuena dela dio Axierrek, norbera bertan egotea nahi izaten den ospakizuna: "Pertsona

bat behin nagusien taldera iristen denean, esaten du: 'Behintzat corpusetan dantza egin arte, jarraituko dut'".

Corpusek duten garrantzia kontuan izanda, ez da edozelako ardura nortzuk dantzatuko duten erabakitzea; uneko eta aurreko kapitainen eta Jesus Irizar Txutxin-en erabakia izaten da. Mikel Biain da kapitaina 2019a ezkererako: "Urteko merituak hartzen ditugu kontuan: entseguetara agertu zaren, dantza taldearekiko hartutako konpromisoa... Eta, gero, beterano eta gazteagoen artean oreka bat bilatzen saiatzen gara, momentu bereziren bat salbatu behar bada edo zerbait inprobisatu, beterano batek jakin ohi duelako nola jokatu". 30 dantzari inguru hasten dira entseguetan –bikoitza baino gehiago dira, denera–, eta hortik aukeratzen dituzte bederatzikoak.

## Pandemiak etendakoari berrekinez

Pandemia "kolpe gogorra" izan zen Oñatzentzako ere, 50. urteurrena ospatzen ari ziren urtean iritsi baitzen, gainera. Ospakizunak etenda eta denbora askoan gelditu dira tarte honetan. Amaier Mendik dioen bezala: "2020ko uztailan entsegu pare bat, kontaktua berrartzte aldera, eta irailean Bilbon ekitaldi bat egin genituen, baina handik aurrera ezer ez". Erakundeek ateratako jarraibideetan, oraintsura arte dantza aipatu ere ez zela egiten dio Mendik: "Bakarrik sentitu gara, existituko ez bagina bezala". Orain, Aste Santu ostean hasi dira entseguen –umeenekin ere berriki–, eta gauzak hartu du beste itxura bat: "Taldea gogoz dago". Izan ere, corpusez gain, urteurreneko ospakizunak amaitzeko irailean egingo duten ekitaldia ere hasi dira prestatzen. Orain arte, pandemia hasi zenetik, arropen erakusketa eta erraldoien jaialdia bakarrik egin ahal izan dituzte. Erraldoiak aipatuta, egubakoitzean –arratsaldean, plazan– eta domekan –goizean plazan eta arratsaldean frontoian– jarriko dituzte salgai *Andre Ederra* eta *Maurixio* panpinak. Azkenik, Corpus bueltakoekin amaitzeko, eguenean, hilak 10, *Neskak, dantzara!* ikus-entzunezkoa emango dute kultura etxean, 2018an neskek lehen aldiz corpusetan dantza egin zutenekoari buruzkoa. 19:00etan izango da, eta sarrera libre, edukiera bete arte.

**Gualbi**  
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA  
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK  
KONTU IKUSKARIAK

*Su ere oñatiarrekin!*

Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com



Ezkerretik eskuinera, Mari Tere Txopitea eta Manu eta Martin Egaña, familia bereko hiru belaunaldi, asteon, parrokiari. M.S.

# Transmisioa, belaunaldiz belaunaldi egindakoa

Domekan ospatuko dute ezohiko Corpus eguna, eta jai erlijioso horri oso lotuta dago Egaña-Txopitea familia. Sendi horretako ama katekisten koordinatzailea da egun, haren semea kofradiako kide da eta bilobak, aldiz, Jaunartzea egingo du aurtan

## Maialen Santos OÑATI

Ezohiko moduan bada ere, domeka honetan ospatuko den Corpus egunari estuki lotuta dago Egaña-Txopitea familia. Balio erlijiosoak belaunaldiz belaunaldi transmititu dira euren etxean, eta egun, Manu Egaña kofradiako kide gazteena da eta haren ama Mari Tere Txopiteak katekisten koordinatzaile lane-

tan dihardu. Biek ala biek azaldu dute aurtengo corpusak "bereziak" izango direla, osasun krisiak hala baldintzatuta.

## Urteko hitzordu nagusia

Duela hiruzpalau urte batu zen kofradiara Egaña: "Aitona taldeko kide zen, eta gure arbasoek zuten espiritualitatea bizitzeko erari jarraipena eman gura izan

niolako batu nintzen ni ere". Gehitu duenez, kofradiako kideentzat urteko "hitzordu nagusia" izaten dira corpusak, eta, aurtan ere, meza nagusian izango direla azaldu du: "Besteak beste, kofradiak izaten du prozesioa antolatzekeo ardura, eta aurtan pena izango da horrelakorik egin ezin izatea. Edozelan ere, meza nagusian parte har-

tuko dugu, kapa beltzak jantzita izango baikara bertan".

## Umeak, prozesioaren parte

Pandemiaren aurretik, urte berean lehen jaunartzea egin zuten haurrek ere hartzen zuten parte meza osteko prozesioan, eta jaunartzea zein prozesiorako umeak prestatzen aritu izan dira urteetan zehar Txopitea eta gaintzeko katekistak: "Aingerutxoak prestatzearen ardura ere guri dagokigu. Esango nuke prozesioaren parte garrantzitsua direla haurrak. Pentsa, nik ere badut aingerutxo atera nintzeneko argazki bat, txikitan".

Prozesioa bertan behera uzteaz gain, aurtengo lehen jaunartzeak atzeratzea ere eragin du pandemiak. Hain zuzen, familia bereko hirugarren belaunaldiko kidea da Martin Egaña, eta, aitaren eta amonaren urratsak jarraituz, aurtan egingo du jaunartzea: "Uztailaren 25ean izango da hori, eta gogotsu nago. Dagoeneko hasita gaude jaunartzea prestatzen; Jesusen bizitza erreparatzen dugu katekiesian, eta baita *Gure aita* errezatu ere, besteak beste".

Gehitu du prozesioan parte hartu ezin izateak ez duela askorik kezkatzen.

## Gurasoen inplikazio beharra

Txopiteak adierazi duenez, balio erlijiosoak hurrengo belaunaldiei transmititzeko orduan gurasoen inplikazioa guztiz beharrezkoa da: "Izan ere, sarri gertatzen da behin jaunartzea eginda erlijioarekiko harremana galduz joatea".

Ildo horretatik, azken urteetan inplikazioa erakutsi duenetako bat da haren semea, Manu, eta katekista lanetan ere badihardu, neska-mutikoeekin: "Hiru urte dira guraso talde batek erronka hori hartu genuenetik. Ikusten genuen betiko katekistak adinean aurrera doazela pixkanaka, eta guraso batzuek hartu genuen haurrak espiritualtasunean hezteko ardura hori".

Hala, maiatza, ekaina eta uztaila emango dituzte seme-alabekin batera jaunartzea prestatzen: "Astero elkartzen gara jaunartzea prestatzen laguntzeko; orain arte egin duten lanarekiko errespetu osoz, eta gure estilo propioari jarraiki".

## Mezarako gonbidapenak, agortuta

Corpus egunari lotutako ospakizun gutxi izango dira aurtan, pandemiaren eraginez. Domekako meza nagusia izango da hitzordu garrantzitsuenak, eta horren osteko prozesiorik ez dute egingo. Edukiera mugak direla-eta 300 lagunek izango dute elizkizunera joateko aukera. "Eguaztenean jarri genituen eskuragai gonbidapenak, eta hogeitun minutuan guztiak agortu ziren", azaldu dute parrokiako arduradunek. Errosarioko Ama eta Mikel Aozaraza santuen irudiak ere izango dira San Migel parrokiari.

Corpusen bueltan, Oñatz dantza taldeko dantzariak ikastetxez ikastetxe arituko dira gaur. Eta domekan, 18:15ean, emanaldia eskainiko dute plazako pilotalekuan, txistulariek lagunduta. Emanaldira joateko, gonbidapenak hartu behar dira aurrez.

# CORPUS JAIK

GOIENA TELEBISTA, 'HEMEN DEBAGOIENA'  
EKAINAREN 7AN, ASTELEHENEAN, 18:00/20:00/22:00

goiena  
Zu hemen zaude.



# Bezero gutxiagorekin, baina jatetxeak beteta

Herritarrak corpusak ospatzeko ilusioarekin daudela nabaritu arren, oraindik "alaitasun falta" sumatzen dela pentsatzen duenik ere badago, eta horrek guztiak eragin zuzena dauka herriko ostalaritzan eta bestelako dendetan eta zerbitzuetan



Herritar batzuk, Foruen plazako tabernen terrazetan eserita. OIHANA ELORTZA


## Amaia Txintxurreta OÑATI

Oñatiarrendako jai bereziak izaten dira corpusak, nahiz eta aurten ere ezin izango dituzten ohiko moduan ospatu.

Familia eta lagun talde askoren ohitura izaten da prozesio ostean tabernetan zerbait hartu, eta gero, jatetxeren batean, elkarrekin gastronomikoren batean edota etxean bertan guztiak elkarrekin bazkaltzea. Aurten, baina, ezin izango dute hori egin. Egun horretarako herriko jatetxeetan dauden erreserbek erakusten dute jendea badagoe-la eguna ospatzeko gogoz, baina, era berean, desberdina ere izango da, ezin izango direlako mahaiaren bueltan lau lagun baino gehiago elkartu. Horrek ere baldintzatu du familiek urteetan egun horretarako egin izan dituzten erreserba kopurua gutxitzea; jatetxeetan egon daitekeen jende muga ere txikiagoa denez aurten, normalean baino bezero gutxiagorekin baina taberna asko beteta egongo dira oraingoan.

Gainera, jatetxeak eta tabernak 00:00ak arte zabalik egon ahal izango dira, eta horrek ekarriko du herritarrek jatetxeetan afaltzeko aukera handiagoa edukitzea eta baita ordu horretara arte tabernetan egotekoa ere.


## Nolako Corpus jaiak izango dituzue aurten?



**LEIRE LAMARIANO**  
GAROJA JATETXEA

### "Jatetxea beteta egongo da, baina jende gutxiarekin"


"Badauzkagu erreserbak, baina, mahaietan gehienez lau pertsonak egon behar dutenez, familia handiak ez dira horrenbeste animatu. Ohikoa baino jende gutxiago har dezakegu oraindik; beteta egongo da jatetxea, baina jende gutxiarekin. Urtero corpusetarako jarri izan dugun menu berezirik ez dugu izango, eta kartatik aukeratu beharko dute bezeroek. Gauerdira arte zabalik edukitzeak afariak emateko abantaila izugarria emango digu, nahiz eta ez diren horrenbeste erreserba egin afaritarako; gehiago izaten da arratsaldean erabaki eta afaltzen gelditzea".



**JONE MARKULETA**  
ONGI TABERNA

### "Jendea, agian, goizago etorriko da terrazetara"

"Aurtengo corpusetako asteburua beste edozein astebururen antzekoa izango dela aurreikusten dugu. Agian, jendea parranda gogoz egongo da eta baliteke goizez hastea tabernetara etortzen. Horrek ekarriko luke jendea ohi baino goizago ibiltzea terrazetan lekua hartzeko, baina ez dugu beste urte batzuetakoa espero. Pozik hartu dugu taberna gauerdira arte zabalik izateko aukera, tabernan beti errespetatzen direlako indarrean dauden arauak. Botila festak egiten diren lekuetan, agian, ez dira segurtasun neurri guztiak betetzen, baina gurean bai".



**JESUS ODRIOZOLA**  
ODRIOZOLA HARATEGIA

### "Aurten ere oso gutxi saldu dugu corpusetarako"

"Iaz, corpusei begira egin genituen salmentak oso txikiak izan ziren, eta aurten ere oso gutxi saldu dugu, pandemia aurretik egun horretarako saltzen genuenarekin alderatuta. Badugu azpizunaren enkarguren bat, baina lehen jatordu berezia izaten zen egun horretakoa etxe guztietan, eta txuleta edota bildotsa ere oso ondo saltzen genituen; lan askoko astea izaten zen. Aurten ere ematen du familiak ez direla elkartuko etxeetan, eta, bigarren urtez hori gertatuta, uste dut ohitura galera ere ekarriko duela etorkizunari begira. Alaitasun falta ere sumatzen dut".



**IZASKUN OLABE**  
IO ILE-APAINDEGIA

### "Berezia izango da biharko eguna, lan aldetik"

"Aste hau berezia izaten ari da, eta, batez ere, bihar, zapatua, igarriko dugu hori. Izan ere, ohiko bezeroez gain, orraztera edota ileari kolorea ematera etorriko direnak ere izango ditugu. Jendeak bazkari bereziak egingo ditu corpusetan, eta horietara polit joan nahi dutela igarri dugu. Batez ere, 60 urtetik gorakoak izango dira etorriko direnak, nahiz eta ezkontza txiki bat ere badaukagun. Jendeak ez dio utzi ile-apaindegira etortzeari, nork bere burua txukun ikusi nahi baitu. Eta bada makillatzeko eskatzen digunik ere; batez ere, begiei ematen diegu garrantzia orain".



*Bagoary korapiloa askatuaz...*



**OÑATI**  
dabilen herria

# Puntu bila jarraitzeko, atsedeen hartzera etxera

**ATLETISMOA** Selekzioen arteko Europako Txapelketan bigarren sailkatu eta gero (4,35), Malen Ruiz de Azuak ez du Panamericano txapelketa jokatu: "Nahiago dut atsedeen hartu eta Espainiako Txapelketa prestatu, hilabete bete dut aurretik"

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Askotan, kartutxoak alferrik erretzen ibiltzea baino komenigarriagoa izaten da atsedeen hartzea. Polonian zilarrezko domina irabazi berritan (4,35), Ruiz de Azuak GOIENARI aitortu zion zalantzati zegoela: Huelvara zuzen bidaiatzea ala etxera itzultzea ziren esku artean zituen bi aukerak, eta Valentzia Sport taldeko kirolariak gurago izan du egun hauek atsedeen hartzeko baliatu: "Astelehen gauean itzuli nintzen Poloniatik, eta, egia esan, hori da halako txapelketek izaten duten gauzarik txarrena, batera eta bestera ibili behar izatea. Hala, Panamericano txapelketan izena eman nuen -atzo, eguna, hasi zuten txapelketa hori, Huelvan-, jakin gabe Europakoan zer-nolako lana egingo nuen, baina pozik geratu naiz Europakoan egindako lanarekin, puntu kopuru polita lortu dut -80 puntu-, eta garbi daukat Huelvara joan izan banintz oso denbora gutxi izango nuela hitzordu batetik bestera erreperatzeko; pare bat egun ez dira gorputzari buelta emateko nahikoa".

Izan ere, Europako Txapelketa absolutuko zilarrezko pozik utzi du atleta arrasatearra: "Ez nuen nahi moduko marka egin, baina txapelketak zuten formatu bereziak zaildu egiten zuten hori, lau nulu bakarrik egin zitezkeelako. Oso pozik nago egindakoaz".

**Hitzorduz betetako hilabetea**

Hala, hitzorduz betetako hilabetea dauka arrasatearrak, eta indarrak dosifikatzea ezinbestekoa da: "Asteburuan Durangora joango naiz, Euskadiko Txapelketara; gero, hurrengo asteburuan, Valentziara joan beharra daukat, liga amaierako jardunaldia izango dut eta klubarekin; eta ekainaren 26ko eta 27ko asteburuan, Espainiako Txapelketa absolutua izango



Ruiz de Azua, joan den zapatuan, Europakoan. EUROPEAN-ATHLETICS.COM

## TOKIOKO OLINPIAR JOKOETAN EGOTEKO PUNTUAK BATZEN DIHARDU MALEN RUIZ DE AZUAK

dugu, Getafen. Hilabete bete izango dut eta indarrak gordetzea komeni zait".

**Olinpiar Jokoetarako puntu bila**

Ruiz de Azuak abuztuan Tokion egingo dituzten Olinpiar Jokoetarako puntuak batzeko lanean dihardu. Dagoeneko atleta kopuru polita lortu du gutxieneko marka: "Baina horiekin batera sei-zazpi atletak puntuazio sistema baten bidez lortuko dute Olinpiar Jokoetarako sailkatzeko txartela, eta hori da helburua. Hala, Europakoan zilarra irabazita, 80 puntu batu nituen. Asteburuan, esaterako, Euskadiko Txapelketan beste 15 puntu eramango ditu irabazleak, eta Espainiako Txapelketan ere puntu kopuru polita egongo da jokoan. Erroka zaila da, baina gure esku dagoena egingo dugu hor egoteko".

## Euskadiko Txapelketa, Durangon

Debagoieneko atletendak gainean daude aire zabaleko hitzordu nagusiak. Oraingo asteburuan bertan jokatu dute, Durangon, Euskadiko Atletismo Txapelketa, eta bailarako zenbait atleta sailkatuta daude. Pertikan, Malen Ruiz de Azuarekin (4,47) batera Maialen Axpe (4,12) atleta arrasatearra ere izango da. 400 metrokoan lehiatuko da Arrasate Atletiko taldeko Ainara Lopez Rubio (01.02); 100 metrokoan izango dira, besteak beste, Ibai Fernandez (10.88), eta Aitor Uranga (11.27). Mikel Agirre luzera-saltoan izango da (6,92); eta 1.500 metroko probarako Aloña Mendiko Jon Presa oñatiarra sailkatu da (04.12).



Eneko Carrascal, joan den astean Anoetan. REAL SOCIEDAD

## Marka 32 zentimetro onduta, Europakora doa Eneko Carrascal

**ATLETISMOA** Marka egin du arrasatearrak Espainia mailan, luzera-saltoan (7,73), eta Tallinnen lehiatuko da

**X.U. ARRASATE**

Badira marka pertsonalak poliki-poliki ontzen dituzten atletak. Aurrerapauso txikiena emateko hilabeteetako lana behar dutenak. Eta gero, Eneko Carrascalen kasua dago. Arrasatekoa kapaz da, asteburuan Gipuzkoako txapelketan erakutsi duen moduan, salto bakarrean marka pertsonala 32 zentimetro ontzeko (7,73), eta marka horrek Euskal Herriko atleta onenen multzoan nabarmenago kokatu du arrasatearra, eta baita Espainia mailako rankingean ere.

Izan ere, 23 urtez azpikoen kategorian, Espainia mailako urteko markarik onena egin du, eta maila absolutuan hirugarren marka onena egin du, era berean. Arrasatekoarekin alderatuta, Eusebio Caceres (8,04) eta Javier Cobian (7,80) bakarrik izan dira aurtengo denboraldian salto luzeagoa egiteko gauza.

Euskal Herrian atleta bakarra dago Arrasatekoa baino marka hobearrekin: 1986an Realeko Javier San Adrianek 7,77 egin zuen, baina arrasatearra lau zentimetro berrira baino ez dago.

Gipuzkoako txapelketan egindako salto horrekin, 23 urtez azpikoen Europako Txapelketan egongo da Carrascal uztailean, Tallinnen (Estonia).

**Beste atletak ere protagonista**

Istar Dapenak ere txapela irabazi zuen, pertikarekin 5,10 metroko saltoa eginda. 100 metrokoan herriko lau ordezkari hartu zuten esku: Aitor Urangak (11.20), Iker Menorrek (11.81), Ander Oterok (11.82) eta Oihan Zuluetak (12.85). Hala, Urangak Arrasateko seigarren marka onena egin zuen. Alex Agiriano eskoriatzarrak ere hobetu zuen bere marka salto hirukoitzean (15,22); lehen, 14,49 zeukan.

## PILOTA Galeano ahizpak ondo dabilta Nafarroako Torneoan

Nagore eta Leire Galeano Nafarroako Torneoan jokatu dabilta, eta domekan hiruko kanporaketa fasean bi partidua irabazita aurrera egin zuten. Gazteen kategorian, lehenengo partiduan, 18-2 irabazi zieten Alize Sagarduri eta Jone Merinori; eta bigarrenetan, 18-10 hartu zituzten mendean Ainzane Ibarrola eta Goiuri Zabaleta.

## PILOTA Udaberriko zenbait partidua gaur Debagoienean

Udaberri Txapelketa barruan, zenbait partidua jokatu dituzte gaur, egubakoitza. 19:00etan hasita, Oñatin, eskuz binakako partidua jokatu dute gazte mailan eta Aretxabaletan (19:00), berriz, senior mailakoan partidua izango da. Bergaran bi partidua jokatu dituzte, 19:45ean hasita, gazte eta nagusien mailakoak.

# Etzi, kadete mailako erlojupekoa Bergaran

**TXIRRINDULARITZA** Poliki bada ere, txirrindularitza denboraldia ere badabil normaltasunera itzultzen. Amateur mailako Gorko Igoera da aurten ibarrean egin den lasterketa bakarra, eta San Antonio sariak hartuko dio erreleboa domekan

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Lokatzak aurten antolatu duen bigarren hitzordua jokatu dute, San Antonio kalean hasita, domekan. 17:00etan, Gipuzkoako kadete mailako erlojupekoa egingo dute, bai gizonezkoen eta baita emakumezkoen kategorietan. Izan ere, ez du zerikusirik beste urte batzuetako lasterketa kopuruarekin, baina amateurekin batera hasi dira kategoria txikiagoetako lasterketak ere itzultzen. Hala, Lokatzako antolatzaileek 120 ziklista inguru espero dituzte irteera puntuan, eta banan-banan irtengo dira: "17:00etan puntuan hasiko da proba, eta 30 segundoko tartearekin abiatuko dira ziklistak Bergarako San Antonio kaletik Antzuolarantz. Han, herrira iritsi baino lehenago dagoen biribilgunea baino apur bat lehenago buelta erdi hartuko dute ziklistek; horrela, saihebidetik Antzuolarako zirkulazioa ez dugu etengo. 2019ko lasterketa denborak begira ibili gara, eta erreferentziak diote azkarrenak 10 minutu pasatxo beharko dituela erlojupekoa egiteko. Gehienak 11 eta 15 minutu artean ibiliko dira", adierazi du Lokatzako Iñigo Larrañagak.

Entrenatzaile bergararrak nabarmendu du klubeko ziklista askok ezin izango dutela esku: "Asko aramioarrak dira, eta horiek Arabako lizentzia daukate. Pena da, baina, tira, Arabako erlojupekoa joango gara horiekin".

**Uzarragako Igoera, 13an**

Pandemia egoeratik martxoan bertan behera utzi behar izan zuten Uzarragako Igoera datorren asteburuan, ekainak 13, egingo dute Peña Ayastuiko lagunek. Antolatzaileek 59 kilometroko lasterketa prestatuko dute, eta, 23. kilometroan Deskarga igo eta gero, Oñatitik bueltan Uzarragako maldei egingo diete aurre ziklistek. Aurreikuspena da lasterketa 12:00etan amaitzea.

**Uztailean hitzordu dezente**

Bestalde, uztailean hitzordu dezente izango dira ibarrean

**AZKARRENAK HAMAR MINUTU PASA BEHARKO DITU ZAZPI KILOMETROKO IBILBIDEA EGITEKO**

txirrindularitzaren bueltan. Aurreikuspena da uztailearen 4an Oñatin kadete mailako lasterketa izatea; uztailearen 10ean, berriz, juniorrak izango dira Oñatin; eta hilaren 11n, Antzuola saria jokatu dute, Lehendakari barruko proba; hurrengo asteburuan, uztaileak 18, Gatzagak hartuko du erreleboa, Euskaldun Torneorako puntuagarria den Dorletako Ama Sariarekin; eta uztailearen 23an, emakumezkoen lasterketa egingo dute Bergaran. Hasiera batean, hori da egutegiak dakarrena; ikusteko dago antolatzaileak proba guztiak egiteko moduan egongo diren.

## Bailarako ordezkariak

Aloña Mendiko Arregi, Beristain eta Zubia proban esku hartzeko moduan egongo dira. Lokatzak, berriz, Errasti eta Garitano antzuolarrak eta Arenaza bergararra izango ditu irteera puntuan. Nesketan, Itsaso Plaza lasterketan izango da.

## Errepide mozketa

Lokatzak gogorarazi du kadete mailako Gipuzkoako erlojupeko proba dela-eta domeka arratsaldean Antzuola eta Bergara arteko bidea itxita egongo dela, 16:30etik 18:30era. Erabiltzaileak, baina, saihebidetik joan ahalko dira Antzuolara.

## Alkideba Ointxe lehen maila nazionalera igo daiteke bihar

**SASKIBALOIA** 'Txisko'-ren mutilek askorik jokoan ez duen Getariakoren kontra neurtuko dituzte indarrak, Iturripen

**X.U. ARRASATE**

Ointxe! klubeko senior mailako bigarren taldeak, Alkideba Ointxe, talde nagusi Mondragon Unibertsitateak egindako urte ona borobildu dezake bihar Iturripen; izan ere, moreek euren eskura dute mailaz igotzea (17:00).

Hain zuzen, arrasatearrek Bigarren Mailatik Lehenengo Nazional Mailara igotzeko txartela dute jokoan, dena aldeko duten partiduan. Orain momentuan, Txisko-ren mutilek bi puntuko abantaila dute -18 puntu- bigarren dagoen Askartza Claretetik (16), eta bihar aurrean izango duten kontrarioak, Getariakok, ez du apartekorik jokoan. Hala, Askartzak ere etxean jokatu dute asteburuan, hirugarren postuan dagoen Ebaki Solutionsen kontra -14 puntu-, eta hor bai, bi talde horien artean bigarren postua egon daiteke jokoan.



Alkidebakoak, erasoan. B. MUÑARRIZ

**Harrobiko talde izaerarekin**

Alkideba Ointxe taldearen helburua ez da horrenbeste mailaz igotzeko borrokan jardutea, eta bai goiko taldearendako harrobilana egitea, baina lorpenak erakusten du hor ere sekulako lana egiten dabilzala.

**MENDI LASTERKETAK**

## Larrea anaiak, Abadiñon nagusi

Domekan jokatu zuten Euskadiko Mendiko Txapelketa, Abadiñon, eta Antzuolako Larrea anaiak nabarmendu ziren proban. Ibai Larrea Aranguren lehen postua eskuratu zuen; anaiak Ekain ere podiumera igo zen, bigarren postuan sailkatuta. 20 urtez azpiko mailan, Euskadiko Atletismo Federazioko elastikoa defendatu zuten antzuolarrek.



JON ARANGUREN

## FUTBOLA Bihar eguerdian Bergara eta UDA aurrez aurre

Ezohiko ordutegian hartuko du bihar Bergarak Aretxabaleta, 12:00etan jokatu dute-eta bosgarren postuagatik lehiazteko partidua. Joan den zapatuan, Bergarak 0-1 irabazi zion Aretxabaletari, Ibai Leizegak egindako gol olinpiko bati esker. Elgoibarren eta Zarautzen artekoa, berriz, Mintxetan jokatu dute, 16:30ean.



Play-off-eko lehen partiduan. GOIENA



Ulmako ziklista bat, 2019ko edizioan. Iaz, bertan behera geratu zen proba. GOIENA



Artean III, hamaika izara erakusketa egin duten artista batzuk, Kulturateko klaustroan. XABIER URZELAI

## Indibidualetik, obra kolektiboa sortzera

Emakume sortzaileen 'Artean III, hamaika izara' erakusketa ekainaren 22ra arte dago Kulturateko klaustroan ikusgai; ekainaren 18an, lan prozesuari buruz jardungo dute Manu Muniategiandikoetxea, Amaia Urzain eta Jone Alaitz Uriarte artistek

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Arrasateko emakume artistak elkartzeko asmoz Ekin Emakumeak Elkarteak 2014an abiatutako egitasmoa da *Artean* erakusketa. Harrezkero, bi urtean behineko maiztasunarekin, hiru bilduma erakutsi dituzte *Artean*, *hamaika emakume artista* izenarekin Kulturateko klaustroan; martitzenean zabaldu zuten

laugarren erakusketa, *Artean III, hamaika izara* izenekoa, eta ekainaren 22ra bitartean izango da ikusgai.

Irekiera ekitaldi ofiziala gaur, egubakoitza, egingo dute, 19:00etan hasita. Ekiñe Casado eta Olatz Urkia musikariak eta Maria Osés idazlea izango dira hamaika artistarekin batera; gonbidapenak agortuta daude.

### Oraingoan, obra kolektiboa

Ekin Emakumeak Elkarteak abiatutako egitasmoak erakusketez gainera eman du bestelako emaitzarik ere; izan ere, handik garatu da *POOK Sormen laborategia*, arte-sorkuntza Debagoieneko hainbat esparrutara zabaltzeko lan egiten duena. "POOKek antolatutako *Alfonbra* izeneko topaketak baliatu di-

tugu jarraikortasunez elkartu eta elkarren sortze prozesua eta interesak lantzeko. Topaketa horietan, artista bakoitzak bere ibilbidea eta sorkuntza erakutsi die besteei, modu praktikoa eta baita teorikoa ere. Martxoaren 8aren bueltan egin izan ditugu orain artean erakusketak, eta aurten egun horretatik urruntzea lortu dugu, urteko beste egun batean ere gure presentzia hor egoteko, eta garaipen moduan bizi dugu hori", azaldu du *Artean III* erakusketaren komunikazio arduradun Miren Barrenetxeak.

Hori horrela, aurreko hiru erakusketekin konparatuta, ezberdina da laugarrena; sortzaileen lan indibidualak beharrean, diziplina askotariko artistek elkarlanean sortutako obra kolektiboa da protagonista. "Instalazio bat da. Honen definizioaren inguruan luze hitz egin genezake, baina, labur esanda, bideogintzak pisu handia du. Sortze prozesuan, unean uneko materialaz baliatu gara; topaketetan sortu dugun materiala, esperientzia eta gogoetak pilatzen joan gara, eta, elur pilota bat balitz bezala, handitzen eta handitzen joan da, azken emaitza sortu arte".

### "Esperimentazioan oinarrituta"

Orain dela hainbat hilabete egin zuten *Alfonbra* topaketako lehen elkartetik azkenera arteko esperientzia artistikoen eta eragiteen lekukoa dela erakusketa azaldu dute artistek: "1,5x2 metroko alfonbraren litsak iruten, 5,62x2,80 metroko izara bihurtu dugu. Hemen gaudela, lanean ari garela eta lanerako espazio bat dugula adierazteko aldarri bihurtu dugu klaustroaren erdian dagoen izara".

## Artistak

Askotariko arte diziplina eta herrietakoak dira.

### Arrasatekoak

- Helena Azkarragariz Jauregi
- Amaia Albes Garitano
- Miren Barrenetxea Iñarra
- Euri Bruña Iturbe
- Lexuri Doyague Loiti
- Joana Manzisidor Akizu
- Sara Miguelez Garitano
- Maddi Urizar Altuna
- Jone Alaitz Uriarte Iriarte

### Bergarakoak

- Amaia Santamaria Andres

### Oñatikoa

- Amaia Martinez de Arenaza Yarza

Era berean, ikusle aktibo baten beharra aldarrikatzen dute erakusketako bultzatzaileek: "Artea ikusi, irakurri, ukitu, entzun eta bizi egin behar da. Gure artearekiko jakintzak, oro har, gizartearenak, oso murriztak dira, eta dena erraz ulertzea espero eta nahi dugu, baina artea pentsatzeko erreminta bezala ulertzen dugu guk, hausnartzeko eta gizaki autonomia eta librea izateko".

### Solasaldia ekainaren 18an

Prozesua gaitzat hartuta eta taldeko Jone Alaitz Uriartek gidatuta, Manu Muniategiandikoetxea eta Amaia Urzain artistek solasaldia egingo dute ekainaren 18an, 18:00etan, Kulturateko Loramendi gelan. Edukiera mugatua izango du.

# RUKULA

GOIENA TELEBISTA, KOOLTUR KONTZERTUAK  
EKAINAREN 4AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

goiena  
Zu hemen zaude.





# Panderoa eta trikitia, ikasgai eta gozagarri

Trikiti eskolen eta elkarten eskutik, askotariko ekitaldiak izango dira ekainean: etzi, hainbat eskolako ikasleek saioa egingo dute Aramaioko Azkoaga auzoan; Oñatin askotariko ikastaroak izango dira; eta Arrasaten, profesionalen pandero jaialdia

**Aitziber Aranburuzabala** ARAMAIO  
Iaz Aramaion egin behar zuten Debagoieneko Trikitixa Eguna, baina pandemiak bertan behera utzi zuen, eta aurten ere, eskola berak hartu du antolatzeko ardura. "Egun osoko ekitaldia egin beharrean, bizi dugun egoerara egokituta, bi asteburutan banatuta bi ekitaldi egingo ditugu", azaldu du Aramaioko Musika Eskolako irakasle Aritz Alustizak, eta zera gaineratu: "Herriko, Arrasateko, Bergarako, Oñatiko eta Soralezeko trikiti eta pandero ikasleen emanaldia izango da etzi, domeka, 12:00etan Azkoaga auzoan. Taldeka joko dute, herri bakoitzeko ordezkariak hogeita hamar inguru, eta askotariko piezak izango dira, formatu eta tresna ezberdinekin. Gonbidapenak dagoneko agortuta daude".

Irakaslea, Aritz Alustiza, igoko da taularen gainera ekainaren 12an, Emon taldearekin frontoian eskainiko duen kontzertuan. Geldialdi baten ostean, otsailean abiatu zuen taldeak Bergarako Seminarixoan bidaia berria, eta "ilusioz daude" areto kanpoko emanaldiak estreinatzeke. Arrasateko Trikitixa Eskolako kideak dauden Neomak taldeak ere joko du. Sarrerak dagoneko eskuragarri daude



Eskoriatzako Zaldibar antzokian Neomak taldeak egin zuen kontzertua. I. S.

**Emon-Neomak-Aramaio.** *Eventbrite.es* atarian, bost eurotan. Kontzertuaz gain, jaialdia egingo dute, 12:00etan, kultura etxean, eta perkusio, kantu eta irrintzi tailerra, 16:00etan hasita.

**Arrasaten, Neomak eta gehiago**  
Martxoan Amaia antzokian egin zuten eskolako pandero jaialdian taularen gainean izan ziren Neomak taldeko kide Amets Ormaetxea, Leire Etxezarreta eta Irati Gutierrez, euren eskola berekoen aurrean musika bizipenak kontatzen. Oraingoan,

kantuan eta panderoarekin eta bestelako tresna askorekin izango dira ekainaren 20an toki berean egingo duten pandero jaialdian. Izen entzutetsuekin osatu dute egitaraua.

**Ikastaroak eta ikuskizuna**  
Oñatiko Lizargarate Trikitizale Elkarteak antolatuta, panderoari buruzko lau ikastaro egingo dituzte, bihar hasita, baina beteta daude toki guztiak. Ekainaren 26rako, berriz, herriko dantzariarekin eta bertsolariarekin ikuskizuna ari dira prestatzen.

## Askotariko ekitaldiak datozen asteetan

### Aramaion

- **Debagoieneko Trikitixa Eskolako ikasleen saioa**  
Domekan, 12:00etan, Azkoaga auzoan. Sarrerak, agortuta.
- **Emon eta Neomak taldeen kontzertua** Ekainaren 12an, 18:30ean, frontoian –eguraldi txarra bada, barruan–. *Emon-Neomak-Aramaio*. *Eventbrite.es* atarian eros daitezke sarrerak: bost euro.

### Arrasaten

- **Pandero jaialdia** Parte hartuko duten musikariak: Neomak taldea, Elizagoien ahizpak & Osas-Leuza anaiak, Izer (Iosu Arrizabalaga) eta Eneko Dorronsoro, KHAMI (Iraide Ansorena) eta AMAK taldea. Ekainaren 20an, 18:00etan, Amaia antzokian. Sarrerak *Arrasate.eus* atarian erosgai, hamar eurotan.

### Oñatin

- **Panderoari buruzko askotariko ikastaroak** Ekainaren 5ean, 12an eta 19an. Edukiera, beteta.
- **'Hauspotu bizitza!' saioa** Herriko trikitilariak, dantzariak eta bertsolariak sortutakoa. Ekainaren 26an, 17:00etan, Santa Ana antzokian. Sarrerak, ekainaren 25ean eta 26an Foruen plazan eskuragarri.

## Goiena Klubaren txokoa

### Hauek dira maiatzeko irabazleak!

#### ERRIGORAKO SASKIA

Ane Miren Etxebeste Goikoetxea (Bergara)

#### HARREMAN DENDAKO OTARREA

Maitane Arizabaleta Astiazaran (Bergara)

#### ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK

Ezoz Alberdi Brufia (Bergara)  
Nuria Barrero Jimenez (Bergara)  
Maialen Egues Ergialde (Arrasate)

#### BI PERTSONARENDAKO OTORDUAK

Miren Uribe-Etxebarria Beloki (Eskoriatza)  
Izaskun Gutierrez Cillaurren (Aretxabaleta)

#### GOXO GOXUA GOZOTEGIAREN TARTA

Roberto Irizar Aizelai (Oñati)

#### 'AROUND THE WORLD' IKUSKIZUNERAKO SARRERAK

Maribel Garro Gorosabel (Arrasate)

#### 'LURRUN MINEZ' IKUSKIZUNERAKO SARRERAK

Angel Elkoro Aranberri (Bergara)

#### IDOIA ASURMENDIREN KONTZERTURAKO SARRERAK

Aiora Beristain Madariaga (Bergara)

#### SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutza sarrerak, Goiena Kluba bertako eskolako bina sarrera izango dituzten Arrikrutza txarteldagor. Sarrerak hiru hilebeteko epemuga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBETA**, Aretxabaleta, Oñati, 943 25 05 05. Oñatiko: ezozozko gainera 10:00 - 17:00 (sarrerak dituzten hiru egiteko) Harreman dendako otarra: **Otarrea** jasotzeko, bi eurotan, bidaia bidelekin. Harreman dendako Arrasateko Goxo Goxua jasotzeko duen dendak: **Errigorako saskia** jasotzeko, ezoz GOIENAREN egitaraua. Saria jasotzeko: **SARRERAK** jasotzeko, Aretxabaleta DA 3300. ZINBARRUA ezkerrean ematen behar da. **GOIENA** Oñatiko Lorentzietan 31. Arrasate, 943 25 05 05. Oñatiko: ezkerreko egitaraua 09:00 - 18:00. Egubakoitzean: 08:00 - 14:00.

### Irabazi bi lagunendako sarrerak

#### EZH festibaleko antolakuntzari esker

EZH festibalerako bi sarrera zozketatuko ditugu.

Irizarri | uztailaren 2tik 4ra

#### PARTE HARTZEKO: EKAINAK 20

E-postaz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) / WhatsApp: KLUBA "Kontzertua"  
[bazkidearen zenbakia] 888 69 00 07 zenbakira.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen LFPI 15/1995 legearen arabera jaiaren ondoren zozketaren parte-hartzaileei zozketaren irabazlearen izena zozketatuko da. Zozketaren irabazlearen izena zozketaren ondoren zozketaren irabazlearen izena zozketatuko da. Irabazlearen izena zozketaren ondoren zozketaren irabazlearen izena zozketatuko da. Irabazlearen izena zozketaren ondoren zozketaren irabazlearen izena zozketatuko da. Irabazlearen izena zozketaren ondoren zozketaren irabazlearen izena zozketatuko da.

### Irabazi bi lagunendako otordua

#### ZUMELAGA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!  
Parte hartzeko azken eguna: ekainak 8

943 25 05 05 | [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) | "goiena app"-a / zozketa atalean.

KLUBA Jateak  
[bazkidearen zenbakia] 888 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



DESCARGATU GOIENA APP BERRIA!

BAZKIDETZA KUOTA: 30€  
Deitu: 943 25 05 05 • [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Bergara.** Etxebizitza salgai Matxiategi kalean. Berrituta dago. Hiru logela dauzka eta hauetako bat insonorizatuta dago. Sukaldea, egongela eta komuna. Sotoa dauka eta igogailua ere bai. Dena kanpoaldera begira eta eguzkitsua. 128.000 euro. 634 45 30 97

## 102. EROSI

**Baseri bila Oñatin.** Baseri bila gabiltzen Oñatiko familia bat gara. Baseria saltzekotan bazabiltza, edo informaziorik izanez gero, deitu edo idatzi telefono zenbaki honetara: 653 01 71 65

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Errentan hartzeko etxe bila dabilen familia bat gara. Telefonoa: 633 68 35 76

**Bergara.** Bergarako neska bat naiz eta etxebizitza behar dut errentan. Pre-sazkoa da. 690 75 61 18

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Eskoriatza.** Soziosanitario titulua duen neska euskalduna behar dugu pertsona nagusiak zaintzeko. Autoa ezinbestekoa. Informatzeko idatzi Whatsapp mezua edo deitu zenbaki honetara: 680 50 82 75

## 402. ESKAERAK

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke, gozetan. Telefonoa: 642 41 72 62

**Arrasate.** Asteburuetan ospitalean dauden pertsonak zaintzen lan egiteko prest nago. 608 80 33 82

**Arrasate.** Egunean zehar nagusiak zaintzeko nitzuke. Titulazioa eta legezko agiriak dauzkat. Telefonoa: 682 31 97 37

**Arrasate.** Erizaintza ikasten dagoen Arrasateko neska euskalduna, uztailan umeak zaintzeko prest. 617 17 37 01

**Arrasate.** Garbiketarako egingo nitzuke, orduka. 615 06 28 04

**Arrasate.** Orduka etxeko lanak egiteko gertu nago, zapatu arratsalde edo domeka gozetan. Telefonoa: 685 77 66 21

**Bergara.** Laguntza soziosanitariorako ziurtagiria duen pertsona arratsaldetan edota asteburuetan pertsona nagusiak zain-

tzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. Telefonoa: 688 74 00 14

**Bergara.** Pertsona helduak zaintzen edo sukaldari laguntzaile bezala lan egiteko prest. Edozein ordutegi. 622 85 61 22

**Bergara.** Lehen Hezkuntzako ikasketak ditut eta uda honetan umeak zaintzeko prest nago. Haurrak zaintzen esperientzia daukat. 688 84 99 79 edo 610 49 48 47

**Debagoiena.** Arratsalde pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen neska bat naiz. 688 81 08 63

**Debagoiena.** Asteburuetan nagusiak zaindu eta orduka denetarik garbiketarako egingo nitzuke. Telefonoa: 632 25 27 26

**Debagoiena.** Edozein lanerako prest nago. Egun osoan zehar, goizez, gauzez. Titulazioduna eta esperientzia handikoa naiz. 688 62 06 22

**Debagoiena.** Garbiketa eta lisatze lanetan, edo ume, nagusi eta gaixoak zaintzen lan egingo nuke. Baita ospitalean ere. Telefonoa: 611 24 26 64

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Orduka goizez, arratsalde edo gauzez. Soziosanitario titulua daukat. 612 53 92 72

**Debagoiena.** Garbiketan eta ume zein nagusien zaintzan lan egingo nuke. 632 91 23 61

**Debagoiena.** Hainbat lanerako prest dagoen mutila; pertsona nagusien zaintza, garbiketa lanak, sukaldari lanak. Telefonoa: 643 48 73 46

**Debagoiena.** Harategian, tabernan, pertsona nagusiak zaintzen. lan egiteko prest nago. Eskarmentu handia daukat. Baita erabateko prestasuna ere. 642 90 41 05

**Debagoiena.** Ikasketak soziosanitariorako, sukaldaritzako oinarriko ezagutzak eta garbitasun esperientzia dauzkat. Lanaldi partzialeko edo osoko lan bila, mendeko pertsonak zaintzeko. Telefonoa: 642 98 98 06

**Debagoiena.** Lan egingo nuke, astean zehar etxean bertan bizi izaten, garbitzaile gisa, haurrak eta nagusiak zaintzen eta abar. 612 28 42 74

**Debagoiena.** Legezko agiriak eta lanerako ziurtagiria daukan neska ar-

duratsua egunean zehar nagusiak zaintzeko gertu. 662 02 45 80

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. 617 20 79 97 edo 642 59 66 96

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. 612 41 02 49

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke, lanleku zein etxean. Formazioa eta legezko agiriak dauzkat. 632 83 32 44

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. Soziosanitario titulazioa eta berehala hasteko prestasuna. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Telefonoa: 632 79 91 43

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten, gauzez eta asteburuetan. Baina egun osoa izaten bada ere, ondo. Telefonoa: 626 91 49 04

**Debagoiena.** Neska bat gertu, astelehenerik ostiralera gauzez eta asteburu eta jai egunetan, nagusiak zaintzeko. Soziosanitario titulazioa dut. Telefonoa: 647 31 48 17

**Debagoiena.** Neska euskalduna lanerako gertu: umeak zaintzen, dendan, lantegian, tabernan edo bestelako edozein lanetan. 656 79 28 37

**Debagoiena.** Neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko edota etxeko garbiketarako. Ordu-tegi aukera guztiak. Telefonoa: 643 59 76 06

**Debagoiena.** Nikaraguako mutila gertu asteburuetan nagusiak zaindu, baserriko lanak egin eta abarretarako. Telefonoa: 631 79 31 92

**Debagoiena.** Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izanda lan egingo nuke. Soziosanitario titulua daukat. Telefonoa: 611 18 91 55

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen jarduteko prest dagoen neska arduratsua naiz. Soziosanitario titulua daukat. Telefonoa: 611 18 91 55

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindzen lan egin nahi dut. Orduka, egunean zehar edo asteburuetan.

### Odontologoa behar da Abadiñoko Hagin klinikan.

Odontologia orokorra egiteko. 15 orduko lanaldia. Euskaraz jakitea baloratuko da. Esperientzia beharrezkoa. Aldi baterako kontratua, luzatzeko aukerarekin. 676 10 51 36

Interesatuok deitu zenbaki honetara: 662 02 45 80

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke, erabateko prestasuna daukat. Telefonoa: 604 37 70 41

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan eta garbiketa lanetan esperientzia handia daukat. 612 20 35 71

**Debagoiena.** Soziosanitario eta legezko agiriak dituen emakumea prest nagusiak zaintzeko. Astelehenerik ostiralera, asteburuetan eta baita jai egunetan ere. Deitu 647 31 48 17 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Soziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusiak zaintzen edota garbiketa lanetan egingo nuke lan. Orduka edo etxe barruan bizi izaten. 643 73 62 36

**Debagoiena.** Zaintza lanak egingo nitzuke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Telefonoa: 604 37 70 41

**Debagoiena.** Zaintzaile lanak egingo nitzuke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Esperientziarekin. 637 05 96 07

**Debagoiena.** Zaintzan lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten. Legezko agiriak dauzkat. Telefonoa: 602 12 79 79

**Udan haurrak zaintzeko.** Kaixo! Magisteritza ikasten dabilen 20 urteko neska langile eta inplikatu naiz. Uztailan eta abuztuan umeak zaintzeko interesa eta prestutasuna izango nuke. Harremanetarako eta gehiago jakin nahi izanez gero, jarri zenbaki honekin kontaktuan: 689 09 09 97

## 7. ANIMALIAK

## 703. EMAN

**Katakumeak.** 3 katakume aurkitu ditugu kalean eta hauentzat jabe bila gabilta. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 691 83 10 72

## 8. DENETARIK

## 801. SALDU

**Lursailak.** Lursailak salgai eta errentan ematen dira Aretxabaletan. Telefonoa: 618 76 34 40

## 802. EROSI

**Lursaila Oñatin.** Lursail bat erosiko nuke Oñatin. 671 24 27 21

## OROIGARRIA



### Anjel Urzelai Ganboa

'Elordui'  
2016ko ekainaren 1ean hil zen, 56 urte zituela.



### Pepita Telleria Oria

2016ko maiatzaren 18an hil zen, 92 urte zituela.

*Bizi garen artean gure bihotzetan eramango zaituztegu.*

Etxekoak.

Oñatin, 2021eko ekainaren 4an.

## ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

### RUKULA TALDEAREN ZUZENEKOA

'Kooltur Domekak' Egubakoitza, 21:30 eta 23:30



GOIENA

### OÑATIKO CORPUS EGUNGAREN ERREPASOA

'Bereziak' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00

## ASTELEHENA, 7

### KADETE MAILAKO ERLOJUPEKO PROBA

'Harmailatik'

21:30/23:30

## MARTITZENA, 8

### AINTZANE OIARBIDERI ELKARRIZKETA

'Harira'

21:30/23:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: [goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista) Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## EGUAZTENA, 9



GOIENA

### SAGRARIO ALEMANI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketa'

21:00/23:00

## EGUENA, 10

### EGUNeko ALBISTE NAGUSIAK

'Albistegia'

15:00/16:00/17:00

## IRAGARKIA JARTZEKO:


943 25 05 05


SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguaztenezko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ESKER ONA



**Jose Luis Pagalday Garitano** 

2021eko maiatzaren 27an hil zen, 80 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran (Angiozar), 2021eko ekainaren 4an.

OROIGARRIA



**Itziar Eraña Etxeberria** 

2021eko maiatzaren 27an hil zen, 60 urte zituela.

*Atzera begiratzeak min egiten digu eta aurrera begiratzeak bildurtzen gaituenean, ezker edo eskubira begiratuko dugu eta hor egongo zara, gure ondoan.*

Zure lankideak.  
Arrasaten, 2021eko ekainaren 4an.

OROIGARRIA

**Itziar Eraña Etxeberria** 


2021eko maiatzaren 27an hil zen, 60 urte zituela.

*Eskerrik asko lagundu diguzun guztiagatik, beti izango zaitugu gogoan.*

**goiena**

Goiena Aseguru Artekaritza SL  
Arrasaten, 2021eko ekainaren 4an.

ESKER ONA

**Jesus Osinaga Leibar** 

2021eko maiatzaren 27an hil zen, 75 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2021eko ekainaren 4an.

OROIGARRIA

**Jesus Osinaga Leibar** 

2021eko maiatzaren 27an hil zen, 75 urte zituela.

*Oron San Martin zenuen, gotorleku sakratuena. Sagardoak egiten zenuen, inguruetan goxoena.*

*Loramendik ez du ahaztuko, bere kiderik onena. Leintz Bailarak galdu du, bere maitale fidelena.*

**Q loramendi**

Aretxabaletan, 2021eko ekainaren 4an.

OROIGARRIA

**Jesus Arregi Irastorza** 

2013ko ekainaren 7an hil zen.

*Hegoak ebaki banizkio nerea izango zen, ez zuen aldegingo. Bainan, honela ez zen gehiago txoria izango.*

Antzuolan-Urretxun, 2021eko ekainaren 4an.

ESKER ONA



**Maribel Laskurain Ayastuy** 

2021eko maiatzaren 31n hil zen, 67 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2012ko ekainaren 4an.

OROIGARRIA



**Maribel Laskurain Ayastuy** 

2021eko maiatzaren 31n hil zen, 67 urte zituela.

*Nahiz eta gure artekin urrutira joan, beti izango zara gure bihotzetan.*

Laskurain lehengusu-lehengusinak.  
Bergaran, 2021eko ekainaren 4an.

OROIGARRIA

**Fabian Etxebarria Berezibar** 


'Montxon'


2021eko maiatzaren 31n hil zen, 94 urte zituela.

*Montxon baserrikoa Kanpanzarko hargina Mari Tere izan dozu adiskide fina biharra eta ardura ekinaz egina aitajau bihotzian betiko bazina.*

Etxekoak.  
Arrasaten, 2021eko ekainaren 4an.

ESKER ONA



**Paco Hermosilla Vadillos** 

2021eko maiatzaren 26an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko ekainaren 4an.

OROIGARRIA



**Jose Javier Manso Larreina** 

'JJ'

*Ohore handiz, bihotz-bihotzez. Agur, Jose Javier, beti arte.*

Zure betiko San Antonioko lagunak.  
Bergaran, 2021eko ekainaren 4an.

**Oroilore** BADESLEA

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango dute agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beroenak gudan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.*

**Ion, Mario, Iban eta Maribi**

*Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA  
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37*



## TXUTXU-MUTXUAK



## Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

### Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

### 1. Gaua pasatzera Galartzara

Arrexabaletako Basabeazpi guneko 5 urteko neska-mutikoei ikasturte bukaerako bidaia egin zuten. Etxetik kanpo lo egin eta askotariko ekintzak egin zituzten.

### 2. Arteaz disfrutatzen

Arrasateko Margo Taldekoek euren lanak ipini zituzten ikusgai aurreko zapatuan, eta herritarrek adi-adi begiratu zieten olio, akuarela eta akriliko lanei.

### 3. Donostiara egun-pasa

Oñatiko Urgain eskolako laugarren mailako ikasleak Eureka zientzia museoan egon ziren, goizean; eta, eguraldia lagun, Ondarretan ere egon ziren, jolasean.

### 4. Landareak eta zuhaitzak ezagutzen

Seigarrenegoz egin zuten, aurreko asteburuan, *Naturan jolasean* ekimena Arrasaten. Herriko landareak, loreak eta zuhaitzak ezagutzeko aukera izan zuten helduek eta umeek.

### 5. Bihar ezkonduko dira

Ion eta Maider oñatiarrak udaletxean ezkonduko dira, etxeko konpainiarekin. "Familien eta lagunuen izenean, egun ederra izan ezazue. Zoriontsu izan zaitezte!".

## ZORION AGURRAK

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak


Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik argitaratuko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



ARRASATE  
**Aiora eta Alaia Murgoitio**  
Ekainaren 8an, 7 urte. Zorionak, bikote!  
Ondo-ondo ospatu zuen urtebetetze eguna eta besarkada handi bat familia osoaren partetik!



ARRASATE  
**Julen Alonso Tena**  
Ekainaren 7an, 6 urte. Zorionak, Julen!  
Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat etxeko guztion partetik!



OÑATI  
**Lur Ruiz Martín**  
Ekainaren 6an, 13 urte. Zorionak, Lur!  
Oso ondo pasatu zure eguna! Muxu asko etxeko guztien partetik. Bereziki, Hodei, aitaixo eta amatxo.



ARRASATE  
**Alaitz Bergaretxe Aldazabal**  
Ekainaren 6an, 15 urte. Zorionak eta urte askotarako!  
Ondo pasatu eguna. Aitaren partetik.



GASTEIZ  
**Luzia Urigoitia Cantabrana**  
Ekainaren 6an, 8 urte. Zorionak, Luzia zure 8. urtebetetzean. Egun polita eta alai izan. Zure aita Unai, ama Izaskun, anaia Eder, lehengusu-lehengusina Irati eta Endika, Karlos eta Jose Ramon aitteitek, Enkarna eta Begoña amamak eta beste senideen partetik.



ARETXABALETA  
**Alain Rodríguez Arca**  
Ekainaren 5ean, 8 urte. Zoriontasunez betetako egun alai-alai pasa ezazu eta jaso, amatxoren eta aitaixoren partetik, muxu mordoa.



ARRASATE  
**Jon Bereziartua Zabala**  
Ekainaren 5ean, 6 urte. Zorionak, potxolo! Sei urte munduari irribarre egiten, sei urte guretzako bizipoz iturri izaten. Segi horrela, polit hori!




BERGARA  
**Amets Uribesalgo Uzin**  
Ekainaren 5ean, 7 urte. Zorionak, txapeldun! 7 urte jada. Ze azkar pasatzen dan. Fenomenu pasatuko dogu zure urtebetetze eguna. Zorionak familia osoaren eta, batez be, Egoitz, aitaixo eta amatxoren partetik. Patxo potolo bat zuretzat, maitia.



BERGARA  
**Enara Arrillaga Urbieta**  
Ekainaren 5ean, urtebete. Zorionak, sorgintxo!  
Jarraitu beti bezain alai izaten! Aitaixo, amatxo eta familia osoaren partetik, muxu erraldoi bat!



BERGARA  
**Ekaitz Calvo Urdanpilleta**  
Ekainaren 3an, 5 urte. Zorionak, txapeldun!  
Ondo-ondo pasatu zure eguna!  
Arhane, amatxo eta aitaixoren partetik.




BERGARA  
**Haizea Mujika Beistegi**  
Ekainaren 2an, 11 urte. Zorionak, maitxia!  
Ondo pasatu zure egunean eta muxu handi bat. Unax, aitaixo eta amatxoren partetik.




BERGARA  
**Ruben Hidalgo**  
Maiatzaren 31n, 36 urte. Zorionak, aita!  
36 urte ez dira egunero betetzen!  
Egun zoragarria pasatu! Hugo eta ama.



ARRASATE  
**Jurgi Iraola**  
Maiatzaren 31n, 19 urte. Zorionak, Jurgi!  
Gozatu eguna eta patxo bat zure etxekide eta lagun onenen partetik.



ARETXABALETA  
**Mare Eskibel Oialde**  
Maiatzaren 31n, 3 urte. Zorionak, politx hori! Familixako danon partetik, patxo handi bat!



ARRASATE  
**Danel Roa**  
Maiatzaren 31n, 24 urte. Aiba! Txori bat? Saguzar bat? Batman? Ez! Danel da, gure superheroia! Zorionak kuadrillaren partetik!



ARRASATE  
**Haizea Errasti Canales**  
Maiatzaren 29an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Muxu asko etxeko guztien eta bereziki, Markel, Aitor, June eta Alazneren partetik.



BERGARA  
**Imanol Unamuno Unamuno**  
Maiatzaren 26an, 6 urte. Urte askotarako, txabalin! Ondo-ondo pasatu eguna. Familia danaren partetik!

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 4

**OÑATI Corpus dantzak ikastetxeetan**Oñatz taldearen eskutik. *Ikastetxeetan, 09:00etan.***ELGETA 'Ipuinen ordua'**HH-3 eta HH-4 mailetako neska-mutikoendako, kontalari boluntarioen eskutik. *Liburutegian, 17:20etan.***ARAMAIO 'Kantuz kalean'**Musika Astearen baitan. *Parkean, 17:30etan.***ARRASATE Ipuin kontaketa, Lur Kortarekin**3-4 urte arteko umeendako. Aurrez eman behar da izena. *Kulturaten, 18:00etan.***ARAMAIO 'Las brujas se Salem' antzezlan**Eskoriatzako Ausartak antzerki taldearen eskutik. *Kultura etxean, 19:00etan.***ANTZUOLA 'Erresistentzia arazo fisikoa da' antzezlan**Maite Aizpurua aktoreak zuzentzen eta antzeztzen duen lana. Debalde, baina aurrez eman behar da izena. *Torresoroan, 19:00etan.***ESKORIATZA 'Alex Txikon' dokumentala***Mundu bat motxilan* liburuan oinarritutako ikus-entzunezkoa. Alex Txikon eta Unai Ormaetxea egongo dira. Gonbidapenarekin. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

## ZAPATUA 5

**ARRASATE 'Burdin Aroa-Erdi Aroa: Arrasate Erdi Aroko hiribildua' bisita gidatua**10:30ean euskaraz eta 12:30ean gazteleraz. *Herriko Plazan, 10:30etan.***BERGARA Oinarrizko argazkilaritza ikastaroa**Gehienez, hamabi lagun. Izena emateko: *uberaberpiztutaldea@gmail.com*. *Uberako elizan, 10:30etan.***ANTZUOLA 'Berdintasuna kalera!' ekimena**Herriko Berdintasun Planaren baitan, galdetegia ipiniko dute herritarren eskura. *Herriko Plazan, 11:00etan.***ARRASATE Bertso saioa***Unai Parot. 31 urte espetxean* ekimenaren baitan, Jone Uria, Miren Amuriza eta Maddalen Arzallus bertsoan. Ane Zuazubiskar izango da gai-jartzailea. *Monterron parkean, 12:00etan.***LEINTZ GATZAGA Muralismo tailerra**Lehenengo pausoa bozetoak egitea izango da. Hurrengo bi zapatuetan pareta margotuko dute. *Kultura etxean, 17:00etan.***ARRASATE 'Artean IIII, hamaika izara' erakusketa**Emakume sortzaileen lanak ikusteko aukera, hilaren 22ra arte, Ekinen eskutik. *Kulturaten, 17:30etan.***ARETXABALETAKO '300 baietz!' erronka**Aretxabaletako Sarek deituta, Izan Bidea ekimenaren baitan. Aterkiekin mosaiko bat egin gura dute. *Futbol zelai txikian, 17:30etan.***ARAMAIO Harpa eta zeharkako txirula kontzertua**Musika Astearen baitan. *Kultura etxean, 18:30etan.***BERGARA Lorenzo Askasibarren erakusketa**Egurrezko, brontzezko eta harrizko eskulturak ikusteko aukera. *Aroztegin, 18:00etan.***ESKORIATZA 'Las brujas se salem' antzezlan -sarrerak agortuta-**Ausartak taldearen eskutik. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

## DOMEKA 6

**ARRASATE 'PR-GI 205, Anporreta bira: burdinaren bidea' mendi ibilaldia**Aurrez eman behar zen izena. *Herriko Plazan, 10:00etan.***BERGARA Hamar kilometroko ibilaldia**Izan Bidea ekimenaren baitan ibilaldi laua egingo dute. *Torrekuako autobus geltokian, 10:00etan.***ARAMAIO Debagoieneko trikitilarien emanaldia**Musika Astearen baitan. *Azkoaga auzoan, 12:00etan.***OÑATI Corpus eguneko meza**Kofradiako kideek, parrokiako abesbatzak eta Oñatzeko dantzariak hartuko dute parte. *Parrokian, 12:00etan.***BERGARA Lorenzo Askasibarri omenaldia**Ekitaldian parte hartzeko gonbidapena behar da. *Udaletxean, 13:00etan.***BERGARA Beart eguna**Izal huts egin ostean, Bearteko kideek euren lanak ipiniko dituzte ikusgai eta salgai. *Irala kalean, 12:00etan.***BERGARA 84. San Antonio ziklismo saria**Kadete mailako Gipuzkoako txapelketa, erlojuaren kontra. *San Antonio auzoan, 17:00etan.***ARRASATE 'Internazionalistak garelako, lehen urratsa Euskal Herria' hitzaldia**Askapenako kideek egingo dute berba. Edukiera mugatua. *Gaztetxean, 18:00etan.***OÑATI Corpus Dantzak**Oñatzen eskutik. Debalde, baina sarrerak aurrez hartu behar dira, Txokolateixan edo leihatilan. Eguraldi txarra bada, Zubikoan. *Plazako frontoian, 18:15ean.***ARAMAIO 'El piano' filma**Ikusiz Gozatu elkartearen eskutik, eta Musika Astearen baitan. *Kultura etxean, 19:00etan.***ESKORIATZA '¿Hay alguien ahí...?' antzezlan**La Farandula de Elburgo taldearen eskutik, gazteleraz. Sarrerak, bost euro. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

MAITE AIZPURUA

**ANTZUOLA 'Erresistentzia arazo fisikoa da' antzezlan**Maite Aizpurua aktoreak zuzentzen eta antzeztzen duen lana. Egutero korrika ibiltzeak dituen alde onak eta txarrak, umore ukituarekin. Debalde, baina aurrez eman behar da izena. *Gaur, egubakoitza, Torresoroan, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 7

**ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea**Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.***ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea**Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.***BERGARARA Pentsiodunen elkarretaratzea**Pentsio duinak eskatzeko. *San Martin plazan, 12:00etan.***OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**Pentsio duinak eskatzeko. *Foruen plazan, 12:00etan.***ARRASATE Biolin eta biola kontzertua**Arrasate Musikaleko ikasleen emanaldia. *Kulturaten, 18:00etan.*

## MARTITZENA 8

**ARRASATE 'Sexualitatea haurtzaroen eta nerabezaroen' hitzaldia**Gaur, 12-16 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoendako. Aurrez eman behar zen izena. Hitzaldi zikloaren azken berbaldia da gaurkoa. *Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 17:00etan.***ESKORIATZA Odol ateratzea**Segurtasun neurriekin. *Fernando Eskoriatza plazan, 12:00etan.***ARAMAIO Tantai Baso Jabe kooperatiba proiektuaren aurkezpena**D2030 garapen iraunkorrerako sarearen eta Errez kooperatibaren eskutik, basoak modu errentagarrian, jasangarrian eta bateratuan landuko dituen egitasmoa. *Kultura etxean, 18:00etan.***OÑATI 'Lesboseko begietatik' erakusketa**Yousef Alshewaili argazkilaririk irakiarrek Greziako Lesbosko uhartearen ateratako argazkiak ikusgai, hilaren 19ra arte. *Eltziako topagunean, 18:00etan.***BERGARA 'Wolframa. Diktadoreen arteko kontrabandoa' liburuaren aurkezpena'**Rosa Arburua egilea egongo da ekitaldian, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak eta Laboratoriumek gonbidatuta. *Seminarixoan, 18:00etan.*

## EGUAZTENA 9

**ARRASATE Argazki ikastaroa**

Francisco Miguel Jimenezek emango du ikastaroa, Nagusien Kontseiluak gonbidatuta. Hiru saio egingo dituzte: gaur, lehena. Beste

biak izango dira hilaren 15ean eta 22an. Edukiera mugatua.  
**Nagusien Kontseiluaren lokalean, 10:00etan eta 16:00etan.**

### OÑATI Selma Huxley Ikerketa bekaren bigarren liburua

*Bizitzak erdigunean: Oñatiko zaintzaileen genealogia feminista bat 1950-2020* delako liburua aurkeztuko dute, 11:00etan eta 18:00etan. Edukiera mugatua.  
**Zinema aretoan, 11:00etan.**

### ARRASATE Sasoibide irteera, mendira

Elkartzen diren artean erabakiko dute nora joan.  
**Seber Altuben, 16:00etan.**

### ARETXABALETA 'Ibilgailu elektrikoak eta mugikortasun jasangarrirako aukerak' tailerra

Ordu eta erdiko tailerra.  
**Online, 18:00etan.**

### ESKORIATZA 'Ibilgailu elektrikoak eta mugikortasun jasangarrirako aukerak' tailerra

Ordu eta erdiko tailerra.  
**Online, 18:00etan.**

### BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baserriarren garaiko produktuak erosteko aukera.  
**Oxirondon, 18:00etan.**

### ARRASATE 'Ludopatía: cuando ya no es un juego' hitzaldia

Jokalari Anonimoen Elkarteko psikologo Karmele Gurrutxagak egingo du berba, gaztelaz.  
**Kulturaten, 18:30ean.**

### BERGARA Kukubaso elkartean batzar irekia

Edukiera mugatua.  
**UNEDen, 18:30ean.**

### BERGARA 'First cow' pelikula

Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpitu-tuluekin. Sarrerak, hiru euro.  
**Arrasate Musikalen, 19:15ean.**

### ARETXABALETA 'Magia parrastan' magia ikuskizuna

Ituiño magoren eskutik, saio parte-hartzailea, dinamikoa eta magikoa.  
**Iralabarri plazan, 19:00etan.**

### ARRASATE Akordeoi kontzertua

Arrasate Musikaleko ikasleekin.  
**Arrasate Musikalen, 19:15ean.**

## EGUENA 10

### ARRASATE Sasoibide irteera

Andra Mari Zurirainorako joan-etorria egingo dute.  
**Seber Altuben, 10:00etan.**

### ANTZUOLA 'Antzuolako kaleen historia' bisita gidatua

Kalebarrenetik Antiguainorako arteko ibilbidea egingo dute, Landatxoeko kideek gidatuta.  
**Kalebarrenen, 17:00etan.**

### ARRASATE Klarinete kontzertua

Arrasate Musikaleko ikasleen eskutik.  
**Kulturaten, 18:30ean.**

### BERGARA 'Umore on TB' eta 'Ametsetan' antzezlanak

Jardunen haurrendako antzerki eskolako ikasleen emanaldia. Gonbidapena behar da.  
**Seminarixoan 18:30ean.**

### ESKORIATZA 'Arroz urez' liburuaren aurkezpena

Mikel Antza egilea egongo da ekitaldian. Gonbidapenak, Inkernun.  
**Kultura etxean, 19:00etan.**

### OÑATI 'Neskak, dantzara' ikus-entzunezkoa

2018an, historian lehen aldiz, emakumeek Oñatiko Corpusetan dantza egin zutenekoaren gaineko ikus-entzunezkoa. Sarrera libre, gehienezko edukiera bete arte.  
**Kultura etxean, 19:00etan.**

## EGUBAKOITZA 11

### OÑATI Odol ateratzea

Aurrez hartu behar da ordua.  
**Enpresagintzan, 16:30ean.**

### OÑATI 'Etxetik museora: Luzaide/Valcarloseko etnografia esperientzia' hitzaldia

Aranzadi Zientzia Elkarteko kide Suberri Matelo Mitxelenak egingo du berba, Erreusak egitasmoaren baitan.  
**Santa Anan, 18:30ean.**

## ZINEMA

### ARRASATE

#### AMAIA ANTZOKIA

#### Iargi guztiak (euskaraz)

Zapatutik astelehenera arte: 19:00.

#### Felix y el tesoro de Morgaa

Zapatua eta domeka: 16:00.

### OÑATI

#### KULTURA ETXEA

#### Druk

Egubakoitzetik astelehenera: 19:00.

### BERGARA

#### SEMINARIKOA

#### Urtzen

Domeka eta astelehena: 18:30.

#### Maya erlea, urrezko esfera

Domeka: 16:00. 00:00.

### GASTEIZ

#### GORBEIA

#### Raya y el ultimo dragon

Egubakoitza eta zapatua: 17:00.

Domeka: 12:00, 17:00.

#### Tom y Jerry

Egubakoitza eta zapatua: 17:45. Domeka: 12:00, 17:45.

#### Poliamor para principiantes

Egubakoitzetik domekara: 17:20. Astelehenetik eguenera: 17:30.

#### First cow

Egubakoitza eta zapatua: 21:45. Domeka: 19:40. Astelehenetik eguenera: 17:20.

#### Cascarrabias

Egubakoitza eta zapatua: 17:30. Astelehenetik eguenera: 12:00, 17:30.

#### Cruella

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:10, 20:15, 21:45.

#### Maya erlea, urrezko esfera

Domeka: 12:00, 17:30, 19:10, 20:15. Astelehenetik eguenera: 19:10.

#### Uno de nosotros

Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 22:00.

Domeka: 19:30. Astelehenetik eguenera: 20:00.

#### Despierta la furia

Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:40, 22:00. Domeka: 12:00, 17:15. Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

#### Maya erlea: urrezko esfera

Egubakoitza eta zapatua: 17:30. Domeka: 12:00, 17:30.

#### Expediente Warren

Egubakoitza eta zapatua: 17:35, 19:50, 22:05. Domekatik eguenera: 17:35, 19:50.

#### Reservoir dogs

Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:10. Domeka: 12:00, 20:00. Astelehenetik eguenera: 17:30.

#### El hobbit

Egubakoitzetik domekara: 19:30. Astelehenetik eguenera: 19:15.

### Un pequeño contratiempo

Egubakoitza eta zapatua: 17:45, 19:45, 21:45. Domekatik eguenera: 17:45, 19:45.

### Shorta: el peso de la ley

Egubakoitzetik domekara: 17:30, 19:20. Astelehenetik eguenera: 17:35, 19:45.

### Asterix: edabe magikoaren sekretua

Domeka: 12:00.

### BOULEVARD

#### Expediente Warren

Zapatua eta domeka: 16:10. Egubakoitza: 20:40. Egubakoitzetik domekara: 17:00, 18:40, 19:20, 21:10, 21:40.

#### Shorta

Egubakoitzetik domekara: 17:15, 19:30, 21:45.

#### Reservoir dogs

Egubakoitzetik domekara: 19:20.

### Despierta la furia

Zapatua eta domeka: 16:30. Egubakoitzetik domekara: 19:00, 21:30.

### Cruella

Zapatua eta domeka: 16:00. Egubakoitzetik domekara: 18:00, 19:00, 20:45.

### El viaje de Chihiro

Egubakoitza: 17:45. Zapatua eta domeka: 16:45.

### Poliamor para principiantes

Egubakoitzetik domekara: 17:55, 19:55.

### Este cuerpo me sienta de muerte

Egubakoitzetik domekara: 17:00.

### Aquellos que desean mi muerte

Egubakoitzetik domekara: 21:30.

### Tiburón blanco

Zapatua eta domeka: 16:00.

### Nadie

Egubakoitzetik domekara: 22:00.

### Una de nosotros

Zapatua eta domeka: 19:15, 21:35. 00:00.

### Godzilla vs Kong

Egubakoitzetik domekara: 17:00.

### El olvido que seremos

Egubakoitzetik domekara: 19:20.

### Upsss! Ahora donde está Noe?

Zapatua eta domeka: 16:00.

### Tom & Jerry

Zapatua eta domeka: 16:00.

### EIBAR

#### COLISEO

#### Despierta la furia

Zapatua eta domeka: 17:00.

#### Gaza mon amour

Zapatua eta domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.

#### Uno de nosotros

Zapatua eta domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 20:30.

#### ANTZOKIA

#### Cruella

Zapatua eta domeka: 16:30.

## KRITIKA

### Cruella ★★★★★

**Zuz.:** Craig Gillespie. **Herr.:** AEB (2021). **Aktoreak:** Emma Stone, Emma Thompson, Joel Fry. **Iraupena:** 134 min.

## Disney ukitua

### ANTONIO ZABALA

*Cruella* filma ikusterakoan, *Joker* filma etortzen zaigu burura berehala. Bi filmetan, pertsonaia nagusiaren iragana ezagutuko dugu. Bi pertsonaia maltzurren bidea ikusiko dugu, famatu egin dituen izaera garatu arte. *Joker*-ek bidea zabaldu zuen, eta orain, Disney etxeak Todd Phillipsen proposamen hauslea eta desorekatua bideratu du, familia guztiarentzat zuzendutako proiektu distiratsua lortzeko.

*Cruella* begietatik eta belarrietatik sartzen da. Irudiaren aldetik, dekoratuak, jantziak, kamera mugimenduak, erritmo bizia... benetan liluragarriak dira. Horri guztiorri lotuta doa agertzen diren garai eta estilo guztietako abesti klasikoak: The Rolling Stones, Deep Purple, David Bowie, Judy



Garland, Cole Porter... Eta dena borobiltzeko, Emma Thompsonen eta Emma Stoneren lan ikusgarriak. Disney etxeak ia 100 urte darama zinema munduan, eta ondo daki arrakasta lortzeko haurren eta helduen arreta lortu behar duela. Batzuetan, ez da gertatzen, baina, inspiratuta daudenean, lortzen dituzten

emaitzak bikainak izaten dira. Filmak ukitu gaiztoa dauka, Jekyll-en eta Hyde-en arteko norgehiagoka, normaltasunetik irteren diren portaerak...

Aldi berean, badakiek haurrek gustuko duten animaliekin leku egiten, baita non dauden gainditu behar ez diren mugak.

Azken finean, emaitza benetan ikusgarria da.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

## Kopetan tiroa

Lagun batek bideoa bidali zidan; irudi ederra, erakargarria eta oso esanguratsua: goian zerua urdin-urdin, atzean Ernio mendiaren tontorra eta aurrean, beste plano batean, baserria zuhaitzez inguratuta. Honen guztionen aurrean abeltzain bat, kamera piztu eta makila eskuan duela, txakur laguna aldamenean, belar gainean esertzen da. Minez ekiten dio esan beharrekoari. Aralarko artzain eta abeltzainek pista batzuk antolatu dituzte Aldundiaren oniritziarekin, bordetara erosoago iristeko, euren lana baldintza hobeto egiteko.

Pista hauek lehendik bazeuden, baina artzainen ibilgailuak iritsi daitezten konpondu dira. Ekologistek auzitara sartu zituzten Goierriko zenbait alkate eta baserritar eta Aldundiko zuzendaria. Denuntzia guztiak bertan behera geratu dira. Pozik zeuden bertako abeltzainak, baina gure abeltzainari, Joni, gutxi irau dio poztasunak. Bihotzeko nahigaberik handienaz argazki pare bat erakusten ditu, bere behietako bat kopetan tiroz akabatuta, belardian zerraldo. Jonen hitz nahigabetuek honela diote: "Niri mina nola egin bazekien ondo hau egin duenak".

Judizializazioa eta mendekua, gaur egun politikan ere nagusi.

GOIENA OKM GIDA

# "Gasolina guk jartzea baloratu egiten dute"

**SUSANA ANDUAGA OÑATIKO MAGDALENA GASOLINDEGIKO ARDURADUNA**  
Hogeita sei urte daramatza Magdalena gasolindegian autoen deposituak betetzen Anduagak. Bezeroekin harremana eta zerbitzu pertsonala azpimarratu nahi izan ditu

**Jone Olabarria OÑATI**

Goizeko bostetan hasi eta gaueko hamarrak arte egoten da zabalik Oñatiko Magdalena gasolindegia. Herritarrei zerbitzu "ahalik eta osoena" eskaintzea dute helburu, eta, horregatik, gasolindegiko langileen ardura da bezeroei gasolina jartzea.

**Ez al duzue inoiz pentsatu autozerbitzura pasatzea?**

Hogeita sei urte daramagu hemen eta beti jarri dugu guk gasolina. Lehen, ez zen ohikoa norberak botatzea, eta gaur egun, behar bada ohikoena ez den arren, jendeak baloratu egiten du gasolindegiko langileak jartzea erregaia. Badira batzuk, batez ere gazte jendearen artean, eskatzen dutenak beraiek egitea. Edozela ere, adinekoendako askoz errazagoa da guk jartzea, erosoagoa.

**Diesela ala gasolina? Lanerako zer nahiago?**

Gasolina garbiagoa da eta usaina ere ez du horrenbeste uzten eskuetan; diesela beti zikinagoa izan da, eta errazago zipiztintzen du edo usaina utzi eskuetan. Gero, egun osoa usain horrekin egon behar da...

**Zein da herritarren ordu preziatue-  
na depositua betetzeko?**



1995a ezkerrean dabil Magdalena gasolindegian lanean Susana Anduaga. M.A.

## la ordu erdian, autorik ez bidean

"Zirkulazio handiko errepidea da gasolindegia aurretik pasatzen dena, eta etengabe igarotzen dira autoak. Itxialdian zerbitzua ematen jarraitu genuen gasolindegioak. Lanera joan beharra zuten herritarren batzuk etortzen ziren, baina oso gutxi. Errepidea hutsik zegoen, batez ere, industria ere geratuta egon zen tartean. Erlojua hartu eta kronometratu egin nuen; 25 minutuan ez zen auto bakar bat ere igaro. Beldurgarri samarra ere bazen".

Goizean goiz etortzen da jende gehien, askok lanera bidean doazela aprobetxatzen dute. Eguna aurrera doan neurrian, lasaitzen joaten da.

**Baduzue beldurrik orain arte mugikortasun eredu agortu eta negozioa pikutara joateko?**

Egia esanda, urrun ikusten dugu, eta ez dut askorik pentsatzen horretan. Hala ere, ohiko erregaia desagertuta ere, elektrikoek lekua egin beharko zaie, edo alternatibaren bat bilatu. Gasolindegia klasikoaz gain, beste zerbitzu asko eskaintzen ditugu. Dena itxita dagoen horietan gu zabalik gaude, estualditik ateratzen lagundu diogu bati baino gehiagori...

**Aurretik beste kokapen bat zuen gasolindegia, baina nola sartzen ziren bertan trailerrak?**

Ba, hori bera galdetzen diot nik neure buruari. Avenidan genuen lehen gasolindegia, egun Maria de Irizar kalea denean. Orain, atzera begiratuta, askotan pentsatzen dut nola sartzen ziren haraino trailerrak, kamioiak... Herri erditik ibilgailu handi horiek guztiak etengabe.

**Zer da lanbide honek duen onena?**

Jendearekin hitz egiteko ematen dizun aukera: batzuk joan, beste batzuk etorri. Jende gutxi dabilenean, luze egiten zait.

**Internetekin eta teknologia berrie-  
kin nola konpontzen zarete?**

Hortxe gabilta. Borroka handia izaten dugu, esaterako, txartel bidez kobratzeko gailuarekin, beti jende gehien dagoenean apurtzen da.

Goiena OKm  
Gidaren  
eskaintza  
osoa



goiena  
Okm  
gida

## LURRALDE EKINTZAILEA

**GOIENA TELEBISTA, BIZIKLETA BERBAGAI MAHA-INGURUAN**

EKAINAREN 10EAN, EGUENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

**GONBIDATUAK: ANGEL GALLO (GOI ESKOLA POLITEKNIKOA),  
XUBANE GARAI (TXIRRINDULARIA), MARKEL IRIZAR (TXIRRINDULARI OHIA)  
ETA IDURRE ALBIZU (GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOA)**  
GARAIAREKIN ELKARLANEAN EKOIZTUTAKO SAIOA

goiena  
Zu hemen zaude.

